

Jean Pierre Mendiburu

Ene bertsuen feiria

(Bertsu-bilduma)

Auspoa Liburutegia

306

MENDIBURU, Jean-Pierre

Ene bertsuen feiria : (bertsu-bilduma) / Jean Pierre Mendiburu ; [sarrera, Emile Larre]. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2007.

366 or. : argk. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 306)

Aurkibidea

LG SS 1376-2007. – ISBN 978-84-7907-576-7

I. Larre, Emile, pr. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera, ed. III
Título. IV. Serie.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-576-7

Legezko Gordailua: S.S.1376-2007

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Jean Pierre Mendiburu

Ene bertsuen feiria
(Bertsu-bilduma)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2007

Emile Larre euskaltzainak

Jean Pierre Mendibururi gutuna

Jean Pierre adixkidea:

Ikusi dut nik ere zure bertsen bilduma aberats hau. Izanen zinuen bai zuk besterik ere oraino hemen ez baitira emanak, eta halaber aireak berekin ereman dituen hanbat bertsu ta kobla. Hauk dena den hemen dira eta nehork ez dauzkitzu kenduko.

Ene partetik aitortzen dautzut atsegin haundiz irakurri eta frangotan kantatu ditudala, eta aitzina ere berrikusiko ene ahusaldi egunetan, zurekin oren goxo batzu iragan nahiko ditudanean. Enekin izanen ditut nihauk lehenik zure omere alaiaren lekuko eta gogoeta on ainitzen iturri. Itsas-mendietako ikusmen ederrak eman zituenak, bai-eta pentzeetako loreak heiekin, harek berak erain zituen Euskal Herri huntan, beste gutitan bezala, euskal bertsulari ta idazleak bestelako lore-lilitzat gure beharrien xoragarri.

Nik segurik ene partetik eskerrik beroenak dauzkitzut eskaintzen denetaz; eta zerbait parte izan badut nihaurk zure emaitzetan, bereziki lehen denbora heietan, eta geroztik ere maitearen maitez, ene euskal gose ta gostua gatik bederen, hobe segurki!

Eskerrak orai bihotzez, zuhauri lehenik, bai-eta zure espos anderea Jacquelin. Alaba Mirentxu eta guziak, nola berex? Eta nola ez Aita Zabala, Joxemari Iriondo, Pello Esnal, Joakin Berasategi eta guziak?

Guk aldiz toki onean altxatuko dugu liburu hau, denek dazkigun beste batzuen ondoan, ez segurki hantxetan zurmin-tzeko, bainan bai sosegu goxo-goxogarri.

Emile Larre

Ernest Alkat bertsulariarekin elgarrizketa J. P. Mendiburu adiskideaz

Heletan izan dut nik, Emile Larre, Mendibururi bisita egiteko parada, liburu hau zuzentzerakoan. Aita Zabalak igorri-rik, hor nauzkan Joxe Mari Iriondo eta Joakin Berasategi enekin, Mendibururi eta esposari gure agurra egiteko. Sarrera hitz hau maiteko ginuen gure bertsulariak berak eginik, bainan maiz hola dira jaun horiek: elasturia baino maiteago dute saio-ko lana, bertsuz, elkarrizketaz edo sendimendu onez. Nik aldiz Mendibururen auzolagun bertsularia Ernest Alkat, hau ere bertsulari adiskidea, hunen liburua ere kasik presta dago ondotik ateratzeko, Mendibururena egin eta nahiago izan dut mintzarazi, galdetto haueri ihardetsiz. Gauden beraz hemen bi lagunak elgarrekin solas zenbaiten doia.

–Beraz, Ernest Alkat: Noiz eta nola ezagutu zinu en Jan Pier Mendiburu?

–Nik ezagutu dut Mendiburu arras gazterik J. A. C. mugimenduan, Amikuze aldean egiten ziren biltzarretan. Laborari gazteen girixtino talde hortan arras argia agertzen zen Mendiburu, nahiz eta orduko biltzarreak frantsesez egiten ziren, eta biga bortzetan pentsatu izan dut holako gazte argi bat ez zenetz penagarri laborari etxe batean mugatzea; bainan gerok erakutsi daut laborari izaiteak ere argitasuna eskatzen duela. Beraren ganik jakin nuen hunen arrebak aspaldian lotua zuela bere bizinari eta bakarra zela Jan Pier etxeari lotzeko.

–Eta bertsulari bezala?

Bertsutan hasi aintzin, antzerkian hasia zen Mendiburu, Jean Pierre Curutchet, Jeannot Etcheverry, Maite Dunat eta hanbat Heletar trebaturekin.

Ondotik, uste dut Heletako kermeza egun batez entzun nuela Jan Pier bertsutan lehen aldikotz, eta ni lehenago hasia, ez nion egun hartan oparirik egin eta uste dut frango bortizki ere hitz egin niola. Bainan damaturik, biharamunean idatzi nion barkamenduaren eskatzeko.

–Bazinutela haatik bihotza ere ordukotz denen artetik. Gerokoaren gaia hori. Eta nola segitu duzue?

Gero sortu ziren bertsu saio batzu, Aiherran, Itsasun. Irisarri eta bertze herri batzuetan ere. Berantxago, Aita Aranalde zenari esker, hasi ginen Añorgan, Idiazabalen eta bertze toki batzuetan. Mendiburuk nahiago zituen hango saioak, ongi prestatuak eta gai emaile on batekin. Hemengo kermeza eta zikiro bestak ez zituen hain maite, gai emailerik ez, harrabotsa, erretzaileen keak ere ez zakon onik egiten.

–Bertsulariek ere baduzue bakotxak bat bestez zuen begia eta zuen hautuak ere. Beraz, holako bertsularia da zure ustez Mendiburu?

Mendiburuk, ene ustez, ongi landu du bertsularitza, lan eginez bixtan dena, aireak ikasi eta berexi ditu ongi, lerro bukaerak ere landu ditu, eta errima aberatsak azpimarratu. Funtsean, *Bertsutan ariz ikasten* liburuan denak xeheki emanak dira eta orduko laneko tresna eder bat da beti ere bertszale eta bertsulari gai guzientzat, neurriak beti xuxen eta lerroburuak beti lehen klasan arrimatuak. Halaxe-holaxekeria guti Mendibururen bertsukatze moldean.

–Elgarrekin bertsutan nola ibili zirezte?

–Ardura elgarrekin ibiltzen ginen Hegoaldean bereziki, baditugu zonbait kezka jasanik, bidean galduak ere ibili gira zonbait aldiz eta hango “mutur beltzeri” zerbaiten eskatzeko hango erderarik ez jakin. Zonbait irri ere badugu eginik. Gero bertsutan desberdinak ginen. Hura xapelketako bertsularia, aireak menperatzen, bukaera aberatsak eta bertze. Ni aldiz

lagunarteko bertsulari bat, aireak beti berdintsuak, bukaerak ez hain berdinduak eta holako. Behin Nafarroako xapelketa batean nahi izan zuen 9 puntuko aire batean hasi eta nik ezetz, ez nuela segituko eta hamarreko handian kantatu ginuen.

–Eta idatzizko bertsuetan?

–Horietaz ere aberats da liburu hau. Mendibururen bi liburuak hor izanen ditu luzazko Heletatik eta Iholdirainoko xoko hunek, agian segitzaleak ere aterako direlakoan. Mendiburuk ainitz idatzi du, ainitz sariketatan parte hartu eta asko sari ere irabazi. Bainan nik ere zerbait egin dut sail hortan. Bien liburuak hor izanen dira, egin lanen lekuko.

–Xalbador, Mattin eta bertzeak?

–Xalbadorrek, Mattinek, bete dute ederki beren eginbidea eta lekukotasunak utzi. Xanpunek eta Arrossagaray zenak ere egin dute berena eta bedera liburu eder utzi. Heian Ezponda eta Mixel Xalbador ere atzarriko zauzkigunez beste hainbeste libururekin edo hobeki? Uste dut biak ere erretretan sartuak direla eta zerbaiten idazteko prest.

–Mendibururen liburu huntaz?

Ez dut liburu horren izenburua ezagutzen oraino bainan badakit dudarik gabe liburu lodi eta ederra izanen dela. Ager dezala egilearen nortasuna eta irakurleeri adierazi nahi dioten mezua. Ager dezala ere haren bertsulari, antzerkilari eta laborari bizia, bere gora beherekin. Liburu horrek izan dezala bere lekua, Heleta Ospitalekoan bezala, herriko ximinegi gain guzietan, haur ttipiek, kadera baten gainerat iraganik, eskuratu ahal dezaten, begi bihotzez irakurtzeko gisan.

–Nik ere neurea erran dezadan, huna eskerrak Jan Pier eta Ernest, zueri bieri. Bai, aspaldi du elgar ezagutu ginuela Herria kaseta euskaldunaren bidez eta beste, artikuluak eta bertsuak ere goizik igortzen zinazkidatelarik Baionara eta nik hain begi gaixtoa, zuen berttua ez bazen xuxena. Ez ote zen

hori ere eskola moduko bat izan zuendako? Geroztik zuzentzaile hunek izan duen sari ederra zein den badakizue: hanbat aldiz nola txalotu zaituztegun saioetan, omenaldi, kermeza eta beste! Eta guziz, zueri txapelaren kopa emaiteko atsegina izan dudalarik Nafarroako txapelketan eta hola! Epaileak xorrotxak zirela, hala da, eta guhaur holako talendu gabeak, hori ere egia, bainan mundu hau da holakoa eta guziz euskal mundua. Nork daki ez ote dituen gure herri hunek beste askok ez bezala landu bere sortzeko dohainak holako paraden bidez, eta heietan bertsularitza!

Bere izarrak sortzen ditu holaxe gure herri hunek noizetik noizera eta heietarik zaizte oro, izenak ez beti errepikatzeke. Eta izarrekin gertatzen dena, hemen zeru garbiaren gaineko distira bat, eta hor lano beltzaren pasaia. Bainan pasa direla lanoak, horra jadanik zuen ordainak ere pizten hasiak, gazte gazteak, bertsularitzan.

Eskerrak zueri, Jan Pier, Ernest eta besteak, eta argi deza-tela izarrek!

Emile Larre

Salbatorez Eiheralarren

Udaberrian bazter orotan bada xori eta lore,
horiekilan baserria da airos ta badu omore.
Garazi hortan Eiheralarrek izana baitu fagore,
aipatuko dut nola iragan duen kantuz Salbatore.

Semea kantuz ari delarik trixte ote dago ama?
Kantuak emaiten dion poza zuk ez dezakezu asma.
Kantari haundi berri batzuek izanikan ere fama,
ez nuen uste hoinbertzedino herri alde zaizken berma.

Nere bihotza xoratua zen kantu ta soinuez gaindi,
atsegin goxo eztiagorik ezin baititake sendi.
Geroan ere ibiliko naiz kantu bila mendiz mendi,
dakitalarik nun ote diren Larralde ta Etxamendi.

Eskual kantari berriekilan iragan arratsalde on,
Donostiako Bakartxo batek ekarri dauku zorion.
Hura bezala Labeguerie-ren seme bizi dena Kanbon,
horiekilan luzekiago ere ginitazke egon.

Telebixtari so daude batzu dela futbol edo rugbi,
ihiztariak maite urtxoak eta hiltzen zonbeit erbi.
Bertze batzuek ostatuetan edan drago bat edo bi,
nik aise nahiago dut entzun eskual kantuan Oskarbi.

Jaun andereño gazteño batzu alai baditut aipatzen,
goresmenak bai hartze dituzte, ederki dute kantatzen.
Xuberotarrek bezain garbiki dutela xaramelatzen,
Etchepare deitzen dirade eta bizi Arberatzen.

Bi bertsulari gazte baziren ibilki bertsuen bila,
batek Irigarai du deitura, Arrosa hortan dabila.
Bertzea aldiz Arrossagaray, ez dago ixil ixila.
Ez da bertsutan nehoiz galduko Garazi eta Aintzila.

Aratsaldea kantu ta bertsu lorietan ginen oro,
gisa hortako pesta goxoendako baita beti aro.
Ta arratsean berriz biltzeko bazen ilar ta zikiro,
Eihalarrei juntaturik bai Aintzila eta Zaro.

Bertsu ta kantu zer euskal pesta sanoak eta ederrak!
Pesta horien moldatzaileek hartze dituzte eskerrak.
Damu haundi da: egun horiek bekan dire ta laburrak,
eta noiz berriz bilduko gaitu Eihalarreko lurrak?

Salbatorek daut bihotza bete, gogoaz ez hutsik utzi.
Barkatu hemen aipatu gabean norbeit badut ahantzi.
Bertze bat arte, Eihalarre, bai eta ere Garazi,
ez adiorik bainan guzier bihotz erditik goraintzi.

Herria, 1972.06.01

Gazten oihartzunak bertsutan Lakoinbegiri

Bertsu-lanari lotuz geroztik dezagun ahalaz segi,
gazten oihartzun saminak eman baiteraut gogoan argi.
Ongi mintzatu zira, gaztea, erran tutzu zonbeit egi.
nago euskaldun gazten artean nor deitzen den Lakoinbegi!

Nik ere usu kurritzen ditut inguruetako pestak,
eta ikusten nola dabilizan oraiko mutil ta neskak.
Urrikari tut segur askotan batzuen amak ta aitak,
bainan ez dira beharrik ere guziak berdin herrestak!

Pipan erreak eta edanak dadin egun ala atsa,
gazte batzuek galdua ere dizute jateko funtsa.
Hamar metretan ere bultaka dariote mozkor hatsa,
uste duzia manera hortan liberti ditaken untsa?

Bainan ez dira bazterretako gazte guziak bardinak,
hori derauku joan den asteko gure gazten oihartzunak!
Hogoi urteko mutiko baten artikulu erreminak
zion garbiki trixte horiek ez direla eskualdunak.

Artikuluia irakurtu-ta nihaur ere nintzan ilun!
Nortasun gabe zonbeit presuna bizi dira beraz egun.
Ohar balite manera hortan funditzen dela osasun!
Ororen buru galda nezake nor diren bada hobendun.

Mozkorreria manera hitsa, nork dezake hori uka?
Aldi bat paso, bainan bietan zuer gazteri ez barka.
Edanez geroz basatzen dira nola mendiko pottoka,
berdin baitzaizte funts gabe lotzen beren laguneri joka!

Zorigaitzeko hoiien gainean bertsutan hasian hasi,
niholaz orai ez nitake joan sail beltz hortarik ihesi.
Beren onetan egiten deiet ene gisako erasi:
nork nahi luke gazte hoitarik biziko lagun ikusi?

Oihartzunetan kaseta hunek ditu garbiki buluzi,
nun bertsu hotan nik beztitzea baitute zinez merezi.
Nork zakien ba zertan zitazken Azkarate ta Garazi?
Gaztek herrian lanik ez eta bainan soinupean bizi!

Ez da horrela hobetuz joanen Eskual Herriaren fama!
Hainbertzedino galdua zela nork bada zezaken asma?
Gaztea plazan mozkorra eta etxean nigarrez ama...
Planta hortarik ateratzeko gaiten otoi oro berma!

Oi ene gatik nahi bezala goberna ditaizke segur;
gazteen baitan ene erranek egoitza dukete labur.
Bainan egia gordin gordina erraiteko ez naiz beldur,
onhar zazute ala ez onhar; euskaldun gazteak, agur!

Herria, 1971-ko irailaren 16-ekoa

Ikastolen eguna

Airea: Urtzo xuria, errazu

Entzun, anai ta laguna,
ene dei goxo leguna,
atsegin berri bat elgarrekin laster biziko duguna:
Uztailaren bian Arrangoitzen da Ikastolen Eguna.

Izan dezagun axola
bizi dadin ikastola,
arbolak bere mintzairan entzun dezan ber'errexinola,
gure mintzaira eder maitea ez dadien gal nihola.

Haurrean ikasiz hobe
izaiteko arras trebe,
ait'amak bezala izan ditzen haurrak eskuararen jabe!
Zer ote laike gure herria eskual mintzairera gabe?

Amen bihotza ez urra,
maita eskuara ta lurra.
Argiratuz heure nortasuna kasa arrotzen beldurra.
Oraidanik herriaren alde berma hadi, eskual haurra!

Erakaspen bat eztiki:
eskuara bizi atxiki!
Jakintsun hoiek ere diote ederra dela biziki.
Haurrak, ikasazue eskuara ez izaiteko urriki!

Eskual seme ta alaba,
ez zaitzala deusek traba.
Haur maiteak, zuekin etorriko da herrira goiz-alba,
eskuara eta Eskual Herria ditezen betikotz salba!

Eskuararen sustatzera,
ikastolen laguntzera,
etor zaitezte nonbre haundian gurekin libertitzera,
ikastolen pesta ederrera etorri Arrangoitzera!

Herria, 1972.07.13



Heletako plaza

Emaztegiari

Airea: *Ttiki ttikitik aitak et'amak*

Orai artean entzuten eta bet betan zira elkortu,
ene alderat amodioa zure baitan da agortu;
edo hobeki gogoetan naiz behin ere zauzun sortu?
Maiteago bat badaukazula behar zinuke aitortu.

Ez dakit nola ote zintudan merkatu batez hatzeman,
ikusi ordu maitatu eta leialtasuna hitzeman.
Nere baitako fidantzia dut osoki zu baitan eman,
hobekiago izanen baitzen debruak balu ereman.

Atxikimendu den haundiena zurekin nuen osoki,
uste bainuen zure bihotzak bazuela nere toki.
Bainan ohartzen hasia nauzu: patarra ez da ordoki,
eta geroztik badakit zonbat nigar in dutan goxoki.

Zure bihotzak ene galdea ainitz aldirez entzun du,
ordu berean zure bisaia itxuraz baitzen ilundu;
eta emeki emeki zira nere ondotik urrundu,
dolore horren jasaiten orai nork beharko nau lagundu?

Ene baitako sendimendua egitate horrek hil du,
ordutik hunat ene barneko deia zerauta ixildu.
Zendako debru egun batez zu zira ni ganat hurbildu?
Zertako bada ni gana gabe ez zaituzte bertzek bildu?

Geroztik lotsa nauzu neskentzat, izanik ere maitale;
beldur naiz denak gerta ditela zu bezain enganatzale.
Nahiago dut neska zintzo bat amodioa seinale,
ez dena nehoiz izanen ziren bezala pena egile.

Hogoi eta lau urte dituzu, zentzuz bakarrik hamalau;
kontsolaturik bakar bakarrik gauza horrek ezartzen nau.
Sendimenduak behar baitira negurtu neskaren arau,
ez du balio trixterik hola egon nadin egun ta gau.

Ez uste izan ene bihotza zu gatik ditaken urtu,
maitasun faltsu batean ginen ta harek gaitu samurtu.
Idatz lan batzu moldatu ditut zu beharrean agurtu,
utzi dautazun bakearentzat nahiz eskerrak bihurtu!

1974, abendoan

Ama Euskal Herria norat ote doan?
Zabalduko dautzuet zer dutan gogoan.
Nekez aterako zait naski oraikoan,
pena haundia baitut ene bihotz joan,
Ama hau hil herrirat buruz baita joan.

Ama hiltzerat doa, hauxe da zer kenka,
bihotzak jotzen dion hunki dut noiztenka.
Biziaren auzia nork eta noiz trenka?
Ezin bizi, ezin hil, ama bat auhenka,
hola ikusiz nago oiuhu dolamenka.

Auhenka zauden ama, mintza zaite, mintza,
zer da egin nahia daukazun agintza?
Zoin da zu bizitzeko bakezko baldintza?
Edo zoin da gostuko ez duzun egintza,
senda bekizun semen ganik duzun pintza?

Mintza zakizkit, otoi, o ama maitea,
nahi duzuia zerbeit bero emaita?
Edo buru beroer gora erraitea
trixte jarri dutela zure izaitea,
berek bilatuz zure lurrerat joaitea?

Hil zorian zaudela, oi ama, badakit,
amentsa balitz hobe, ez nindazke akit.
Bainan ez da lo asma egiaren gatik,
bi begiak burutik ateraiak zauzkit,
Ama hil baino lehen zerratu bekizkit.

Norat joaki zira ni utz eta ihes?
Jakin dutan berria ez dezaket onets.
Gogo bihotzetan zer ote duzu trebes?
Entzun nezazu, otoi, entzun eta sinets.

Baserria utzirik zoazi hirira,
irria begian ta kopetan dirdira.
Hirian bizitzeko ederregi zira!
Hirian ainitz lehoin ta otso badira.

Entzun nezazu, otoi, neskatxa gaztea:
bizirik hiltzea da hirirat joaitea.
Inozentzia hori erretx egitea,
ez zaitela engana, oi nere maitea.

Jada ainitz joan dira dirua goguan,
eta trixteki bizi karrika zokuan.
Amets hori ez utzi sartzera buruan,
hirian bizitzea ez baita zeruan.

Joaiten balinbazira hiri txar batera,
han sartuz geroz kasik ezin da atera.
Zato nerekin, otoi, baserri maitera,
hobeki ta geiago dukezu jatara.

Ni hiriarendako beti naiz beldurrez,
ez uste mintzo naizen faltsuki gezurrez.
Lehen ere zioten urrunetik urrez,
bainan tokira ordu hura ere lurrez.

Hirian toki eder frango segur dago,
bainan hirian dena han berean bego.
Aspaldian gauza hau entzun eta nago:
han dela ortzirale bat baino geiago.

Batzu plazerrez eta bertze batzu bortxuz,
gazterik joan dira hiriari buruz.
Horietarik zonbeit bazinitza ikus
nolatsu bizi diran nigar ala kantuz.

Ene azken solasak entzun, otoi, Maite,
ni ez naiz hirirako, hortaz orroit zaitte.
Ta badakizu zonbat zaitudan nik maite,
baserrian geldi ta egon bazinite!



Ospitalea, ene sort-etxea

Setiatzen ari nau sofrikarioak,
xangre minak ni baitan egin tu erroak.
Gaitz trixte hau kenduko dauta herioak,
zeru alde so ditut bihotz ta gogoak,
munduari eginez azken adioak.

Luza gabe zerua beharko goretsi,
huntaratu naizela ezin dut onetsi.
Nere biziaz jada hartua dut etsi,
eritasun hau zer den ezin da sinetsi,
hunek behar derauzkit bi begiak hetsi.

Nork ez ditu senditzen gaitzaren kolpeak,
izan gaiten aberats ta izan pobreak?
Azken egunak ditut, zer egun dorpeak!
Ikusten jaten ari nauela xangreak,
nik bezenbat pairatzen du nere andreak.

Fedea dut argi ta trixtura aterbe,
hola bizirik baino hiltzea da hobe.
Andrea gelditzen da hiru haurren jabe,
aita galdu ondoan hiru dohakabe,
trixteago litazke beren ama gabe.

Ez dut egiten bainan emaiten dut lana,
ohean nago zabal zabalik etzana,
hunarat behar ditut jana ta edana.
Parabisua dauta Jaunak hitzimana,
gogotik joanen naiz laster Haren gana.

Lehen ere izan da lepra eta beste,
eritasun trixterik gizartez gizarte.
Gaitza ez da egoiten gutarik aparte,
sofrimen huntan hartu nahiko dut parte,
Jainko maiteak berak nahi duen arte.

Batzuetan lasterka, bertzietan hurri,
herioa dabila bi gisetan kurri.
Gogo eta bihotzez ez bainaiz bihurri,
onartzen dut fedea betiko hazkurri,
ezin agortutako ibaien iturri.

Behar ordua etorri eta jo dut norbeiten atean,
nere gogoia zegoelarik esperantzaren betean.
Aberats baten bortan ninduzun, jauregi eder batean,
holako esker gaixtorik ez dut ikusi orai artean.

«Etxeko jauna, zure bortara beharrez nauzu etorri,
ebanjelio soleigarri bat dut gogoaren sokorri:
“Jauna, emozu beztitzekoa hotz ikaretan den horri”,
Jainkoak berak mezu horrekin zuregana nau igorri».

Ez baitu nahi aditu izan eskelari hunen botzik,
haren atean nintzelakoan erran ditake arrotzik.
Denetan hola izan baneza hoin ongi etorri hotzik,
erran nezake eskualdun jendek ez daukatela bihotzik.

Ez dauta kalte deus ere egin hor ukan jan ta edanak,
ez eta ere hotzik kenduko beztitzeko hark emanak.
Neskato mutil batzu baditu egiteko bere lanak,
ta berak dauzka egun osoak ohe gozoan etzanak.

Jendalde mota guzietarik izan behar duke lurrak,
batzu sobera aiserian ta bertzeak aldiz beldurrak.
Erdi goserik egongo gira senar emazte ta haurrak,
eta batzuek soberakinak ondoan beren zakurrak.

Mundu hunetan ezarri gaitu Jaunak on eta txar nahas,
elgarrekilan ahal bezala bizitzen ginezan ikas.
Mundua sortu den egunetik zuzentasuna da eskas,
lehenago're izan baitira Jesukristo ta Barrabas.

Denentzat berdin badago ere zero gain hori urdina.
ez du iduri denen zortea lur gainean den berdina.
Batzuk ez dute adimendurik, ukanik ere adina,
jende izana gatik bihotza dutelakoan burdina.

Burdinki horrek segurraz ere ez du odolik barnean,
odola balu urrikalkorra litake bere heinean;
esker gabea errezibitu, bainan bere aintzinean
Jainkoak berdin eginen dio zeruratuko denean.

Segur naiz berdin bihar goizean, lehen argi urratzean,
urriki latza izanen duke horrek, nitaz orroitzean,
jendetasunak galdatzen duen kontzientzia sortzean.
Hortakotz daukat barkamendua harendako bihotzean.

Hemen nabila goserik eta gorputza ezin berotuz,
kasik iduri joan naizela egunez egun errotuz.
Gauza ederrik egin ditake elgarri eskutik lotuz,
Jainkoak erran bezala elgar maitatuz eta lagunduz,
ez eta hola aberatsenek pobreak pobregotuz.

Herria

Zeruko Argia, 1975.08.17 eta 24

Zepai sarian

Idiazabalen, 1975 urtean, Zepai sarian, hemezortzi bertsulari. Bertsurik onenaren saria Mendiburuk ardietsi zuen, Azurmendik eman gai hunekin: bizirik lurperatu nahi zaituen enterradoreari:

Nork utzi zaitu orain neri hurbiltzera?
Nolaz menturatua hola ibiltzera?
Etorria zira zu nere ixiltzera,
lurperatu baino len utz otoi hiltzera.

Bizirik hola lurperatzea gogorra.
Jauna, zendako dut nik hain zorte idorra?
Nik ere maite dut kanpoan dutan alorra,
ala uste zinuen nintzala satorra?

Eta 1977-an, lehen atera zen Mendiburu. Bere emaztea eritegian zuela gogoan, egun hartan eman bertsuak:

Zeruko Ama, ene bihotza nori dezaket gomenda?
Zure bihotza hain amultsua eta suharra omen da;
nere baitan den pena haundia ez zazula gaur emenda,
egin zadazu nere andrea lehen bai lehen dadin senda.

Zendako bada trixtezi huntan da Mendiburu gaztea?
Ez du balio zueri nigar ein beharrez gaur hastea.
Etxen trixterik deramazkit nik eguna eta astea,
sei hilabete badu etxetik falta dut ner'emaztea!

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Airea: Goizean goizik

Nere herrira aurten da jautsi izigarriko itzala,
orai artean kantuz hasteko gogoa goibel nintzala.
Lagun gazte bat galdu dut eta hain zuen bihotz zabala,
aipatu gabe ezin dut utzi kabala hil bat bezala.

Hemetziehun hiru hogoita hamabortzean Heletan
ene lagun bat ehortzi dute hogoi eta lau urtetan.
Lau hilabete Bordelen egon zen ospitale batetan,
zer galbario lotsagarria maite zuten bihotzetan!

Ezagutzaren oso osoan ohe batean etzana,
osaegilek deus ezin egin, berek zioten errana.
«Deusik ez bada egiten ahal –berer zuen galdegina–
emadazue betiko loan jartzeko behar dutana».

Egun guziez joaiten zaion Pierre apez herrikoa,
apez langile gaztea eta gizon bihotz urrezkoa.
Mixelek hari egin omen du ber'azken kofesioa,
harekin hauta du hil mezako bere ebanjelioa.

Bazakien hil eta bihotza zeraiotela kenduko,
famiariaren ta bere baimen guzia zuten hortako.
«Ene bihotza har dezatela ikertzeak agertzeko,
ene bizia balia dadin bertze norbait salbatzeko!».

«Nere bihotza ken ta eraman –nork lezake hola egin?–.
Eritasuna ezagutuko da ene bihotzarekin»...
Nork erran dio «ni ongi nago» haundizki duelarik min?
Nork hautatu du ebanjelio bat bere hil meza aintzin?

Osagarria ez estimatzen ta balentriaz beterik,
urguluaren puntan gabilitza espantuz gairiditurik.
Jaunak lagun bat eraman dauku, nor deituko du besterik?
Zoin amak dauku utziko bere seme kutzari loturik?

Hil harri zolan iluntasuna eta usteldura dira;
zeru gainean alaitasuna eta izarren dirdira.
Mixel norbeit zen eta ez zagon ilundurari begira,
bere ondorat guziak deitzen gaituzke zeru erdira.

Nik zu zoin maite zintudan, Mixel, ongi senditzen dut egun,
norbeit gal eta gero dugu guk haren eskasa ezagun.
Jaunak gutarik nor du lehenik igorriko zure lagun?
Gazterik hilen direnendako otoitz bat egin dezagun.

Nere gogoa hola dabila beti trixte eta goibel,
eta Jainkoak batzu eginak ditu airos eta ergel.
Ene bihotzak egin uhuri hau bedi zutaraino hel;
ez adiorik, lagun maitea, bainan ikus arte, Mixel!

1975ean

Heriotzearen beldurrean sinesgabearen dolamena

Orain arte eginik hainbat kantu mota,
laurogoi-ta laugarren urte mugak jo-ta,
zabaldu nahi nuke bertsu hauer borta,
daukatan auhen mina nahi baitut bota.

Trixterik nabilala negu eta uda,
kantatzeaz eginik mila duda muda,
iragan behar dela zero lurren muga,
nitan den trixtezia hortarik heldu da?

Olentzerotan erretx du haurrak sinesten,
haur denborako gauzak ederrak sinesten!
Mundua ez dut begi berdinez miresten,
hortakotz hasia nau trixturak iresten!

Arkume hil bat nuen lurpean emana,
atzo berriz joan izan bainaiz haren gana.
Hezur hutsek jo dute nere bihotz barna,
begietan naukala nigar xorta bana.

Haragiz gabeturik hezurak zoin prestu!
Gureztat berdin dela pentsua nork ez-tu?
Ez aitortu nahian gabiltz dena jestu,
etzaidazula aitor emadazu esku.

Abar eiharra ez da sekulan hostatzen,
hau onestea nori etzaio gostatzen?
Haur ttipi bat bezala banintz Jainkostatzen,
trixtezia nerekin ez laike jostatzen.

Denek hil behar dugu, da gauza jakina;
askoz hobe zitaken sortu ez bagina.
Bainan deus ezin dugu, goazen aintzina,
hiltzeak estal beza deremagun mina.

Haurrean nitan zagon itxaropen gatza,
ez da berdina gaurko soinuaren latza.
Heriotza ez dela denen akabantza
sinesten duen batek ez du guti xantza.

Zendako xantza horri nabila iheska?
Nitan ez bailitake den bezenbat kezka.
Batzu bezala berriz banadi fedesta,
akaba litzaidake trixturaren pesta.

Haurreko lore hura nitan zen zimeldu,
daukatan zoritxarra hortarik da heldu.
Damatan etsimenak bururantzik ez du,
gizon adimenduak zentzua daut kendu.

Hargatik ilunki dut ikusten mundua,
zeruari nitzaio hainbat urrundua.
Argi eskasez nago barnez ilundua,
hobendun bakararra da ner'adimendua.

Zertaratua nauzun adimendu hitsa!
Nitarik kendu duzu argiaren hitza.
Zer debru egin duzu? Mintza zaite, mintza!
Nun gorde duzu ene fedearen giltza?

Herria astekaria

Plazerrekilan ortziraletan eskuratzen dut kaseta,
irakurgaiak euskaraz baizik ezin dirozkat nik maita.
Bertsuak beti behar litazke, suietak ez dira falta,
poesietan maite duenik segur ainitz jende baita.

Zure bertsurik bulta bat huntan ez zen ikusten batere,
beldurrez nintzan galdu zinuen kuraia eta omere.
Bertsurik hemen ez delarikan dizut pena ta dolore,
nahiz ez duten guziek beti zurek bezenbat kanore.

Adinekoa naizelakorik ez zazula izan uste,
xumea nauzu, ez jakintsuna eta zuhaur bezain gazte.
Igan uztailez beteak ditut hogoi eta hiru urte,
kantuz hasteko ez gaiten egon ahalaz zahartu arte.

Seme bat dela Amaren ganik Euskal Herritik urrundu,
kaseta hunek holako berri dizu munduan zabaldu.
Zure bertsuak bederen bitza astekari hunek bildu,
aberastasun guziak betan herriak ez ditzan galdu.

Zure ideiak agertu-eta ez duzu burua gorde,
nik ere dautzut izena uzten kukuka artzeko orde.
Bainan nihauren buruarekin egiten dut orai galde:
zure ta nere bertsu guziak ez ote diren debalde.

Zure iturri gazteño hori ez dadiela, ez, agor;
bertsu berriak noiztenka beden hunarat ditzazu igor.
Ez pentsa, otoi, berttua maite duenik ez dela nehor,
batzuen trufa zozoen gatik ez zazula eman amor.

Zure azkenak, lagun maitea, irakurtu ditut barda,
erantzunaren hel-arazteko zertako nainteke duda?
Zure aitamek lanez itoak pasatzen dukete uda,
heien semea lan dorpenetan Lurderat eskapatu da.

Xoraturikan zure ditzor so oraino nauzu egoiten,
nola ditutzun zure berriak zuk bertsuetan emaiten.
Hotel batean euskal semea ari da untzi ikuzten,
bere etxean ez baitzituen santa sekulan egiten!

Arrailleria gabe eguna ezin dirot aise pasa,
haatik ene hauen eskasa zuhaurek zazula osa,
Bertsutan ere nola ikuzten zu ari emazten gisa,
bi lan hoietan gazterik baizik ezin baititake usa.

Ez uste izan etxaldeetan eremua dela konda,
ez baitezpada ez da, ez, behar ainitz pentze eta landa.
Ala gazterik xahartu zira, segi zazu otoi moda,
belarretara lotsa bazira egin zazu entsalada.

Eta gainerat ez ote zira bertsu dohainaren jabe?
Koblaka ere zira segurra untziekin bezain trebe.
Bertsuetako lana hartzea zinuke, Jean, aise hobe,
aberastuko baitzira hola Euskal Herritik joan gabe.

Gogoetan naiz ez ote ziren besteren idaien premu,
idai zaharrak gazte batzutan daude eta zonbat fermu!
Manera hortan zu ikusteaz herri guziak du damu,
eta bestalde bertsuetako nork du geiago estimu?

Azken bertsu hau nik gaurko huntan emaita dizut pena,
erriatarat begietarat bezala dut loa jina.
Bertsu hauetaz konten ez dena etor dadila ni gana,
prezio huntan emanen dazkot hari ere bi dotzena.

Barkatu bainan oraiko huntan behar dugu elgar utzi,
zu agurtzea denen artetik ez nuke behar ahantzi.
Nik erranetan deus ere otoi ez zazula hartu gaitzi,
bestaldi arte nahi baduzu, ta anartean goraintzi

Jean-Pierre Mendiboure-k Jean Arrossagaray-i
Herria, 1971.08. 26

Etorkizuna

Nahi ala ez atera behar bihotzez sendi duguna,
ene ustean etorkizuna guretzat dator iluna.
Kontzientziaz erdaldundua delakoan euskalduna,
arras iluna ikusten dut nik gu denen etorkizuna,
Ama Euskadik biziki hurbil du bere azken eguna.

Euskal Herriko etorkizunaz ahalik eta maizena
itxaropentsu kantuz ibili zaitzue hemen naizena.
Bainan gaur egun tormentatua ta trixtatua naiz dena,
izana galdu ondoan orai galtzerat doa izena,
Euskadi baita bildots xume bat, aldean otso gizona.

Geroa ilun ikusten badut aitortzerat nazula utz,
herria eta hizkuntza biak laster ditugula gorputz.
Egun ederrak datorzkgigula enetako da aments huts,
euskara eta Euskal Herria doatzi tonbari buruz,
orai sinesten ez duen batek geroan dezala ikus.

Arrosako zubian

Airea: Lurraren pean

Arrossagaray, aipatu duzu Lasako gazte lagun bat,
ta Iholdiko auzapez zenaz mintzatu izan da Alkat.
Ene aldia etorria da, bertsu trixte zonbeit dauzkat,
deusek ez bainau koropilatzen ixtripu batzuk bezenbat,
bertsu doloros hauk badoatzi gaur Arrosako zubirat.

Ez dut hain maite berri hitsetaz bihotz guzieren laztea,
gai peningarri batzuez hemen bertsu ezar-araztea.
Deitoragarri litake ere aipatu gabe uztea.
Bi soldado hil, bat ezkondua, bertzea mutil gaztea,
nigarrez direlarik aitamak eta baten emaztea.

Errekontrua zoin den dorpea ezin ditake sinetsi:
kolpatuak hor hamabortz ziren ta biga urak iretsi.
Adin hoberen paregabean, ezin baitugu onetsi
beren biziaz behar zutela hoin gazterik hartu etsi,
behin betikotz dituztelarik beren bi begiak hetsi.

Hilak hil dira ta kolpatuak, gaixoak, zer maneretan,
sofrikario ezin jasanez dagotzinak nigarretan.
Ez ditzagula egundik harat ahantz gure otoitzetan.
Zer egun beltzak eta ilunak badiren mundu hunetan,
zer oinaze min ezin erranak badiren familietan!

Mundu hau hola duzu, denentzat badu irri eta nigar,
ezin da erran gerokoak zer ote diren guri ekar,
laster ahultzen baita jendea izanikan ere azkar.
Jainko onari kartsuki orai dugu otoitz egin behar
bi soldadoak bere ondoan zerbitzari ditzan onhar.

Bide bazterrak zoin lanjerosak, dena muga ta hesola,
gune itsuak nun nahi eta dena hesi ta arbola.
Kargu dutenek izan bezate gauza horiez axola,
izanik ere ez dakit zer den bezain kario petrola,
karioago baita miletan hiltzen direnen odola.

Sortuz geroztik nahigabea nehork ez baitu arrotza,
denek dakite doluminaren iturria zoin den hotza.
Aitama batzuk ez dute geio entzunen bi gazten botza,
zer ukaldia, zer trantsidura, zer sabaikeri zorrotza
hoin gaztedanik lurperatzea maite denaren bihotza!

Ixtripua gertatu dela jakin orduko egin bertsuak.

Herria, 1974.04.04

Zeruko Argia, 1974.10.06

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Batzu bezala hasteko partez Jainkoari otoitzean,
zuen kartari erantzutera banoa egun goizean.
Pentsa zazue zer atsegina nuen zuek ezkontzean,
Popol-en amak plazer haundia zuen bere bihotzean.

Hetsirik dagon xoria ez da nehoiz omore onean,
bainan halere zer iguzkia ezkondu zireztenean!
Zuen bihotzak libratu dira maitasun ederrenean,
kate gabeko amodiozko funtsezko zorionean.

Elix eta Gabi gaur gogoz zuen ondorat naiz jinik,
presondegian ezkont daikela plazerrekin dut jakinik.
Hori da zinez amodioa, ez da deus horren berdinek.
Ezkontza askok ez du emaiten zuenaren atseginik.

Ez da lorerik arantza gabe, hoi badakit aspalditik.
Askatasunik nigarrrik gabe, hori ere nik badakit.
Bihotz urratu hunen barnetik, pairamenaren erditik,
zuen ezkontzak arantzen xixtak doi bat ezeztatu dauzkit.

Elis Hauseguy, Gabi Mouesca, bikote zoragarria,
zuen bihotzen barnean libro esperantzen iturria.
Negu partean sartua naiz ni, zuentzat udaberria.
Elgar maitatuz maita zazue gur'Ama Euskal Herria.

Gabi Mouesca, Elis Hauseguy, biek duzue bat egin.
Mila goresmen! Mila zorion! Bihotzez nago zuekin.
Gabi libratzen den bezain laster Popol-en etxeraino jin,
zonbeit xanpaña hustu ditzagun hark ibili basoekin.

Gure alaba

Adixkide baten familian gertatua

Nahigabeak izaiten ditu noizbeit gutarik bakoitzak, eztiarazten ditu jendeak urgulutsu ta zikoitzak. Bainan auzoan gertatu gauzak ez dira hanbat bortitzak, diogularik: «Pausatua da; han ditu azken egoitzak». Ederragoak dira nork berak beretzat egin otoitzak.

Nunbeit gertatuz holako zerbeit guretako ez da bali, gure baitarik ez dugu nahi bertze batendako jali. Bainan etxean delarik zauku bihotz barnea uzkali, aingeruñoak zuen argia zaukulakoan itzali, gure gogo gau ilunaren ilunenaz da estali.

Holakoetan, fedea lagun, behar dugu ihardoki, eta gutarik bakotxak baitu nigar egiten goxoki. Ordu berean badakikegu otoitz egiten sanoki, gogo bihotzak biak emanik kartsuki eta osoki, Zeruko Jaunak gure hileri dezan atea ideki.

Kasu horretan girelakoan gira orai samurrean, hotz ikara bat sartua zauku gure bizkar hezurrean. Bizitzearen uzteak hola bere haurraren aurrean lazdua tzar bat eman derauku ta ezarri beldurrean, atsegingarri guretzat deusik ez da geroztik lurean.

Mundu huntarat etorri ordu ama baten sabeletik, osaegilek ez dute ahal salbatu izan gaitzetik. Agertu ordu iguzkia da itzali zero aldetik, doluminaren ilundura bat daukagula bihotzetik, haurra eskaintzen dugu Jaunari orai ooren gainetik.

Batzuek haurrik ez nahi eta bertzek aldiz ezin ukan,
nahi ditugun bezala gauzak direlakotz arras bekan.
Jainko Jaunaren nahier gaude nahi ala ez estekan,
bihotza beti daukagularik aingeruari perekan,
gure aldia da egoitea doluminaren errekan.

Gora ginuen burua behar izan zerauku apaldu,
geroztik hunat ez dugu biek ez lo egin ez bazkaldu.
Gure izana hormatua da, ote ditake gesaldu?
Jainko maitea, ilunpetara alaba ez dadin galdu,
urrikal zaite ta haurtxoari parabisua zabaldu.

Iduri luke gure biziak duela gustu karatsa,
gogoia lanbro ilun batean izar gabeko arratsa.
Gogotik ezin kendua dugu izar haren azken hatsa,
gure ganberan sartzeko ere gira biak berdin lotsa,
gure aldean dagolakoan ohakoa beti hutsa.

Solastatzeko ere ez dugu kasik batere talendu,
gure biziak behin betiko sumindura ukanen du.
Haurtxoa gabe ez duelakotz gehiago deus zimendu,
oldartu gira gure alaba, Jauna, duzulakotz kendu,
ezinbertzean hasarreturik nahi dugu barkamendu.

Haurra sortzean, bizi emaile, ginen airos eta alai,
ta gaixoari etorri zaio zerbeit biziaren etsai.
Aita-amentzat zer oinazea, zoin den bortitz eta salbai!
Dutelakoan sortuarentzat biek amodio nasai,
etsimenduzko oren hitsetan, Jauna, emaguzu kurai.

Gure alaba, Jauna, zuk otoi ezar zero gorenean,
harentzat dugu amodioa haundi bihotzen barnean.
Bakotxak maite ditu bereak paregabeko heinean,
lehen bai lehen ager dadila, Jauna, zure aintzinean,
gure nigarrak ezti ditzagun zeruratuko denean.

Aboztuaren hamekan.

P;- S.: Irakurle maitea, ez zaitela otoi harri bertsu hauk ikustean, ez baititut nihaurentzat eginak.

Senar emazte gazte batzuek izan dute pena hori eta heien dolorezko sendimenduak gisa huntan moldatu ditut, nihaurentzat balire bezala.

Herria, 1974.09.05

Zeruko Argia, 1974.10.20

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Airea: Ene izpirituan bazen zonbeit bertsu

Lehen erran zautaten, ez nuen sesitu:
«Eskual Herriak bere haurrak galtzen ditu!».
Gorputzarekin betan zentzua haunditu,
denborarekila niz ni ere argitu.

Nahi dut segitu,
gogo berritu,
bainaute izitu,
zinezki harritu:
egundaino ez dut hoinbertze sofritu!

Lana gure herrian delakotz eskasten,
lagunak derauztate aldizka ebasten.
Gure ohantzetako xoriak nahasten,
beren hegalean berri ez dute ikasten.

Hortakotz naiz hasten
bertzeri erraiten
zer dutan jasaiten,
pena daut emaiten:
sor-lekuan ez baigira aberasten!

Aldi huntan beretu dautate lagun bat,
maite baitut nihauren burua bezenbat.
Pena horren zauriak bihotzean dauzkat,
nigarra etorria bi begietarat.

Omen doa harat,
nik dakita norat,
Ameriketarat
dolar egiterat
ene bertsuetakoa laguna Alkat.

Hori jakitean zaut bihotza urratu,
amodioz husturik, kolpean herratu.
Zer debruk ere baitu hortara lerratu?
Behar diot berari garbiki galdatu:
 «Nahi hegaldatu,
 herritik airatu,
 urrun eskapatu,

holakorik nola debru duk asmatu?

Orai arte urruntzen zitian bakarrak,
batzu Urepeldarrak, bertziak Bankarrak,
gehienak gazteak, sano ta azkarrak.
Agerian dagotzi zaurien zakarrak:
 trixterik xaharrak,
 galdurik abarrak,
 etxeko indarrak,
 beren haur suharrak,
enganatu dituelakotz dolarrak!

Diruaren indarra badugu nagusi,
ainitz beharko dugu oraino ikusi.
Xoriak ohantzetik urrun badoatzi,
nun sortu diren ere ainitzek ahantzi.
 Urruntzerat etzi
 ez haut nahi utzi!
 Ez nuen merezi,
 hau dut irabazi:
lagun hori gabe beharko dut bizi.

Joaiten balinbahiz egonen nauk hotzik,
ez baitut nik entzunen geio hire bozik,
ez hire kantu ezti, ez bertsu zorrotzik.
Bakarrik egonen nauk denetaz arrotzik,
 etxean trixterik,
 lagun bat galdurik;
 ez dut ertekorik
 izanen hau baizik:
“Ez nukela hola joaiteko bihotzik”.

Herritik urrun hola joan direla ainitz,
bakotxak berak daki hori zoin den bortitz:
haurrideak nigarrez gu atxiki nahiz,
aita-amak gordeak erranik azken hitz!...
 Hoin denbora gutiz,
 Alkat, joan bahiz,
 gu bakarrik utziz,
 bi begiak bustiz,
ahal bezain laster etor hadi berriz!».

Herria, 1974.10.03

Munduko gauza txarrenak

Zer ote dira mundu hunetan ditazken gauza txarrenak?
Ez zaut iduri hemen aipatzen ahalko ditudan denak.
Errekontruak emaiten ditu ezin jasanezko penak,
bihotz hausgarri kolpatu eta pozikaturik daudenak.

Mundu hau duzu atsegabezko gertakariez betea,
batean berdin zoragarria, bestean berriz trixtea.
Gauza hitsena bortz gizonetan hiruek duten zortea,
gaur herrialde batzuetako jendearen gosetea.

Gertakari latz lotsagarriak etortzen dira batzutan,
uste duzia denak ezartzen ahal tudala bertsutan?
Gauza txar hau da gertatu izan jadanik asko lekutan:
gau ilunean iratzarri ta nork bere etxea sutan.

Gauza txarra da denentzat berdin zinez ikaragarria,
ttipi ta haundi, xahar ta gazte, guzien lotsagarria:
aro gaixtoa denen artean oi zonbat den lazgarria
ortzi karraska zimiztekilan hasten delarik harria.

Denbora txarrak laster hartzen du harrigarritzko itxura,
ibaiak goiti doatzilarik zer egiazko lazdura!
Sua hil daike, ura nork geldi? Hau da zinezko trixtura,
nehorat ezin eskapa eta goititzen denean ura.

Gauza txarrenak lur zabalean baditugu asko klasa,
Jaunari otoitz eginez geroz aise ditazkenak pasa.
Lanjerosago da nere ustez batzun jendetasun basa,
gizontasunak manatzen duen kontzientzia eskasa.

Gauza trixtena denen artean ez dea munduan gerla?
Eta diote han edo hemen beti nunbeit bizi dela.
Batzuen urguluaren gatik bertziek ixur odola,
eta bizirik hartzen badute zonbeit urteren kartzela.

Lotsagarrizko penaz betea da guziendako lurra;
jende on baten galtzeko aski delakotz jende makurra,
egia bezain aise erraiten balin badautzu gezurra.
Gauza txarrena duzu galtzea Jaungoikoaren beldurra.

Nortasuna're galduz geroztik jendea dago eria,
xangrea baino trixteago zaut ainitzen mozkorreria.
Denak, bekaizgo, herra bide ta zer nahi lohikeria,
dena ohointza, joka ta hiltze, oi zenbat basakeria!

1974.09.18

Munduko gauza ederrenak

Airea: Lurraren pean

Gauza ederrenetarik bat da nik uste gaztetasuna, bihotz barnean etxearen ta lagunaren maitasuna, agertuz eta zabalduz beti behar den zuzentasuna, bakartasuna baztertuz eta bilatuz anaitasuna, familian ta auzo artean egiteko batasuna,

Nere iduriz gauza ederra egiten du gauza gutik, guziak berma gaiten hortara bakotxa gure lekutik. Nahi badugu agertu noizbeit Jaunaren ondoan xutik, onar dezagun iguzki berak berotu eta zerutik, laguntza galdez dagon anaia hartzea gure eskutik.

Gauza ederra kaiolan dagon xoriaren bazkatzea, sofritzen badu nagusiari urrikia eskatzea. Xuri ala beltz denentzat berdin ongiaren xerkatzea, herra bidezko indarretarik gogoaren askatzea, horrek galdatzen badauku ere etsaieri barkatzea.

Gauza haundia etsaier ere erranez «adixkidea», gogo bihotzez bazter uztea lehia txarren bidea. Bizkitartean girixtinoek hoi dugu eginbidea, ederragoko deus ere mundu zabal guzian badea? Hitez ta obraz erakustea Jesusek eman fedea.

Kristauki hortaz bete gabea hobeki ginitazkea? Gerlaren pean purruskatuak gainean sua ta kea. Ez du balio Jainko onari egin dezagun galdea nahi ginuzkela ardietsi amodio ta bakea, onartzen ez badugu hortara deraman bide nekea!

Hatzeman behar omen direla galdurik dauden ardiak,
nago munduan ez ote diren jada galduak erdiak.
Nun ote dira gaurko ilunak bilatzen tuen argiak?
Lehen gelditzen ziren, ikusiz ifernurako zurbiak,
gorputz, arima, gogo, bihotz ta kontzientzia garbiak.

Manamendu bat guziz ederra Jainkoak dauku emanik,
«Lehenik Jauna ta gero elgar maita» derauku erranik.
Bertze nehuri ez egiteko nor berak nahi ez duenik.
Iker dezagun gure anaier zer egin dugun jadanik,
eta ordaintzat guk zer merezi ote dugun heien ganik.

Orroi hadi egun batez errauts bilakatuko hizala,
oroz gaineretik Jainkoa maita berak manatu zaukala,
eta lagun protsimoa ere hire burua bezala.
Kontzientzia ikertu eta burua apal apala
geldituko da hitsean dena bixtan dueno itzala.

Mundu huntako gauz ederrena ikusten dut nik garbiki,
anaier gaizki egiten bada Jainkoak min du biziki.
Anaia botatzen balinbaduk Jauna bera duk aurdiki,
barkamendua eskatu behar ta herrarik ez atxiki,
gauz ederrena da ukaitea gaizki eginez urriki.

Gauza ederra duzu biziki gaizki dela ohartzea,
ta egin ahal guziez gero urrats hobetan sartzea.
Ez du balio gaizki egin ta haren gainean jartzea,
hobe da aise egin hutsaren erreparatzen artzea,
ta sekulan ez berriz hasteko xede zintzoa hartzea.

Sendimendu batzu

Airea: Lurraren pean

Denen bihotzak, goiz edo berant, egun batez dira hausten,
indartsuenak ere baitira ohartu gabe errausten,
Noiz eta ere nahigabe bat zeraiotelarik jausten,
gutaz gorago zerbeit badela horrek baitu erakusten,
.....

Nahi ginuke nahigabea Jainko Jaunak bekantzea,
gure bizia atseginezko dohain guziez lantzea.
Bainan ez dugu segur merezi zorion hortaz hantzea,
egundainotik lore bakotxak baitu bere arantzea,
halaber duzu gure bihotza trixturaren ohantzea.

Ongi doatzen familietaz gira noiztenka jelosten,
ikusiz zonbat urosak diren ta zerk dituen airosten.
Deskantsu hori gauza bakarra, ez dena ahal erosten;
bai eta ere denbora gutiz dena beti inarrosten;
gauza bakarra, denentzat berdin, horrek gaitu oro josten.

Nahigabeak bihotz samurrak ditu ardura anaitu,
den idorrena denborarekin eztiaraziko baitu.
Bizitzearen Jabeak berak denak kanbiatzen gaitu,
holaxe egin eta zu ere gau batez hasiko zaitu,
berekoiaren jite guziak behar dituzu garraitu.

Atzo nituen sendimenduak bihar ditazke aldatu,
zendako behar dugu noiztenka behar gabe asaldatu?
Herrazko jite maleziosak bihotz erdian kaldatu,
nahi ez duzun gauzarik ez da bertzentzat behar galdatu,
bainan gaizkia etorritz geroz ongia da hegaldatu.

Ez du balio, espantulero, egin dezagun kukuru,
ez baitakigu, eta beharrik, zeren gagoztin aiduru.
Heriotzea dantzan dabila bizi denaren inguru,
nork bere pena horrek baituke estaliko denen buru,
funtserat-eta beharrik hor da pena guzien helburu.

Gure pegarra lurrezkoa da, hauts errexa den eltzea,
zer balio du gure buriaz fantesian ergeltzea?
Fede suharrez bete gaitela, trixte baita epeltzea;
berriz piztean sinets dezagun arnegatuz usteltzea,
ilunpen orde hobe baitugu argi alderat heltzea.

Orai artean berotu gira plazer hobereenen suan,
bainan guziak gertatzen gira lotsamenaren kasuan.
Bizkitartean beti katzakan elgarrendako hisuan,
ja luza gabe guziak berdin betiereko pausuan,
injustizia deusik ez daukan Krixtoren parabisuan.

1974ko Uztailaren 17an.

Herria, 1974.10.24

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburuan

Gai trixte hau aipatu gabe nola utzi?
Zer gertatu berri den, ez zaitela izi.
Molde hitsetan baitzen emazte bat bizi,
barkamenik ez luke sekulan merezi,
senarrari odola du ixur arazi.

Amodioz baitzuen bihotza husturik,
bertze batekin urrun zen eskapaturik,
etxean ziren diru guziak harturik.
Senarraren biziak ez zuen gusturik,
ez baita harritzeko, baitzen lotsaturik.

Emazteki arina lagun tzarren bila,
senarra utzi eta kanpoan dabila.
Lohikeria duzu gorputzen iztila.
Gizonari ihesi nun gaindi zabila?
Kontent zirea orai: senarra da hila?

Jainkoari eskainiz beraren arima,
senarrak eskuetan hartu zuen harma.
Anartean, andrea, nun zinen nork asma?
Bizi barreatuan dago zure fama,
orroit zaite lau hurrek zaituztela ama!

Gaixo hurrek nun dute kontsolamendua?
Pizua da holako enterramendua!
Setio beltza baita nork bere burua
nahitarat hiltzea, zer etsimendua!...
Aitaren bizia da, ama, zuk kendua.

Zer on erran ditake bihotz gabe batez?
Barkamenik merezi duen bai ala ez?
Senarra zeruan da Jainkoari galdez
bere andrearentzat, maitearen maitez,
urrikalmendu eske, gaztiguen partez.

Auzi bat egiteko ez nuke kemenik,
izana gatik ere erregen baimenik.
Andre horrek izanen duen barkamenik
bego Jainkoa juje lehen eta azkenik,
hemen ez baita juje bat aski zuzenik.

*74ko Urriaren hamarrear
Zeruko Argia, 1974.11.10*

Ene andregai zena

Mendaro Txirristaka sariaren 2-n prima¹

Ustekabean etorri zauta gaitzeko berri trixtea,
nihauri erran behar zutener neke baitzen erraitea:
«Auto ixtripuz kolpatua da zure andregai gaztea...».
Ihardetsi dut: «Grazia duta bizi deno ikustea?».

Ordu berean ikusi ditut beren begiak apalik,
ohartu ere ez zuketela ihardesteko ahalik.
Ez da sekulan nitara jautsi hau bezalako itzalik,
bien oinetan erori nintzan lurrera zabal zabalik.

Ez dakit nola ereman nauten autoz ala besoetan,
ez baitakigu nun eta nola gabiltzan holakoetan.
Dakitana da lehen solasa zure ganberako bortan:
nahi nukela ni ere hila banintz zure ondo hortan.

Oren trixteak, lotsagarriak, denentzat latzaren latza.
Kolpatua dut, uspelkatua, haundizki nere bihotza.
Ikusten eta hunkitzen ere dut maitearen gorputza,
trantsiarazten baizik ez bainau, baita beti berdin hotza.

Haren aitama, haurride eta guziak umil umilak,
ezinbertzean, ezin jasanez ez gaude ixil ixilak.
Bihotz urratzen, gelditu gabe, entzuten dira ezkilak,
gure bihotzen joiteko aski ez direa gure hilak?

Lau mutil gazte etorri ziren, lauak galtza xurietan;
horiek ere, denak bezala, mokanesak eskuetan.
Jende guziak, zahar ta gazte, nigarrez zure oinetan,
zure etxetik ateratzean, bederatzi orenetan.

¹ Lehen prima Xalbadarren *Jainkoa* eta *ni* bertsuek izan zuten.

Ordu berean hasi baitira uhuriaka zakurrak,
horiek ere beren gisako dituzten beren agurrak,
ez baitituzte urruriaka ezitzen gure nigarrak.
Espo arropa xurien partez estaliko zaitu lurrak.

Bizia utzi eta gorputzez ere dugu utzi behar,
erraiten ahal ez den gauza da betikotz uztea elgar.
Ez da dudarik, hil harrietan izanen zera zu bihar,
hil eta zure tonba berean nezatela otoi ezar.

Hogoi eta batgarren urtea ez zinuela betea,
etsigarri da zinez neretzat zure betikotz joaitea.
Hobe litake memento huntan batere ez izaitaite,
lazgarri baita zu nere bixtan hil harrietan uztea.

Zure ondorat, tonba begirat, jinen naiz egun guzietz,
zurekin solas egin beharrez eta zuretzat otoitzez,
zeren betikotz elgar utzia badugu ere gorputzez,
ez dugu nehoiz elgar utziko arimaz eta bihotzez.

Nere begiak malkoz beterik hemen naiz umil umila.
Ez da hiltzerik, bi bizi dira, maitea, ez zira hila.
Jainko maitea, lehen bai lehen etor zaite nere bila,
lurrean egin ez den ezkontza zeruan egin dadila.

Zeruko Argia 1974.11.10.

Herria, 1975.02.06

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Mendaro Txirristakari

Doinua: *Amodioa gauza trixtea*

Ehun bat urte aurten egin du Mendaron zinela sortu,
eta nik zutaz deusik ez jakin, behar dut garbi aitortu.
Bainan zuk utzi fruituak dira liburuetan idortu,
zure idazkin zoragarriak paper gainean gogortu,
hortakotz zure izen izanak ezin ditazke agortu.

Lore hoberik izaiten ahal zena euskaldun loretan,
zure aitamak ez ziren guti zuretako amoretan.
Ikusiz beren xoria kantuz beti arbola goretan,
zer atsegina euskaldunentzat zarelakotz ohoretan,
zure sortzea orroitgarrizat mende baten fagoretan.

Haurrean ere izana omen zira haurtxo bat xarmanta,
jasan erretxa, umil, ezitia, norbeitek zerbait erranta;
langile ona eta ez maite lanerateko beranta,
jaun Txirristaka, naizen gazteak ez dio aski espanta,
ez dezaket nik harek bertzentzat egin bertsu onik kanta.

Nere ahalen arabera dut eginen segur gogotik,
Mendarok zuen Txirristaka hoi goretsiz bertzen ondotik.
Nik ez dut edan zure iturri onak zuen ur sanotik,
bainan entzun dut euskaldun zinen ta euskaltzale errotik,
poz haundiegi litake denak joaitea zure lerrotik.

Jende xumea zinen zu ere, zinezko argi ximixta,
bertzela ez zen zure izena izaiten ahal Txirrixta.
Piko txarretaz ez zira nehoiz arizan xixta ta xixta,
ez eta ere nehoiz nehoi solas gaiztoz kendu bixta,
zu zinen omen kalte gabeko euskaldunen telebixta.

Beti euskaraz mintzo zinela, kasik sekulan kaskoinez,
eta ez batzu bezala gaindi urgulu eta fazoinez.
Omone onak zinuen beti urtearen lau sasoinen,
alegeraki mintzatu eta aberatsa arrazoinen,
Mendarorarte etor nindazke zu ikustekotan oinez.

Zure sorropil pentze perdean nahiko nuen alatu,
zure aldean zer ote gira zonbeit eskualdun pelatu?
Zoin zinen haundi, goi mailekoa, ez daut nornahik salatu,
harek baititu zintuen dohain neurri gabeak zilatu,
bertze Mendaro Txirristaka bat nun behar dugu bilatu?

Gaur inguratu nahi zintudan zintzoki goresmenetan,
onar ditzazu eta orroitu nitara jautsi penetan,
trixte naizela ta jelos zutaz geiago dakitenetan,
eta batzuek zure ondoan pasatako egunetan.
goresia ta gorapatua baitzira egun denetan.

Zu bezalako erakaslerik ez da gaurko eskoletan,
artzainak ere bekantzen ari gure mendi etxoletan.
Xori guziak erdaraz ari dira kantuz arboletan,
gure mintzairak bere arima ez bailuke odoletan,
zure izarra ager baledi euskaldun ezazoletan.

Aurten egin du ehun bat urte sortu zinela, dut entzun,
sortzeak alai ezartzen gaitu eta heriotzak ilun.
Elgarri hurbil gaude bihotzez eta arimaz zoin urrun,
lurrean bezain paregabea zeruan baita ezagun,
Txirristakari goresmenezko goraintzi igor dezagun.

Zure bertsuak funtsezko ziren, guziek zuten dirdira,
xoramenetan egoiten ziren jendeak zuri begira.
Ilun zena're bazinakien nola atera argira,
goizegi zaitu Jainko maiteak altxatu zeru erdira,
zu bezalako bertze bat nun da? Zure ordainak nun dira?

Eskuak Herriak indar berri bat sendi zuen zu sortzean,
ta trixtatu zen zure bizia betikotzat agortzean,
berak hazi ta xutik atxiki zaituena erortzean.
Itxaropen hau nerekin dago, agur t'erdi igortzean:
zoin haundi ziren ezagutzea zure ganat etortzean.

Mendaro zure sort herri ona baitzen goresmen galdaka,
besarkada bat igorri nahi izan dautzut, Txirrixtaka.
Ai zer plazerra naizen xumea xori baledi bilaka!
Zure ondora etor nindazke ekartzeko hegaldaka,
mendarotar ta guzien partez goresmenetaz milaka.

Argiarekin bakean gaude ilunarekin samurtuz,
goiz iguzkia etorriko da horma ta elurrak urtuz.
Eguna ere luzatuko da gauaren latza laburtuz,
utzi beharko zaitut oraikotz bihotz erditik agurtuz,
zuk eman bertsu goi mailakoez esker biziak bihurtuz.

74ko urriaren 29an

Ene senarra

Airea: Iparragirre abila dela

Ezkondu aintzin fama oneko, egiazko aingerua
iduri zuen hil orduko prest irabazteko zerua.

Ezkont aintzin urtxoa,
egin eta otsoa,
galtzen ari dut burua,
lehenagoko aingerua gaur baita zinezko debrua.

Orai artean ona izanki eta bet betan da tzartu,
bainan ni ere askoren gisa berantegi naiz ohartu.

Ostatuan da beti
ta ez du aski guti,
nork behar dio izartu?
Zonbat edari, arno ta ricar bere tripan duen sartu!

Harekin baño, horrekin biga, bertzearekilan hiru,
ta ostalertsu loriatua heldu denaren aiduru.

Bebia edo perno
badu etxen oraino
hargin edo mahaxturu,
aldizka denen sakeletatik etor dadin zonbeit diru.

Egun merkatu, bihar igande, etzi aldiz pestaburu,
herriko pesta edo feiria, beti zerbeit estakuru.

Ta gure bien moltsa
baita ardura hutsa,
ez zaio segur afruntu;
pipatzeko ta edateko ta senarrak denak xahutu.

Ohartu gabe nik hunen baitan hartu nuen amodio,
ez nuen uste ukan zezaken gero hoinbertze bizio.
 Beti dena erasi,
 lan guzier ihesi,
 ez du deus ere balio,
harentzat ez da oraino ere ezantza aski kario.

Gure etxalde maitagarria ari zaiku gain behera,
hola segituz zer emanen dut gaixo haurreri jatera?
 Gauza trixtea baita
 beti mozkorra aita
 sartzen denean etxera,
ta urte huntan pagatzekoa gure gaizo bolanjera.

Konfientzia galtzen ari dut beti nere senarrear,
hauzo guzien begietan da denekilan hasarrean.
 Zer gizonaren xantza,
 bilintzi ta balantza
 etxeratzen indarrean,
dakielarik hogoi miliun zor dugula bizkarrean!

Mixteriozko ele ederrez aberatsa da hizkuntza,
bainan tturrinik du moltsa eta dener galdatzen laguntza.
 Atzo huni bost ehun,
 egun hari miliun
 salbatzeko laborantza.
Nik ikusten dut aspaldi huntan bide txarretik gabiltza.

Haren andreak bere senarra nihola ezin espanta,
ziria bezain auherra da ta zerria bezain gormanta.
 Ez da deusez kilika,
 urtean lau barrika
 garbiki dezaket konta.
Maite nukela iratzar dadin, jada baitugu beranta.

Zeruko Argia, 1975.01.19

Nolaz hasi zinen bertsoan?

Bertsotan hasi nintzan maite nuelakotz,
joko berezi eta ederra delakotz;
eta ahal dutano ene indar oroz
hortan jarraikiko dut bihotzez ta gogoz,
herria ta hizkuntza bien amodioz.

Ez dakit nolaz egin naizen bertsolari,
ohartu ere gabe hasi naiz lanari;
herriari nahian zerbeit on ekarri,
talendu guzia dut lan hortan ezarri,
euskara ta Euskadi bien zerbitzari.

Gazterik maite nuen bertsoen kirola,
arras gogoko nuen rimatzea hola,
nakien jendeari gustatzen zaiola.
Ene maixu maitea dakit hor dagola,
Emil Larri zor diot bertsoen eskola.

Airea: Amodioa gauza tristea

Ttipi ttipitik ezinbertzea zer den ez dut hain arrotza,
uste gabean aitaren bila etorri zen heriotza.
Geroztik dakit oinaze hori dela egiazki hotza,
ixil-arazi baitu betikotz aita maitearen botza,
dolu horrek daut bizi guzikotz bi parte egin bihotza.

Hamabi urte eskoletarik etxera heldu nintzela,
ez dakit nola erran zautaten nere aita hila zela.
Lanean ari eta trakturrak lehertu izan duela,
ez dut sinetsi ikusi arte ixuriz nigar epela,
uste izan dut nere begiek odola zariotela.

Ettxerat eta aita maitea bizirik ezin dut kausi,
hau onesteko indar guziak galdatu eta Jesusi.
Ohartu nintzan munduko gauzek ez gaitzateela ilusi,
heriotzea denentzat berdin biziari da nagusi,
zer garrasia!, tresnaren pean aita hila dut ikusi.

Ama oihuka hatzeman nuen, zer sofrikarioetan!
Beharrik Jaunak emaiten dauku kuraia holakoetan.
Familiako hiru menbroak ginen amodioetan,
aita bakarrik utzi beharko hil harriko xokoetan,
nigar artetik hola mintzatu naiz amaren besoetan.

Ettxera heltze lazgarri hura gogoan baitut orai ta
dirot bizian atsegin oso bihirik ezin da guaita.
Holako pena izigarria lotsagarriena baita,
ez dut trakturrik ikusi nahi, betikotz kendu daut aita,
orai guk haren orroitzapena baizik ez dirogu maita.

Atsegin ezti bakar bat ez da neretzat mundu osoan,
aitak ez bainau hartzen ahalko lehen bezala altzoan.
Neretzat ez du ordain bihirik izaiten ahal geroan.
Igande oroz amarekilan biek elizarakoan
zuretzat otoitz eginen dugu zure tonbaren ondoan.

Berrogei ta bat urte zintuen, oraino aita gaztea,
utzi dituzu arras trixterik semea ta emaztea.
Orai artean egin ondoan oneski gure haztea,
bihar zu gabe deusik ez gara, oi bihotzaren laztea,
aita maitea, zure betikotz lurraren pean uztea!

Zeruko Argia, 1974.11.10

Herria, 1975.07.03

Haur botatzeaz

Berriz ere gai ilun batez naiz trixteki hasi kantatzen,
iduri luke iluntasuna baizik ez dutan maitatzen.
Nahi ala ez ene bihotzak auhen mina du botatzen,
senditzen dutan bihotz mindura ez duta ahal aipatzen?

Haur botatzeaz jarri daizkute uhelgarrizko legeak,
plazerrez nasai baltsan ibiltzen ahalko dira sugeak.
Gizonak egun zoin guti diren hartua nau ahaleak,
zeru gainetik zer ote dio biziaren Erregeak?

Bizia eman, bizia heda, erraiten zen lehenago,
haur gehiago izanago ta familia ederrago.
Haur negurtzeko asko arrazoin eta aitzaki gaur dago,
ez gira gora, kabalak ere baditugu krixtauago.

Mundu trixte hau aintzina doa lege berriak sortzean,
eder guzia galtzen ari du holakoak etortzean.
Gizonak berak bere burua suntsitzen du ilortzean,
horra nun giren hemetziehun hirugoit'amabortzean!

Sabel barnean piztuz geroztik gorputz arimen hazia,
sortzeak deitu izaite bat da, berekin dauka bizia.
Guk izan dugu mundu huntara oso jiteko grazia,
bertzer munduko ateak hetsiz nun dugu kontzientzia?

Zentzu ttipia duenak ere konprenituko ahal du,
jada piztuak diren haurretaz behar dela urrikaldu.
Gure izen ta izana biak behar direla zabaldu,
zer etsimenduk joa ote hau haurra nahi baduk galdu?

Airea eta ura diote ez direla sasualak,
pozoinaturik ezartzen ditu kutsaduraren zitalak.
Kutsadura txar berak jo ditu batzuen bihotz zabalak,
nun ez baituzte negurtzen ahal beren baitako ahalak.

Naturelezak deitzen duena gizonak ez onarturik,
gizonak bere burua duke jartzen linboan sarturik.
«Nun dituk haurrak?» pentsamenduka egonen da zahar
turik,
eritu eta nork artatuko ote duen oharturik.

Burua gora ibili eta krima egin arratsetan,
orroitu gabe Jainkoa ados denetz zure urratsetan.
Plazer higuinez gohaindurik lohikeri karatsetan,
bakar bakarrik izanen zira zuhauren azken hatsetan.

Zer garrasia, Jainko legezko justizia etortzean!
Egin dituzun ahuleziez kontzientzia sortzean!
Zuk bertzer egin bezala Jaunak zu hiltzerat igortzean,
zeru gainera deitzeko partez betikotzat agortzean!

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Pilota

Airea: Amodioa gauza trixtea edo Lurraren pean

Herriak ere badu bihotza: pilota-toki zabala,
jende guzien bilgune ona eta ez leku utsala.
Zu gorestera etorria naiz naizena apal apala,
agertu eta goratu nahiz, oi plaza, zure ahala,
herritarrek zu maite zaituzte haurtxoak ama bezala.

Zuk sortzen duzu herri batean zinezko elgartasuna,
gure bizian beharrezkoa, egiazko ontasuna.
Bai, zuri esker gozatzen dugu holako goxotasuna,
zu zira gure aberastasun ta gure edertasuna,
gutarik nehork ezin du gorde zukanako maitasuna.

Herri bakoetak arrabota du josta leku haundiena,
libertitzeko hitzargunea eskual jende guziena.
Bizian alai eta lasai da zure berri dakiena,
gure biltzarre, deskantsatzaile, iturri pozgarriena,
zorianaren ohantze ezti eta xoragarriena.

Ongi etorri egiterako bere gainean zombait hitz,
nola ditazke gure barnean sendimendu hobeak pitz?
Herria hola maitatzea gaur diote ez dela bortitz,
etxea ere andre ta lore gabe delarik da murriz,
herria ere berdin litake plaza maitea ez balitz.

Goizean goizik eguzkia da agertua arrabotan,
haize hegoa ere epelik guzien goxatzekotan.
Amets ederren egin arazle izana zira askotan,
gure haurñoak ere zugana etortzen dira pilotan,
ta zuk emanik zoin amultsuki pilota hartzen besotan.

Batzuk pilota izanki eta ez dutela arrabotik,
bertziek berriz arrabota ba eta berdin ez pilotik.
Halere denak plaza maitera etortzen dira gogotik,
galtza xuriak ikusi nahiz pilota baten ondotik;
nork ez du jada senditu plazak eman omoren berotik?

Pilota zer den erraiteko nik ez baitut aski ahalik,
gai eder hori utzi beharko dut bertzendako zabalik.
Eskual jokorik ederrena da, hori ez diot apalik;
lasterkatzaile miresgarria, ez dauka bertze itzalik,
xoria bezain erne badoa, alta ba ez du hegalik.

Pilotaria galtza xuritan plaza erdira da jali,
zer esku zartak, zer parioak! Ilundara da uzkali...
Eskuin ta ezker pilota zauku bihotz berotzen ibili,
deskantsugarri, altxatzailea, zure egintza da bali,
gure tristurak nahi ditugu irripar goxoz estali.

Gogo bihotzen pausatzailea, akiduren eztitzaile,
lan artetako lasaigarria, buruminen goxatzaile,
irri luzeen asmatzailea, bozkarioa emaile,
gure eskualdun nortasunaren laguntza ta hedatzaile,
hasarrearen aztaparretik gizonaren libratzaile.

Ai, zu, pilota, zure ondora milaka gira bildurik,
lan dorpetarik ta pentsamendu zorrotzeri urrundurik;
ez nahiz egon bakargoaren lazdura hartan galdurik,
pilota gabe gure biziak ez du deuseren zentzurik,
nola ogiak ere ez baitu gatzik gabe deus gusturik.

Eskualdun joko bereziena pilota zoin den abila,
zonbat begi ta zonbat esku da lasterka joan zure bila.
Ohiduretan zaharrena ta gure oitura hurbila,
gaur zutaz arta hartzen dutenak badira ixil ixila,
emaiten duzun atseginetaz bihotzetik esker mila.

Pilota duzu gure biziko ordu hutsen tapagailu,
igande ala aste egunez herriaren edergailu,
eskualduna zer ta ere nor den agertzen duena zalu.
Ai, zu, pilota, eskualdunari eman diozu urgulu,
Eskual Herria zer izanen zen pilota hori ez balu?

Nolaz egoiten ahal litake, pilota, zutaz aparte?
Zuk sortzen duzun alegrantzian denek hartzen dute parte.
Pilota denek zein maite duten beti gizartez gizarte!
Bai sustatzaile suharrak ere baditu ainitz elkarte,
pilota beti ikusiko da horiek badiren arte.

Zeruko Argia, 1975.08.03

Egun batez hunako gutuna hartu nuen:

Pithiviers, Buruilaren 10-ean.

Mendiboure maitea:

Halako herabe aire batekin, bainan halere menturatzan naiz zuri zerbitzu haundi baten galdegiterat. Ez zaitut ezagutzen batere. Ahetzerat jiten naizenean, zutaz mintzatzen entzuten ditut ene lagunak. Bixtan da ez dutela ongirik baizik erraiten.

Nor naizen eta zer naizen? Ahal bezain hitz laburrez entseiatuko naiz erraitera. Sortzez Aheztarra naiz, bainan 1956-etik hunarat Pithiviers-en bizi (Loiret 45),

Segur naiz Xalbador zenaren liburua baduzula zure etxeko armario xoko batean. Hartan ikusiko duzu, ene ustez aski xeheki, nor naizen. Orai erranen dautzut zeren eske nabilan. Delako liburuak salatuko zaitu Augustek eta nik elgarrentzat dugun atxikimendua. Ez da gertakari bat pasatzen elgarretaratu gabe. Oraikoan badut uste haundiena dugun. Heldu den urriaren 7-an (edo 14an) besta egin beharra dugu Senperen. Orai arte kapitain zen, hemendik aitzina komendant. Laugarren galon horren ohoretan konbidatzen ditu familia guzia eta hainitz adixkide. Erran nauenez, 130 presona.

Etxea, etxekoak eta Eskual Herria finki maite ditu. Ahal duen guzian itzuli bat egiten du. Eriaroan belarretan, urrian iratzetan, etxekoak laguntzen ditu. Hortakotz, haurride guziek elgarretaraturik *present* egin diote Audetenea sort etxearen itxura (*grand format*). Egun erakutsia nau; zinez hunkigarria da, bere iratze metak eta artategia aldean. Plazer haundia egin diote. Delako besta egun hortan emaitetkoa da paret baten kontra dilindan, etxeko guzien fotoak inguruan edo pean; bi eskualdun makila ferratu bazterrean; eta kaxkoan pilotari baten itxura, zurezkoa. Familia guzia pilota-riak dira betidanik.

Huna, beraz, zer litaken ene desira: zonbeit pertsu molda bazinetza, ni orduan Auguste banintz bezala, jende guziak biltzen direnean (Mattintegian), anaia Leon Audeten ostatuan, kantatzeko. Audetenea eta etxeko guzientzat zer atxikimendua duen; heier guzier esker dela orai den heinean; badakiela etxea esku onetan dela; eta esperantza duela laster heien arterat jitea behin betikotz.

Duela dotzena bat urte, gradutan goiti abiatu zenean, familia guzia bildu zuen Amotzeko Mendionde trinketeko hotelean (arrebak du han etxeko andere), eta orduko otruntzako fotoak emango ditu etxea beztitzeko.

Hain segur, izanen du pentsamendu bat bihotz barnetik, ezen han orduan zirenatarik baitira bertze mundurat joanak, ama xaharra, osaba Iratzoki pilotari famatua, koinata bat eta anaia Pierre adin gordinean, 48 urtetan. Hau ere jendarme zen, eta erretiratu berria Ibarrunarat. Beraz, orduan agindua zioten deneri:

–Sekulan egun batez komendant pasatzen banaiz, berriz denak etorriko zarezte.

Mementoan Auguste Parisen da, bainan bere ofizioan ibilia da Afrikan, Alemanian gaindi eta nik dakita nun?

Ez dakit ene kirrimarra hauietan zerbeit konprentuko duzun. Denak nahasten ditut. Erran behar zaitut Auguste ez dela ezkondua: 53 urte dituela; anaia guziek bezala, pilota eta kantua maite dituela; omore ona ere bai; hameka haurridetarik gaztena dela; 6 mutiko eta 5 neska ziren, orai bat falta.

Erran nezazu garbiki, ez bazautzu iduritzen balio duela ene ideiak. Bainan segur naiz plazer lukela zerbeit muntatzen bazinu. Errana nau:

–Pentsatzen diat eginen dukala ahal dukana egun hartako.

Zonbeit aldiz nihaurek moldatzen ditut, ahal bezala, pertsu bat edo bertze; bainan zinez buru eta buztanik gabeak.

Zerbait egiten baduzu, nahi nuke airea: Iduzki denean zoin den eder itzala...

Badut uste badutan aski erranik; bainan balitz ene letran zer-beit konprenitzen ez duzunik, ez zaitela den gutienik kexa. Hitz bat igor, edo berdin telefona kolpe bat. Usaian aratsetan zazpiak eta erdiak heintsu hortako etxerat bildua naiz.

Barka zazu ene ausartzia; ene meneko bazine bezala manatzen zaitut.

Konduak ondoko egunetan eginen ditugu.

Milesker; goraintzi haundi bat Pithivierstik.

Olaechea Edouard
38 rue de Caquereu
Pithiviers - 45300

Hunela ihardetsi nion:

Jauna:

Plazerrekin igortzen dauzkitzut zonbeit bertsu, “Iduzki denean zoin den eder itzala” airean kantatzeko gisakoak, zuhaurek eman xehetasunen arabera eta zuhaur Auguste bazine bezala kantatzeko eginak.

Ez da dudarik Xalbador zenaren liburuan ikasi dutala nor ziren, bai eta ere Mattin zenak *Etxe xokotik kantari* liburuan agertzen ditu 1974ko otsailaren 2-an zuk Mattini igorri letra eta harek egin bertsuak ere bai.

Aheztarra zarenaz geroz, behar dautzut ere erran Mari Treku-k *Mattin, nere gizona* biziki liburu pollita argitaratu duela, eta bera ere noiz nahi idatziz segurik bertsu egiten ari dela eta zoin pollitak!

Ni nor naizen jakitea ere erretx egiten hal duzu; edozoin eskual liburutegitan eskuratzen ahal duzu joan den primaderan argitaratu dutan liburua: *Bertsutan ariz ikasten*.

J.-P. Mendiburu.

Eta bertsu hauk igorri nizkion:

Senpere maitea, zu ene sort herria,
gazte denborako toki maitagarria.

Mendien garbia,
zeruko argia,
zaiztela abia;
gurekin loria
eta bozkaria,
baita egun haundia

Bere ohandzerat etorri da xoria,
bainan ez oraino betikotz etorria.

Ibarrun xuria,
zure iturria
da zoragarria;
ene egarria
zutan ezarria,
harek nau ekarria.

Ongi etorria dener, zahar ta gazte,
egun hunen beha nintzan egun ta aste.

Huna pesta haste,
kontent ahal zaizte
batzu eta beste;
plazerrez nauzute
bihotz barna bete,
denak zaituztet maite.

Bilduak gare gaur hemen Mattintegian,
Senpere maitean, garbi eta argian.

Ta luzaz agian
irria begian
ta ezpain hegian;
ez egon nagian
biltzeko herrian
bakean ta ongian.

Sort etxe maitea, Audetene xokoa,
esku onetan den sor leku on goxoa.
Zuri kantuz noa,
nere ohakoa,
haur denborakoa;
zutan dut gogoa
ta bihotz osoa,
erran gabe badoa.

Oi etxe maitea, semeaz orroit zaite,
zutarik joaitean nintzan oraino gazte.
Egun eta aste
beti nintzan trixte,
huntaz orroit zaite;
etxeko ta beste,
gizon ta emazte,
denak zaituztet maite.

Atxikimendua batzuer eta bester
agertu nahian nabil eskuin ta ezker.
Balinbadut plazer
nitan zer edo zer
zerbeit grado eder;
baita zuer esker
bihotzetik dener,
derautzuet milesker.

Esperantza badut berriz hunat jitea,
ta behin betikotz herrian egoitea.
Senpere maitea,
ene izaitea
zuri emaitea;
bihotza betea,
zuri erraitea:
«Zabal zazu atea».

Hamabi urte du bildu ginen Amotzen,
Mendiondo trinketan, en'arrebaren etxen.

Urteak pasatzen,
bihotzak daut jotzen,
buruari lotzen;
ama're hor baitzen,
Pierre ere hor zen,
denetaz naiz orroitzen.

Mundu huntarat gu sei mutiko, bost neska,
Piere zenarekin baginen gu hameka.

Hau da ene kezka,
ez sobera eska,
mintzo naiz trebeska;
aitamak oihuka
Augusti galdezka:
«Haur bihirik ez duka?».

Motel eta mutu baitzen ene pixtola,
ez dut nik segitu aitamen epixtola.

Orroit badagola
zerbeit parabola
hauxe dariola:
nunbeit zerbeit hola,
deusentzat ez dela
fruitu gabe arbola.

Zonbat fruitu dutan hori nehork ez daki;
azken pertsua dut, hunekin badut aski.

Ni ez banaiz gaizki
dautzuet goraki
erran behar naski:
Liberti goxoki
Senperen oneski;
nun ditake hobeki?

Edouard Olacbea adixkideak beste gutun batean hunela erraiten zautan:

Pithiviers-tik urriaren 15ean

J. P. Mendiburu

Otoi barka nezazu hoin lazoa izaitea. Badu jadanik ilabetea zure pertsuak errezibituak ditudala. Zinez plazer egin nauzu. Arras ene gustukoak dira. Pasaia hunkigarriak badira, eta gainerat zure ditxoak aberatsak dira. Hola segituz eginen duzu bide.

Ideian nuen, 7an edo 14an etorri banitz, Heletaraino itzuli bat egitea; orai 28raino luzatua dugu gure pesta, eta ez dut aski denbora ukanen zure ikusteko, ezen joan jina bi egunez egin beharra dut.

Horren gatik, erranen nauzu zonbat zaitudan zor. Ez dakit zer behar dudan igorri. Erran nezazu garbiki zer zinuken plazer.

Zer nahi gisaz, heldu den Eguberri eta Urteberri inguruan entseiatuko naiz zure ikustea. Zortzi egun bederen badituz Ahetzen pasatzekoak.

Berriz ere milesker eta ikus arte.

Edouard

Gehexan Pontto banintz nakike hobeki zutaz mintzatzen,
merezi eta hartze dituzun hitz hobez gauduz.
Dohain ttipia izana gatik bihotzak zer dauz manatzen?
Dutan poxia zu goretzeko ibiltzea dauz galdatzen.

Eskualtzaindiak zuzen da erle langileak hauta ditzan,
kapable diren gizonak hartu ditzala bere gerizan.
Ta zu hortako lehena zira kanpoan ala elizan.
Eskualtzaindian euskaltzain oso hoberik zonbat da izan?

Jar-alki hortan hartu zaituzten jaun ospetsuer eskerrak,
Eskualtzaindiko iker-lanetan ez baitira gai alferrak.
Eskual Herriak izanen ditu gerore egun ederrak,
itzain bat eman daukutelakotz Baigorri eta Aiherrak.

Apez, euskaldun, euskaltzalea ta euskaltzain osoari
zintzoki eta bihotz erditik goresmenez naiz kantari.
Berak baitzion bere kargua zor duela Aiherrari,
Aiherra zonbat zordunago da beraz bere erretorari?

Bere herriko kantari talde ederraren sustatzaile,
eliza kantu altxagarri ta zoragarrien sortzaile.
Fededun otoitz, koralek pesta ta kaseta moldatzaile,
berak ere ez dakike zonbat den bozkario emaile.

Kermeza edo Trinketa pesta moldatzen du urte oroz,
euskaldungoa bere zainetan barna sendi duelakotz.
Pilotariak noiz-nahi eta bertsulari batzu Bazkoz,
apez guziak hoin aberatsak balire bihotz ta gogoz!

Bertsularien sustatzaile ta laguntzaitan lehena,
Herria-n ere hainbertze bertsu argitara dituena.
Kultura sail horrendako badu atxikimen haundiena,
funtsean ez ote dugu bera bertsulari hoberena?

Merezi eta hartze zinuen saria eman dautzute,
hori eginez zure ta gure bihotzak bete dituzte.
Mendiz bi aldetarik etorritz zu gana zahar ta gazte,
ongi frogatu izan dautzute denek zaituztela maite.

Jean-Louis Davant ere berriki sartua zure sail hortan,
bertze hiru're ezarri tuzte Emile Larrekin betan:
Lantziri, Kanblon eta Goihenetx euskaltzain laguntzai
letan,
gure Euskaldun Akademia ez dago esku txarretan.

Behar bezala ezin da mintza hitzak hoinbertze negurtuz,
nik gehiago erran nahi ta doñaua beti laburtuz.
Zure fagorez kantuz hasi naiz mila goresmen bihurtuz,
besarkada bat eskaintzen dautzut bihotz erditik agurtuz.

Herria, 1975.11.06

Goiz batez goizik jeiki ninduzun lanera joan beharrez,
sasoin batean hain kezkatuak bai gira gure belarrez.
Gure atea zabaldu ordu hustu naiz nere indarrez:
nork utzia da haur ttipiño bat gure atean nigarrez?

Zer da munduan haurtxo ttipia baino eder eztiago?
Bere bizia bertzen eskuan, hortan dudarik ez dago.
Haur sortu berri maitagarria hotz ikaretan baitago,
jakin izanez jeikiko nintzan maiteagatik goizago.

Nere besotan hartu nuen ta begira nintzan haur horri,
galdatu nion: «Zoin izpiritu ahulek zaitu igorri?
Gure artean ukanen duzu errespetu ta sokorri,
gure etxean izanen duzu bihotzez ongi etorri!

Neskatxa maite, zoragarria, zoin ziren goxo ta umil!
Ezti zaitela nigar minetaz, hemen gira zure mutil.
Utzi zaituen dohakabeak zer gogoan ote dabil?
Ez da hobendun erdia baizik ez zaituelakoan hil.

Gure etxean izanen duzu bizitzeko behar dena.
Esne freskoa ere badugu gure behi gorriena.
Ohakoa're hutsa dugu ta gure plazer haundiarena,
haurtxoa, zuri guk emaitea izana eta izena.

Zure aitamak Jainkoak daki zorbatez diren hobendun,
ai bekatore trixte pareta, aberats edo behardun!
Umexurtx batez zure aitamak badira ere xapeldun.
gure medioz izanen zira zoriontsu ta euskaldun.

Haur amultsua, zure nigarra ez dugu segur hastio,
zure oihuak bertze haur baten oihoa baitu balio.
Zuk ez dakizu zer gertatzen den, zure begiak hau dio:
nahi duzula gure aldetik estimu ta amodio.

Aingeru ezti, hoben gabea, pollita zira biziki.
Sortu zaituen dohakabeak nolaz ez zaitu atxiki?
Berak ez daki zer landarea lurrera duen aurdiki,
eta beharba oraidanik du egin duenaz urriki.

Batzuen zorte lotsagarria hola da zinez zorrotza,
holako haurrek familiaren goxoa dute arrotza.
Utzi zaituen ama trixtea edo neska gazte hotza
nun ote dago eta nun ditu arima eta bihotza?

Plazer hitsean, plazer hutsean, zitakelakoan bizi,
ez zuen zure gutziarik, hargatik zaituzte utzi.
Berari hola egin balute ez zuen behar ahantzi
inozent batek ez lukeela zikoiztasun hoi merezi».

Berekoitasun hutsean denak ez baitu amodiorik,
holako baten biziak ez du nere ustez baliorik.
Horrelakoer ez dut eskaini nahi gaztigu gaixtorik.
Otoizten ditut ez dezatela berriz egin holakorik.

Haur hunek ez du deusen eskasik izanen gure etxean.
Hunen jabeak, etor balite egin lanaz dolutzean,
ongi etorri ukanen dute horiek gure atean,
bihotz hautsiak heldu badira urrikia bihotzean.

Herria, 1975.11.04

Zeruko Argia, 1975.08.17-24

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Pilota

Gipuzkoar pilota-federazionearen 50. urteburukariarentzat egin bertsuak, Xalbadorrek joan baitzuen lehen saria.

Airea: Goizean goizik jeiki ninduzun

Pilota, duzu fama haundia, pilota punpalaria.
Egun agertu nahi dut zure alderdi nigargarria.
Guziendako izanik ere zinezko jostagarria,
izaiten ahal baitzira ere asko penen iturria.

Pilota, zira hain goretsia, nola mintza zutaz gaizki?
Gure plazetan denek zaituzte bihotz barnaren iguzki.
Barkatu bainan nere aldera etorri zira bortizki,
nere bihotza zauritu eta uspeldu duzu haundizki.

Ai pilota, zuk egin arazi dautazu ainitz pario.
Partida batzu gusta izanak dira neretzat kario.
Diru ederrik galdu izan dut, oi, zu zirela medio,
Edaria den bezala zira gizonaren enganio.

Gure semea ere pilotan ari da beti lan artez,
xapelgoetan irabazlea izana dugu bi urtez.
Nahikundea haundia du ta ahala-re gure ustez,
bainan pilotan ari da berdin mezara joaiteko partez.

Pilotak ere bere itzalak bertze guziek bezala,
eskuko mina emaila ta berina hausle bat dela.
Orroitzen nauzu ni ere noizbeit kopetan jo ninduela,
hogoien egunen buruan ere ageri nuen uspela.

Jende gizenak entzun izan dut omen direla tristerik,
zorro haundia dutela eta ez nahiko hats hartzerik.
Egin laster ta jo pilotari, ez baita molde hoberik.
Bai mehatuko zira pilotan erremedio gaberik.

Ai, zu pilota, zure goosten ari dira batzu beti,
zer auzilari ernea ziren ezker, eskuin eta goiti.
Hargatik nehork ez du kontatzen zonbat begi tuzun busti,
Balda lekuan bizia kendu duzularik gazte bati.

Hogoi eta sei urte zituen Migel gazteaz orroituz,
hasia nintzen, pilota, zure goibeltasuna agertuz.
Migelek egin tanto haundia guziek ongi txalotuz,
bihotza geldo azi diozu txaloak nigar bihurtuz.

Ai, zu pilota, zer egin duzu Donostiako lurretan?
Zonbat jenderi bihotza hautsi ote diozu bet betan?
Saralegiren maitatzaleak ezarri tuzu penetan,
geroztik zaude familiari haren biziaz zorretan.

Asko arrazoin agertu ditut nere gostuko garbiki,
pilotak nola ezarri nauen bihozkatu rik biziki.
Ai, zu pilota, ez uste izan nahi zaitudan aurdiki,
bainan nahi dut ukan dezazun gaizki eginez urriki.

Zeruko Argia, 1975.08.3

Herria, 1976.01.22

Gure semeak ikasi dauku berri bat egun goizean,
segeretua aitortua du lehen argi urratzean.
Ezpata haundi bat bezala da sartu gure bihotzean,
oraino ere nigarra heldu zauku hortaz orroitzean.

Gure bizian ustegabeak noiz nahi dira izaiten,
gure semeak ez daki orai zer pena dugun jasaiten.
Gaztea baita ta ez baitaki zer ere duen erraiten,
ta zer heineko buru hausteak dituen guri emaiten.

Egun goizean argi hastean semeak erran daukuna:
«Gazte gazterik hautatua dut ene biziko laguna.
Agian laster etorriko da esposatzeko eguna,
familia on batetarik da bainan ez da euskalduna».

Ezkontzerako gure baimena nahi zuen ardietsi,
dudarik gabe huna garbiki zer diogun ihardetsi:
«Amodiotan izanik ere nolaz behar da sinetsi
gure semea ibili dela euskalduntseri ihesi?

Zauri haundia eginen dautzut, oi semea, oraikoan,
nun gaindi bada ibili zira eta zer debru gogoan?
Zuhaurek hauta bainan harekin familiatuaz geroan
zu edo ni bat bizi beharko gira etxetik kanpoan.

Ai, ai, ai mutil, zer debru bada iragan zautzu burutik?
Ala ez duzu nahi euskera beti egon dadin xutik?
Zure haurretan galduko baita, ama erdal den pundutik,
holako baten ganat ez zira joanen amaren eskutik.

Sortu orduko euskal izen bat ginuen zuri emana,
izena baizik ez izaitea guretzat ezin jasana.
Beraz debalde izan da gure euskal sehaskako lana,
euskal izena atxiki eta galtzen baduzu izana.

Orain artean ez zaitut nehoiz ezagutu trixteago,
maite denari bihotz hestea zer da peningarriago?
Arrazoin hori gora ezarriz maitea baino gorago,
neskatxa hori uztea duzu oraidanik hobeago.

Erranen duzu ez dutala nik bertzen bizia manatzen,
amodioa Jainkotik dela, Harek daukula hedatzen.
Amodioak ez du mugarik, ez zaitut hortan trabatzen,
bainan bakarrik euskera galdu ez dadien du galdatzen.

Amodioak oihua du ta kontzientziak garrasi,
sendimenduzko loeriatik esnatzen behar da hasi.
Ez baduk nahi gure etxean arrotasunik nahasi,
beharko diok neskato horri euskal mintzaira ikasi.

Gauza nekea izanik ere mintzaira bat ikastea,
bide bakarra hori ditake, oi gure seme maitea.
Atsegin haundiagoz nik ere bihotza nuke betea,
zuk maite duzun neskatxa horri idekitzean atea».

Jainko maitea, Zuri otoitzez has gaiten,
lurrean injustizi ainitz da izaiten.
Jenden erdiak dira goserik egoiten,
beren gosean denek zerbeit jan dezaten.
hori dautzugu, Jauna, orai galdegiten.

Jainko maitea, Zuri otoizka banabil,
zure laguntza galdez apal eta umil.
Batzu goseak hiltzen, ez nitaike ixil,
bihozdunak gaitzazu elgarretarat bil,
munduan ez dadin gaur bakar bat gosez hil.

Batzu aberastuak zilar edo urrez,
bertze batzu diruaz, ontasun ta lurrez.
Jauna, Zuri pobreki bagaude otoitzez,
urrikal zaite otoi pobreen bihotzez,
ez dadien geiago jenderik hil gosez.

Apez martirra

Zindikalixten apez fidela,
ene adina zuk zinuela,
zonbeit egun du torturatu ta hil arazi zaituztela.
Zer diktadura krudela,
legea alde dutela!
Nork senda hango uspela?
Apez gaixoa zuzena galdez zen Jesu-Kristo bezela,
uste dutea jendeak hilez ideiak hiltzen direla?

Apez martirra Popieluzko,
dolamena dut bras eta suzko.
Egia eta zuzena galdez zinen Jesusen lekuko.
Zutaz gira orroituko,
ez zira gutan galduko,
izaitekotz zabalduko.
Zure ideiak mila jendetan dira oraindik sartuko,
herriak ez du ahantziko ta ez du ere barkatuko.

Munduan barna da martir ainitz,
ta kriminelak lasaiki dabiliz.
Gobernuak ta armadak beti hola ari dira azpiz,
berdin ere egun argiz.
Nolaz beraz jar gu irriz?
Hasiko baitira berriz.
Apez gaztea ez zuten hilen, gogoetan egonki niz,
geldirik eta ixilik dauden apez tuntun izan balitz.

Popieluzko hil zutelarik nik egin bertsuak.

Gandhi

Zer gaia eman dautazun orain,
ikaretan naiz esku ta ezpain,
zer aterako dutan gai hortaz ainitz jende baitago zain.
Sika ta Indu bi usain,
bi artalde ta bat artzain.
Sikarrek nahi beren gain.
Sikatarreri Gandhik bortizki ihardoki zuen gordain;
bortizkeria egin du eta gauza bera ukan ordain.

Hirrisku berez bat ibili zen,
“Burdin erregin” duzu sesitzen,
ta buruzagi asko aipatur ahal dut hola segitzen.
Kolonizatuz ibiltzen
bertzen lurak atxikitzen,
populu asko ixiltzen.
Bainan nahi t’ez goiz edo berant populua bat da mugitzen,
zezenak ere noiztenka dizu toreatzailea hiltzen.

Euskal izenak

Zendako haurreri eman izenak erdaraz:
Sandrine, Fabienne, Valerie, Beatrice, Stanislas?
Euskaldun haurreri utz, otoi, izena euskaraz!

Zendako haurreri eman hainbat izen berri?
Solange, Odile, Adeline, Patrick edo Thierry,
Euskal Herria egon dadin beti Euskal Herri?

Olivier, Fabrice, Nadége, Christelle edo Lydie,
nun bildu dituzue hainbat izen bitzi?
Gure izen zahar ederrek behar dute bizi!

Herrian badugularik hainbat izen eder,
izen horietarik eman, otoi, haurrer:
Ramuntxo, Peio, Beñat, Mattin, Kattalin ta Maider!

Euskaldun haurreri eman euskal izen batzu,
hemen berean hainbat ederrak baituzu:
Periko, Antton, Pattin, Lore, Pantxo ta Maritxu.

Zoin izen pollitak diren Mañex ta Maitexa,
Joanes, Battitt, Kaiet, Roxali, Katixa,
Pettitto, Estitxu, Maitena, Terex ta Gaxuxa.

Otoizka

Bertsularien gogo bihotzak otoizka daude zerura
berek bezenbat maita dezaten bestek euskaldun kultura;
gure herriak ez dezan galdu aitamek eman itxura,
nehoiz suntsitu ez ditene gure euskal hizkuntza ta lurra.

Gazte fermuak eta zintzoak ditu gaurko gazteriak,
izanik ere lan gabezia ta holako miseriak.
Bisitazkitzu, Jauna, penetan direnen bihotz eriak,
maitasun sendo behar gorria baitauka Euskal Herriak.

Jaun Zerukoa, zuri otoitzez gira Mauleko elizan,
ongi dakizu injustizien pean nola bagabiltzan.
Zuri otoizka hemendik gaude beilari batzuen gisan,
mundu trixte hau gure haurrentzat hobea dadien izan.

Omiasaindu lore guziak hil harrian histueta,
iguzkiaren beroa gordez zeru gaina gristueta,
besarkada bat igortzen dautzut, supazterra piztueta:
bihotz erditik mila zorion, Kose Migel Iztueta!

Bihotz bihotzez goresten zaitut, bertsulari dotorea,
ubela ken ta dakizulakotz sor arazten omorea.
Esan nezake badaukazula sorgin baten podorea,
zu zira gure euskal baratze huntako loren lorea!

Gizon ernea izpirituz ta talendu haundiz beterik,
zure neurriko zirtolaririk nor ote dugu besterik?
Zahar ta gazten irriz asetzen ez da zu baino hoberik.
Mattin ditake bakar bakarra balinbaduzu parerik.

Lazkao-txiki, euskal hizkuntza ez dago zutaz herabe,
ez dira denak zure neurriko literaturaren jabe.
Euskal Herria zu gabe zinez zoin litaken dohakabe!
Nola demuntre gelditu zinen batere andrearik gabe?

Geroan ere ez da izanen naski Lazkao-txikirik,
ez balinbadu andrearik eta ez badu ume bihirik.
Hitz konturako langile ona, obra kontura geldirik,
horrelakoer zendako debru eskaini omenaldirik?

Euskalduna da zure barnean kurri dabilan odola,
bainan esnatu behar da eta geroaz hartu axola.
Ala ez duzu gogoan hartu Jaunak utzi parabola?
Mundu hunetan deusik ez dela fruitu gabeko arbola!

Geiago ere erran nezake banazki zure berriak,
zureak baino geio itzuli duke Mattinen gerriak.
Zerritegiak badituzu ta maite dituzu zerriak,
bertze maitasun beharrik ere badauka Euskal Herriak.

Lazkao-txiki, Lazkao haundi, bihotzetik zoriona,
aurten ospatu dugu metra bat ta erdi tuen gizona.
Ez baita segur beti haundia behar izaiteko ona,
iduri duzu Mattin egon zen sabel berean egona!

Denborak gabe sortua edo amak zuen bular txarra,
edo goizegi andrer ohartu, ez zira hortan bakarra.
Horra zendako gelditu ziren ttikia eta meharra:
izpirituak ebatsi zautzun gorputzak hartu beharra.

Euskal jendeak Lazkao-txiki ez du sekulan arrotzu,
nork nahi luke gure arbolan abar txarrena're moztu?
Egurren gisan berotzen gaitu, ez gaitu sekulan hoztu;
nigar minetan dagona ere Migelek dezake poztu.

Beti alaiki, beti lasaiki noiz nahi agertzen baita,
nekatu gabe errez kantatzen Migel dabila orai ta.
Jainko maitea otoizten dut nik andre bat dezala maita,
Lazkao-txiki ikus dezagun Lazkao txikien aita.

1975ean

Urtxo baten piaia

Mixerio hau ez du aspaldi, gertatua da Garazin,
denak andregai eta gizongai baitira ezkondu aintzin.
Bi mutil gazte urtxo beraren ondotik biak zoatzin.
Zer gertatzen da urtxo berari dabiltzalarik ihizin?

Gauza bitxia gazte delarik izaitia amodio,
ta bereziki sendimendu hau balinbada enganio.
Zonbeiti leial egoitia gaur ez du deus ere balio,
batek ikasi izan du hori gusta ondoan kario.

Neska eder bat ateratzen da Donibaneko xokotik,
xinplea da ta solastatzen da nornahirekin gogotik.
Baigorriar bat ibili zaion gau eta egun ondotik,
ta senargaiak izkiriitzen ardura San Frantziskotik.

Badakizue zoin luzea den lagun gabeko denbora,
hortakotz aise urtxoa zoan bigarrenaren ondora.
Neska batzuer debrukeria etortzen baita gogora,
mutiko huni erran izan du: «Goazin San Frantziskora.

Ameriketan zu ta ni biak laster gira laketuko,
sos ainitz ere irabaziko lanari lotu orduko».
Mutikoak hau erran baitzion bere lagunak lekuko:
«Beraz, goazin lehen bai lehen, piaia dut pagatuko».

Gazte den batek ixtorio hau jakitea arras on du,
Amerikara joaiteko, beraz, baitziren biak konpondu.
San Frantziskorat neska joan zen mutiko onaren kondu,
hau han utzi ta urte berean bertzearekin ezkondu.

Gaixo gizonak ordu berean galdu izan du burua,
ohartuz jada galdua zela maite zuen aingerua.
Berriz ikusi nahiko zuen Euskal Herriko zerua,
harekin galdu izan ez balu berriz jiteko dirua.

Neskaren gatik utzi zituen etxea ta familia,
bainan gizonak ez du agertu behar sobera ulia.
Neskatxa batzu hola baitira bali ahala balia,
egin arazten ahal dautzute munduaren itzulia.

Neskatxa hori geroztik dago Ameriketan andere,
badu kintal bat urgulu eta bertze hainbertze botere.
Amerikano aberats baten ontasunak ditu bere.
Holako batek enganatuko du bere senarra ere.

Zeruko Argia, 1974.12.29.

Herria, 1976.04.22

Amodioa gauza ederra

Amodioa gauza ederra guzien altxagarria,
nola nahika ezin da aipa, hain baita miresgarria,
mutil ta nesken bihotz barnean den maitasun egarria,
gauza sakratu ospetsuena, gauza espantagarria!
Hori ez balitz gure bizia litake etsigarria,
traï lai ra la, traï lai ra la, litake etsigarria.

Amodioa lore xarmetsu guzietan garbiena,
paregabeko edertasuna gozo eta eztiena.
Iguzkiaren erreinuetan baditaken argiena,
etsimenduak joa bezala dabil hoi ez dakiena,
ez baitu sendi bihotz erdian gozotasun haundiena,
traï lai ra la, traï lai ra la, gozotasun haundiena!

Maitasunaren seinale dira karesa eta musuak,
bai eta ere ezpainetarik atera solas kartsuak,
nahiz batzutan gertatzen diren kartsuen partez faltsuak.
Plazer hitsetan hingatzen dira bihotz zikoitz ta itsuak,
bihotz garbiak aldiz berotzen ditu amodio suak,
traï lai ra la, traï lai ra la, ditu amodio suak.

Mende berrian gaizkia dela errexki egiten ahal,
gaur ere bada guzietarik, ez gaurko gazteria sal!
Hutsean dena geldituko da lotsa ta burua apal,
bere gainean edo barnean sendi badu zerbait itzal,
gaizki dabilan baino geiago badaude elgarri leial,
traï lai ra la, traï lai ra la, badaude elgarri leial.

Adin gaixotan isurtzen dira zenbait gazte huts gaixoak,
lohikerian gohaindituak batzutan berdin auzoak,
bilatu nahiz gorputz atsegin maitasunaren gozoak.
Gorputzenetaz gorago dira izpirituzko mintzoak:
Jainkoa baitan finkatzen dira amodio gar zintzoak,
traï lai ra la, tra lai ra la, amodioa gar zintzoak!

Amodiozko solas ederrak errexi dira ibiltzen,
bainan maitasun egiazkoa ez da nola nahi biltzen!
Aho beteka «bai, maite zaitut!» ez dira batzu ixiltzen.
Arima garbi mahain saildurat balire danak hurbiltzen,
ohar litzake amodioa sekulan ez dela hiltzen,
traï lai ra la, tra lai ra la, sekulan ez dela hiltzen.

Amodiozko mixterioa bihotzaren urruria,
arimarentzat zoramendu den fedearen iduria.
Dohain balios hori Jainkoak du gugarat ixuria,
gogo bihotzen sustengu eta arimaren hazkurria,
gizon emazten kreatzailea, biziaren iturria,
traï lai ra la, tra lai ra la, biziaren iturria.

Amodiorik ez balitz izan nola behar ginen sortu?
Oro hortarik kontzebituak gira, behar da aitortu.
Jenerazio batetik beste ez da sekulan idortu,
beti dohatsu bihotz garbiak ez baititazke gogortu,
hioen baitako sendimen onak ezin ditazke agortu,
traï lai ra la, tra lai ra la, ezin ditazke agortu.

Bizitzeari horrek emaiten du zentzu ta balioa,
goresgarrizko mirakulua guretzat hoin karioa!
Gu baitan sortzen ta sortarazten badaki bozkarioa,
aingeru baten ezintasunez gairi den mixterioa,
euskal mintzaira maitagarrian deitzen da amodioa,
traï lai ra la, tra lai ra la, deitzen da amodioa.

Gure haurtxoak lagunt ditzagun sartzerat adimenduan,
zuhurtzian ta oneski beti erabil diten munduan;
kontzientzian ez ukaiteko goibeldurarik onduan,
arima garbi atera diten den azken jujamenduan,
betiereko amodioa goza dezaten zeruan,
traï lai ra la, tra lai ra la, goza dezaten zeruan!

Zeruko Argia, 1976.10.17

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik



Gure espos-egunean

Odolaren mintzoa liburu ederra
familia bakotxak baduke bedera.
Sartu ahal ditake guzien etxera,
bertsuzalen bihotzen pozez betetzera.

Baxenabar, Lapurdi ala Xuberoan,
irakurle izanen ahal du geroan.
Batzu ipar aldean ta batzu hegoan,
denak bero ditela zure su beroan.

Funts haundikoa dugu zure liburua,
ongi ikertu duzu zure ingurua.
Euskara galbidean, jarraiki gudua,
gauden gu eta altxa dezagun burua.

Noiz aterako gira gaur gauden negutik,
gizonak deskantsura jalgiz enegutik?
Bakotxa berma bedi bizi den lekutik,
Ferranddok lagunduko baigaitu zerutik.

Paregabekoa zen haren iturria,
liburu hortan dauku dena ixuria.
Harritua so dago jaun begi xuria,
noiz agertuko zaion zure iduria.

Plaza gizon ederra ta aldarekoa,
elizan ere apez baten parekoa.
Ez da zure iduririk, erran gabe doa,
hain zintugun, Xalbador, paregabekoa.

Liburuan bildurik zer kantu ederrak!
Utzi gaitu Urepel herriko eperrak.
Zatiturik gaudenak eskuin ta ezkerrak
batean deraitzugu bihurtzen eskerrak.

Xalbador, zure ganat gaiten denak gu bil,
Jainkoari otoitzez eman gaiten umil.
Xalbadorrek gazterik behar izan du hil,
bizia galtzeraino bertsuaren mutil.

Dolamen trixte batzu bazauden lekura,
nigarrez sartu gira bet betan negura.
Bihozminak jo gaitu, da gauza segurra:
hogoi urte goizegi joan zira zerura.

Xalbador, aingeru bat zinuen gidari,
leial jarraiki zira zu haren hitzari,
argi eginez beti ilunpe hitsari,
zuzena eta egia bien zerbitzari.

Bertsulariak hola behar luke izan,
Jainkoaren ondorat arimak bil ditzan,
egien mezulari plazan ta elizan,
Jainko Jaunaren mutil apez baten gisan.

Liburu hortan dira lorez usainduak
bertsu zoragarriak ezin ordainduak,
bekatuzko kotsutik fedez zainduak;
ederrago ez dira liburu sainduak.

Xalbadorri gaurkotzat goraintzi erranez,
erranen dut berari garbiki hitz batez:
Bertsularia zinen ta erdia apez,
Jainkoa orroit bedi egin tutzun lanez!

Agur, Xalbador maitea

Airea: Goizean goizik jeiki ninduzun

Bertsu hauk igorri dizkigu Mendiburuk Heletatik heldu den igandeari buruz: Bazkoz da alabainan Xalbadorren familiari emanen, Aiherrako bertsulari bestan, urepeldarrak irabazi euskaltzain diploma.

Orai artean kantuz hasteko galdua nuen indarra,
gaur iduri zaut kemena berriz jautsia dela nitara.
Ez dakit aipa zitzaiketanez hartze zinuken gisara,
hain zinitugun paregabea, neurri gabeko izarra!

Neurri gabeko pentsalaria ikusi zaitut bertsutan,
nundik zinauan hoinbertze argi gogoan nuen batzutan.
Apostoluer Izpiritua jautsi zen zerutik sutan,
nago ez zenetz ber mixterio haundia gertatu zutan.

Eskaini nahi izan dautzugu omenaldi bat ederra,
«Biba Xalbador!» besterik ez zen eletik eta elera.
Egun haundia zoragarria jina zen Urepelera,
dolamen trixte izigarria ez balauku jin gainera.

«Eta ez ditut eskertzen ahal!» zinion azken hitzean,
gu gintutzula kausitzen zuhaur ez bezain molde hitsean.
Eskerrik aski baziner aukun bihurturik bizitzean,
bizian bezain zintzoa ere agertu zira hiltzean.

Hazirilaren zazpian gira sartu zinezko negura,
zure galtzeak ereman gaitu doluminaren plegura.
Zuri sobera galdatu dugu, hori da gauza segurra,
gure besotan joan zaitugula lurretik eta zerura.

Gizona nola kanbiatzen den doluminez jabetzean,
maite dituen adixkidetaz betikotzat gabetzean!
Jainko maiteak hartu izana gatik bere babesean,
zazpi probintzi nigarrez daude orai zure sahetsean.

Zer erakaspen zuhurrak ziren zure ezpainen hegian!
Bazinakien gure moldatzen fedean eta egian.
Zu joanez geroz nork ez du izan nigar xorta bat begian?
Zure ondoan ginen sobera jar-alki ederregian.

Zinen arbolak bere ondoan bazauzkan zonbait landare,
eta geroztik umexurtx batzu bezala trixterik gare.
Toki guzietz ere gai zinen: plaza, gaztetxe, aldare...
zure bertsua bihurtzen zela otoitz kartsu baten pare.

Edozoin pesta zu han izanez nola ez zen apaindua!
Gure mintzaira maitea bera nork du hobeki zaindua?
Zuk utzi hutsa hain da haundia, nehork ezin ordaindua.
Jaunak lurreko profetaz egin beza zeruko saindua.

Bihotz urrezko euskaldun kartsu ta euskaltzale suharra,
sendatu nahi zinuen gure herriak duen sukarra.
Dohain hoi jautsi zaitzuna nola apostoluer su garra,
ozka bat ezin berdinduzkoa bazen gutarik zutara.

Euskaldun garbi, kristau fermua, oi zer aberastasuna!
Beti hobeki egin nahia, ez maite erreztasuna.
Fede argian xoratzen eta arnegatzen belzetasuna,
nundik zinaukan batzuk ordenaz daukaten apezetasuna?

Behin ta behin ez dut sinetsi zure mundutik joaitea,
holakoetan hobe da bizi baino hila izaitea.
Hargatik badut esperantza bat zuri esku emaita.
Zeruan berriz ikusi arte, agur, Xalbador maitea!

Herria, 1977.04.07

Zeruko Argia, 1977.10.23

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Agur, Maite Diratxet maitea

Airea: *Ttipi ttipitik aitak eta'amak*

Zonbat bihozmin jasaiten dugun urte batetik bestera,
gure bihotza joaiten dutenak dolamenaren trixtera.
Gure gogoak joana gatik oinaze minen betera,
esperantzaren erreinuraino behar ditugu atera.

Zu ere, Maite, joan izan zira oraino hanbat gaztea,
ez du balio xehetasunen erreberitzen hastea.
Zuri pentsatuz deramazkigu eguna eta astea,
orroitzapen bat utzi daukuzu, neke baita ahaztea.

Teatro talde batean barne, erran ditzadan egiak,
sustenguz bete nahi zintuen gu denen bihotz eriak.
Zure laguntza igurikatzen du oino Euskal Herriak,
otoitz egizu Jainkoak igor ditzan langile berriak.

Zure lanean ari zinela, ez dezakegu onetsi
heriotzeak nola zaituen eta zoin laster iretsi.
Bainan betikotz joana zirela ez dezakegu sinetsi,
zure begiak behin betikotz Aiherran direla hetsi.

Ta maluruski egia da hoi: joana zira mundutik;
lano goibel bat gurekin dago hori ikasi pundutik.
Bainan dakigu Jainko onaren aldean zaudela xutik,
euskara eta Euskal Herria laguntzen ari zerutik.

Goiz edo berant guk ere dugu zu ganatzea segura,
guk ere noizbeit joan behar dugu betiereko negura...
Ikusi edo ikustekoa dukegu azken elurra?
Gure begiak altxa ditzagun kuraiarekin zerura.

Ta anartean lagun gaitzazu beti euskaldun irauten,
populu hunen buruhaustek zuzentasunez errausten.
Gure gainera beti egurra nunbeit danik baita jausten,
lagun gaitzazu gezurak eta kadena trixteak hausten.

Zu hautatua zaitugu, Maite, gure urratsen gidari,
argi egizu zeru gainetik gu gauden mundu hitsari,
ahalaz beti jarraiki gaiten emana dugun hitzari,
hil artinoan iraun dezagun herriaren zerbitzari.

Zure dohainak eskaintzen ditut gaur dauden euskaldun gazter,
euskaltzale ta abertzalegoz diton goxa eta asper.
Nehoz ta nehun hartu bidetik ez diton sekulan bazter,
aspaldi beha gauden eguna etorriko baita laster

Euskadirentzat emanen dugu barneko indar guzia,
zuk ere hala egin duzula nork etzuen ikusia?
Zure gainera ez balitz jautsi heriotze itsusia,
gure arbola etzen gelditu behar hostoz biluzia.

Bainan hola da gure bizia, egiazki zoin den labur!
Ta deus ez dugu egiten ahal izan kontent ala samur.
Zure fagorez egin bertsu hauk ditzazu otoi irakur,
bertzerik gabe, Maite maitea, dautzut bihotzetik agur!

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Noiz eta nola sortu da bertularitza?
Nork asma hola ere zitakela mintza?
Bertsulariak beti Euskadik sor bitza,
herria ta hizkuntza ditzaten zerbitza.

Bertsutarako deia nuelarik entzun,
lurpetik nitaratu zen zerbait oihartzun:
«Zu ez zira frantsesa! Zu zira euskaldun!».
Horra geroztik, Ama, seme bat nun duzun.

Zure mintzo garbia beharrik dut entzun,
orroit naiz nola hauek zuk erran dauztazun:
«Gure odol ixurtzez baitira hobendun,
utz Madril ta Parise Gernikatik urrun!».

Seme hunen bihotza ez baita beratza,
sinetsi du Amaren egi aberatsa.
Itxaropena deno biziaren gatza,
ezin bentzutua da euskaldunen hatsa.

Ama, zurekin nago, zu ere gurekin;
ez gaituzte bilduko diru ta urrekin.
Gernikako arbola, hor gaude zurekin,
ez daude luzarako euskaldun lurrekin.

Anai artean jarriz itxurazko muga,
mozturik zaude, Ama, negu eta uda.
Guk zu hola uztea ez zaitela duda,
askatasuna berriz zu ganat heldu da.

Batetik Madril eta bertzetik Parise,
jasaiten dugu zonbeit euri eta haize.
Tiroz bakarrik nahi zinduzkete ase,
bainan harmarik gabe nausi zira aise.

Ama askatu arte jo beti aurrera,
egiaren aldeko da gure aukera.
Semeri utz ideia daukagun hau bera,
gure etsaiak bota ditzaten lurrera.

Amak badazkienak etsaiak ez dazki,
eta sekulan ere ez jakinen naski.
Gaurtik herrian bada langilerik aski,
otso bat den guziez gu bagira zazpi.

Batetik irrintzina, bertzetik txixtua,
argitzen ari zauku zero gain gristua.
Nahiz bozkarioa ez dugun piztua,
Amaren supazterra ez dago histua.

Gure nortasun hori ezin dute onets,
gure beregaintasun hori ezin gorets.
Ama, zure etsaiek dezatela sinets
suge batek apoa ez diola irets.

Zer pairamenak diren gure Amarenak:
bihotz gainean soka, zangotan kadenak!
Xede zintzoak dira zure haur gaztenak,
ta agian ez gira zure haur azkenak.

Odola semen baitan dabil erakituz,
Ama baitabil bere semeak argituz.
Bildurik gauden arte kantuz edo txixtuz,
gure Ama Euskadi ez da joanen histuz.

Nor zen Bordaxuri

Irisarrin, 1983ko Urte Berrian, *Iturri* taldeak eman zuen Aita Larzabalen *Bordaxuri* antzerkia. Afalondoan, Mendiburuk lau bertsu hauek kantatu zituen antzerkilarieri, Amurizaren *Naufragoa*-ren doinuan:

Zer gai ederra dautazun jarri!
Bihotza sutan neri ezarri!
Ihardespena, den ederrena, beharko diot ekarri.
Nor zen, bada, Bordaxuri?
Kexuan behar ixuri:
elizan saindu, kanpoan debru, kontzientziz garbi xuri.
Gaur ere bada, Hazparnen ere, hameka hura iduri.

Kontseiluko jaun, herriko jauna,
kanpoz argia, barnez iluna,
Plumagaineke nagusi haundi, urgulutsu ta lizuna.
Pabillunketari ona
ta maita emazten gona.
Pentsatzen naiz gaur egona:
zeru-ifernu, biak balire, haundi nuke zoriona,
ifernu hortan kixkaili dadin gizona ez den gizona.

Semea preso Paue horretan,
bizi guzikotz han galeretan.
Semeak bertsu hunkigarriak utzi ditu paperetan.
Seme horren ohoretan
kanta ditzagun denetan,
Irisarrin ta Heletan,
haren aitaren iduri frango badugula bazterretan:
gizon garbiak solasez bainan gizon zikinak obretan.

Bordaxuritaz zuk nahi jakin
nik zer diotan gaur Irisarrin:
gizon bezala pizu haundia, jende bezala zoin arin!
Orai kexuan sar nadin,
bihotzean dut hainbat min,
beraz kantatzen dut samin:
Jainkoa, nunbait balinbazaude, hemen naiz hortz eta hagin,
berriz pizterik balinbadago, Bordaxuri pitz ez dadin.

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Telesforo Monzonen omenaldia

Huna Heletan, 1982-II-14an, Monzon zenaren omenaldian, kantatu nintuen bertsuak, lehen hiruak elizan meza denboran, eta bertzeak Gaztetxean, mintzaldien ondotik:

Bakea predikatzen ari da Eliza,
gaztigatuz noiztenka diktadur bortitza.
Populu lehertuen alde bedi mintza,
doi bat argizta dadin gure mundu hitsa,
Jainkoak entzun dezan guk egin otoitza.

Nikaraguan, Salvador, Txilen ere egun,
Palestinan, Poloñan... zonbat berri ilun!
Etxen berean ere nola baditugun
torturatuak preso hainbeste euskaldun,
denen otoitz auhenak, Jauna, otoi entzun.

Ixtripu eta xangre, hainbat hiltze pizu,
oligo tzar ta droga, lurrean dakizu.
Zuzen egarri guti, diruaz askitsu,
gure galde kartsua, Jauna, hel bekizu,
mundu trixte hau doi bat hobia egizu.

* * *

Monzon, zure fagoretan
bilduak gera Heletan,
zure ganako estimu ona gure bihotzetan.
Neguko gau luze hetan,
dirdira on bat kopetan,
hainbeste aldiz gurekin egon ziren sala huntan.

Monzon gogoan nindagon,
ahantzirik nola egon,
haren ondoan biltzen ginuen nahiko zorion;
gizon argi ta bihotz on,
zinen egiazko gizon,
esker onezko froga gaur hemen daukazu, de Monzon.

Batzuentzat buru bero,
erdi xoro, erdi ero,
izaiten dira mundu huntako jakintsunak oro.
Zuri ospeka gaur bego
herria orai ta gero:
Bergara herri Olasoneko Monzon Telesforo.

Monzon, poeta argia,
idazle esku garbia,
minixtro ere izana zira zaintzeko egia.
Bihotzez zoragarria
ta gogoz pentsalaria,
aski goraki nork kanta liro zuk egin ongia?

Egiazko euskalduna,
zentzu eta bihozduna,
herria maitez hainbat antzerki idatzi duzuna;
zinaukan apaltasuna
deitzen da goratasuna,
bixtan ezarri dautzugu egun gure maitasuna.

Martxoaren bedatzia,
utzi zinuen bizia,
Euskal Herriko ixtorian zu ezin ahantzia;
zure balio guzia
gu baitan duzu utzia,
zuri zor dugu ainitzek gure euskal kontzientzia.

Hainbat antzerki emana,
hainbat ele on errana,
nehork ta nehoiz ezin sarizta egin duzun lana.
Agur, ospe, Monzon jauna,
etorri arte zu gana
zure orroitza egonen zauku bihotzean barna.

Eleketari bikaina,
olerkiz profeten haina,
sorropila fin utsal gabea zen zure ezpaina.
Ez zinen mokor gordaina,
lur harritsuan eraina;
hartu zaituen lur onak noizko du zure ordaina?

Xuri, perde eta gorri
baitzen zure bihotz hori,
zure hats beraz jabetu dira ainitz euskal xori.
Lore bat zaukun erori
ta bertze mila etorri,
libertatea nahi dugula agertuz orori.

Zonbat zinitugun maite
ohar eta orroit zaite;
ezagutzazko omenaldian hartzen dugu parte;
batasun herri hainbeste
herri batasun ta beste,
zure egintzen jarraitzen gaude bizia gal arte.

Monzonek erran zaukuna:
gora herri batasuna,
nahi badugu berriz ikusi gure gaintasuna;
kasu, anai euskalduna,
zoin den traidore iluna;
hoi da mezua Monzonek berak utzia daukuna.

Hegoko demokrazia
deitzen da hipokrizia;
hemengoaren iduria da, hori da guzia.
Ehun mila polizia,
euskalduna ihizia,
tortura bizi den lurrean da hila justizia.

Batean frantses eskola
ta bestean española,
bien artean xintxifikatuz gure ikastola.
Polizak duen pixtola
ta batzuen epixtola,
madarikatzen ari zaizkigu euskaldun odola.

Bakeak haundi du fama,
gezurra dela nork asma?
Euskadi gerlan delako froga mugak baderama.
Minetan ikusiz Ama
ezin jasan bere zama,
eskuan zerbait hartu beharko: makil edo harma.

Agur, ospe, Telesforo,
ta agur, anaiak oro;
iraun dezagun beti euskaldun eta bihotz bero.
Orai zer dugu espero?
Goazen beraz lerroz lerro,
Eneko Bizkai Maria Lorka ikusteko gero.

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Ene sortetxe maitagarria, hor zaude neri begira,
zutaz bertsurik nehoiz sortuko zautanez ezpain hegira.
Ta alegiak utzirik noizbait sartu behar dut egira,
zu ta ni biak dudarik gabe ama-semeak baigira.

Haur haurretik zin egina nuen sortetxearen zaintzea,
ezagutzazko egintzen nasai haundituta ordaintzea.
Ezkondu eta arrima zaitut sortu nauzun ohantzea,
eginbide bat baitzen semeak zuri zerbait eskaintzea.

Ez dakit gusta ote zaitzunez eman dautzugun itxura,
ala oraindik urriki duzun lehen zineraman hura.
Jarri zaitugun molde horretan ez bazira hain gostura,
lehen bai lehen erran zaguzu zer den zure arrangura.

Zertan hutsegin ote dautzugun argi zaguzu gogoia,
haur batek eman ukaldi txarrez bihotza duzunetz joa.
Barka ezina baldin badago guk zuri egin laidoa,
hartu dezagun aldatzerako behar den xede zintzoa.

Ez ahal zaude trixte trixterik nere maitasunaz dudan.
Argi ta garbi ahal dakizu nik zonbat maite zaitudan.
Zilatua dut, baldin bazaude, zertaz ez zauden gosturan:
zure barnerat hainbertze arrotz etortzearekin udan.

Zure teilatu azpian udan hainbat arrotz badagola,
nor den horretan hobendunena pentsamenduka nagola,
iduritzen zaut zure abotsak nunbaitik hau dariola:
«Hoi en aberri kantua ez da, ez, *Gernikako arbola*».

Zenbait ta zenbait jende baduzu egun arte ikusirik:
gizon andere pollita frango, bai ta ere itsusirik.
Sortetxea, zu zaitut lekuko, ez dut ikusi bihirik,
nahi lukenik zu ta neretzat Parisez beste nausirik.

Etxe barnean gure etsaiak, hauxe da zer trixtetzia!
Etxe maitea, sendi dut orai zuk duzun pena guzia.
Erradatazu zertako bada zaitudan hola utzia:
Parise ala ni ote naizen zure gaurko nagusia.

Nolaz ditake ez baitut entzun sortetxearen mintzoa,
etxea, nitaz ziniolarik: «Ez zira seme zintzoa».
Iduritzen zaut orai ikusten dutan arbasoen soa,
geldiarazi nahi zutela luzatuz beren besoa.

Nere gogoan edukiz beti zuk neri egin otoitza,
orroitgarri ta ohartgarria izan bekit egun goiza.
Iduritzen zaut konprenitzea zure oharpen bakoitza:
zu zirela, zu, bakar bakarrik euskaldunaren egoitza.

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Beren entsegu nuklearrekin lur guzia pozoindua,
min bizia ta leuzemia da ondoriotzat bildua.
Airea, ura eta lurraren pozoina bedi kendua,
ta geldi bedi erresumetan gerla beltzaren gudua,
Jaun Zerukoa, bakez apaindu behar zinuke mundua.

Xalbador zenak urrezko hitz hauk jarri ditu liburuan:
«Batzu dirutan emokatuak gako guziak eskuan,
eta bertzeak ogia galdez biziaren irriskuan».
Jainko maitea, gure otoitzen entzule zaude zeruan,
egia eta zuzentasuna sorrarazkitzu munduan.

Egia eta zuzena galdez ezin da nun nahi mintza,
alta hori zen Jesusek berak eraiki zuen Eliza.
Popieluzko apez gazteak jasan du heriotz hitsa,
torturaturik hil dute eta urerat bota gorputza,
Zeruko Aita, entzun zazu Zuk harentzat egin otoitza.

Zonbat ixtripu, xangre ta droga, hainbat heriotze pizu!
Zonbat zauritu ta enbalitu, xahar ta eri askitsu!
Tortura, krima ta lan gabezi, danen berri baitakizu,
Jainko maitea, gure galdea otoitz huntan hel bekizu:
mundu trixte hau, mende berri hau doi bat hobea egizu.

Xalbador zenak erranak dira orai badoatzin hitzak:
«Gu euskaldun ta ere fededun ginitaizkela ainitzak,
fedetik ihes egin ez balu gure Amaren hizkuntzak».
Fedea eta euskara xutik atxiki ditzan Elizak,
Jainko Jaun onak entzun ditzala gure galde ta otoitzak.

Ai, nere haurrak balira batzu beharko lukete hezi,
euskara ere nahi ala ez mintzatu eta idatzi.
Gureak gure atxik ditzagun, bertzenaz norat goatzi?
Gure mintzairak zendako ez du amoriorik merezi?

Haurrak erdaraz entzun orduko sumintzen nau doloreak.
Zer dira, beraz, euskalduneri egin tuzten ohoreak?
Zer estimutan hartzen ditugu Jaunak eman fagoreak,
euskaldun batzuk berak badira euskararen traidoreak?

Euskara zein den miresgarria ezin da aski estima.
Eta batzuek zangopilatzen, hau da zinezko lastima!
Euskaldunak gaur bere buruaz egiten ari du krima.
Etsimenduak jo ote dazko bihotza eta arima?

Euskara ez da mintzo baxtarta ainitz badiren bezala.
Gur'arbasoek maitexko zuten ta ez maitasun axala.
Euskara gal ta ibiliko haiz burua apal apala,
ohartu eta eskandalo bat haundia egin dukala.

Euskara gabe Euskal Herririk ez ditake gehiago.
Gauza hoi ez dut nehoiz ikusi egun baino garbiago.
Euskal Herria doluminezko egunen bezperan dago,
izanik ere erdaldun batzu gu baino euskaldunago.

Begiak eta bihotzak ere behar ditugu zabaldu,
gure hatsaren jabe gauden ta ez gaitzatela zapaldu.
Kontzientzia duen jendeak konprenituko ahal du
Jainkoak eman dohain ederrak ez direla behar galdu.

Zeruko Argia

Poxi bat argitzeko gaurko mundu hitsa,
zabal bedi munduan Kristoren Eliza.
Pestaberriz Jaunari galdezka gabiltza
gu baitan ezar dezan bere esperantza.

Gosete eta gerla lur hunetan baita,
entzun gure otoitzak, zeru lurren Aita,
batek bestea dezan anai gisa maita,
populuek dezaten elgar errespeta.

Hainbeste eritasun ta heriotz pizu,
nahigabe guzien berri baitakizu.
Xahar eta eriak, Jauna, lagunt-kitzu,
guzien soleitzeko zuk zerbeit egizu.

Elgarri barkatzea da gauza nekea,
bekaizgo eta herra aldiz da merkea.
Mundu hau zure argiz argi ditaikea,
ezarkitzu lurrean zuzen ta bakea.

Frantziaren zerbitzuko

Airea: *Bi haur pollit, maitagarri, Jatsun ditut ezagutu*

Frantziaren zerbitzuko egin dut soldadogoa,
Landesetan gorputza ta Euskal Herrian gogoa.
Orduan da nitan finkatu zinezko euskaldungoa,
horri esker ni baitan piztuz euskal abertzalegoa.

Norbeit bere sorlekutik nolazpeit desterratzean,
nortasunez ohartzen da arrotzen herriratzean.
Sofritu dut nola norbeitek bizirik enterratzean,
bititzeko egina bainaiz sortu naizen baratzean.

Hamasei hilabetez dut jasan holako iluna:
orenak luze ta ezin bururatua eguna!
Funtsean hola ezagutu dut nere etorkizuna,
eta geroztik dakit ongi ni naizela euskalduna.

Nigarrez egin ondoan aitameri adioa,
trixteago ez ahal da gizonaren herioa.
Orduan da nitan barnatu herriaren balioa,
ta bihotzean emendatu etxeko amodioa.

Xede zina hartu nuen ta sartu zautan buruan:
«Bizi guzia iragan behar diat sorlekuan!».
Berriz etxeratu nintzen ta aita-amen inguruan,
iduritu baitzitzerautan sartzen nintzela zeruan.

Geroztik euskaldungoaz hemen nago urgulutan,
euskararen amodioz bihotza dutala sutan.
Desterruan zonbat oinaze pairatu izan dutan
guzier salatu beharrez hasi ninduzun bertsutan.

Herriko semea nintzen etxetik urrun nigarrez,
eta orroitzen naiz beti han iragan egun txarrez.
Ez naute berriz desterratuko beldurrez edo indarrez,
etor ditela nere ganat ni berriz hartu beharrez!

Zendako herri arrotzen esku makil bortxaz ibil?
Zonbat gazte egun oro ni bezala bortxaz dabil?
Aldi bat saretan hartua berriz ez baititake bil!
Sorlekuaren zerbitzuko nahi dut bizi eta hil!

Zeruko Argia, 1977.11.20

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Zer sinesten duzu?

Donostian, 1983ko urtarrilaren 21ean, Karmelo Balda pilota lekuan, Xanpun bertsulariaren omenaldian. Gaia: Zer sinesten duzu? Mendiburuk, Amurizaren *Naufragoa* doinuan:

«Zer sinesten dut?» duzu jarria,
bihotza sutan gaur ezarria.
Sineste baten ederren baten haundia dut egarria.
Hauxe duk une larria,
nago horren kantaria,
sinesten mezularia,
Euskadi beti gerlan dagola dago argi ta garbia.
Nik sinesten dut ta ni hil gabe libratu Euskal Herria.

«Zer sinesten dut?» ibilki zara
ta erantzuna neure gisara.
Nik sinesten dut, dudarik ez da, zazpi anaien biltzarra.
Badugu horren beharra
eztitzekotan nigarra,
ai neure deiadarra!
Kartzelan barna torturatuak hori da hain gauza txarra,
nik sinesten dut bateratzea Hegoa eta Iparra.

«Zer sinesten dut?» Hemen naiz umil,
hainbat entzule hor neri hurbil.
Azken hau hemen botatu gabe iñolaz ez naike ixil.
Gudian gu beti ibil,
ez egon arrotzen mutil,
atzar mutil ta neskatil.
Euskadi berriz askatu arte borroka guziak erabil.
Horra nik zer gauz sinesten dutan erran gabe ez nuen nai hil.

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Zergatik nigar egin duzu?

Elizondoko finalerdian, 1983ko Nafarroako bertsularien xapelketan, eman gaia: zergatik nigar egin duzu? Mendiburuk, Amurizaren *Naufragoa* doinuan:

Zergatik bada egin dut nigar
deneri orai kantatu behar,
soinuak berak hitz ta arimak dezaizkidatala ekar.
Badut hainbat su eta kar,
badut ere hainbat pindar,
hori erraiteko indar.

Nigar nik bada zergatik egin erranen derautzut azkar:
Nafarroa hau Euskal Herritik kanpo dagolaketz bakar.

Zergatik nigar? Zer gaia, oi, oi!
Aterako dut egun zure doi.
Bihozduna zu balinbazira, zabaldu zazu bihotz hoi.
Ez geldi otoi berekoi,
dena lano eta hedoi;
ez bilakatu sagarroi.
Iratzartzeko nigar artetik badugu aski arrazoi.
Nafarra nola zatika dagon batera dezagun, otoi.

Zergatik nigar? Hor nintzan kantuz.
Nigar egin dut... erran dut bertszuz.
Ai, Elizondo, orroitu ondo, orroit bedi Mendiburuz.
Ta gure eskuak ikuz,
Euskadi nun den gaur ikus,
goazin batera buruz,
gure nigarrak berri ta zarrak guziak betan xukatuz.
Nafarra kanpo Euskal Herritik ez dezazula hola utz.

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Amodioa zer den epixtolak zion,
biziaren iguzki bat dela baitzion.
Jainkoari otoitzez gaiten orai egon,
esposer eman dezan xantxa ta zorion.

Errepika

Entzun, Jaun Zerukoa, gu denen otoitza:
bete zazu graziezin egungo ezkontza.

Sakramendu hau baita garbi eta eder,
bi familia josiz ezkontzari esker.
Bizi ditin uroski Roger ta Mari-Cler,
Jaunak beha dezala guk egin otoitzer.

Ezkontzak bateratu dauzkigu bi gazte,
bizi berri bat dute gaur esposek haste.
Oraindik egin dira gizon ta emazte,
sehaska fruitu berriz gaindika bezate.

Mari-Cler eta Roger betikotz elgarri
Jainkoak berak ditu loturik ezarri.
Otoitzez gaude denak Zeruko Aitari
izan dezaten xantxa eta osagarri.

Egun lotzen baitira bide berri bati,
gu guziak lekuko, espos jauntziz bezi.
Elgar errespetatuz, estimuan ezti
gaur hasi eztei hunek iraun beza beti.

1983.08.20

Ortzaizeko kartzelako gaiaz

Militanteak kartzelan sartu baidituzte indarrez,
espantuetan ari zirezte denak gainditu beharrez.
Ez du balio bertzeren minaz hor hastea irrifarrez,
preso horien aita ta amak badaudelarik nigarrez.

Batzuendako militanteak, bertzentzat buru beroak,
holatsu dira aho mihitan gure euskaldun presoak.
Aterabide politikoa behar du hoiengeroak,
horien guda Parisen ditu sustraiak eta erroak.

Mitterrand eta Chirac biak gaur trufan irriz ari dira,
abertzaleak beren saretan erori izan baitira.
Ez zituzketen hola hartuko frantses semeak balira,
hobe lukete autonomia uztea Euskal Herrira.

Agintariak irriz ikusiz zer egin edo zer asma?
Preso dagotzin militante hoiek dute gaztaginen fama.
Bainan ez ahantz beti bizirik dagola euskal problema,
presoak dira militanteak ta Euskadi dute Ama.

Zato, zato Heletara...

Airea: Oraiko neska gaztiak

Gure herriko gazteak,
Heletar gazte maiteak,
segur ez dira trixteak:
kantua maite, irria maite, plazerra du ikusteak
batzuek eta besteak,
guzien begitarteak
omore onez beteak.

Heletako gazteria,
beti begian irria,
da dena arrailleria.
Pilota maite, soinua maite ta maite bere herria;
maite du Pestaberria,
berdin Baigura mendia,
ahantzi gabe feiria.

Zato, zato Heletara,
etorri gure artera
omore ona biltzera.
Bertsu zaharrak, kantu ederrak ez ditzagun utz galtzera;
jin gurekilan batera,
etor dantza egitera,
zato alegeratzera.

Bazaude barnetik trixte,
Heletarat etor zaite,
herri hau da beti gazte.
Du amodio, erremedio, kantu, dantza eta beste;
bizia baduzu maite,
Heletan bada nik uste
gogo ta bihotzen bete.

Heletako zikiro pesta batez kantatuak

Astoa

Gaia: Zu astoa zira. Lau bertsu.

Astoa naizela dut gaur hemen entzunik,
bainan ez pentsa ez den jinen erantzunik.
Astoa banaiz ere aitortuko dut nik
ez nagola bakarrik trixte ta ilunik:
nere ondoan ez dut gaur falta lagunik.

Asto izanik ere badaukat atsegin:
xutik aise bainago nere lau hankekin.
Gizonak ez dirona egiten dut berdin,
krota karratu eder batzu ditut egin,
nere gibelalde txar ta errondarekin.

Irrintzinaka orain lorietan nago:
asto bati so beti asto asko dago.
Malezia sartu zaut gero ta barnago,
asto arraza ez da ni hil ta akabo,
asko gizon baita ni baino astoago.

Azken putar bat ere badaukat oraino,
gogoia ez baitaukat goibel eta laino.
Epai mahai hortarik har baneza baño,
igor niro airean ez dakit noraino,
astoago baitira zuek ta ni baino.

Peio Gabarain, zure fagorez egiten dugu bazkari,
eskertu ere behar ditugu Antoinetta eta Henri;
Henri Mirande nagusi gisa mahain buruan da jarri...
Beha zazue: ez ote dia iduri *André Dassarry*?

Henri Mirandek bisaia baitu arras ezti eta fina,
André Dassarry-n egite badu, hori da gauza jakina.
Ta Antoinetak haren ondoan iduri du erregina,
horien etxen haundia dugu sendi dugun atsegina.

Hiru alaba badituztela, hor dira egun gurekin:
bat Marie-Jose, ta Elixabet, ta hirugarrena Christine.
Hiru alabak segidatuak eta beren lagunekin,
Henri ere da loriatua bere alaben haurrekin.

Horra nolatsu dabiltzan egun Miarritzeko bazterrak,
denak lorian ikusten ditut *Sankrixtau* eta betterrak.
Anttoineta ta Henriren etxen hauxe da pesta ederrak,
bihotz erditik hartze dituzte gure guzien eskerrak.

Arraillerian egun airoski esker onez dirot kanta,
elgarrekilan hemen egiten baitugu pesta bat hauta.
Biak Aihertar seme alabak, hauxe da kuple xarmanta!
Guzien partez milesker zuer, Henri eta Anttoineta!

Jaun kozinera Pierre Gabarain aipa gabe nola utzi?
Kozinatzen da paregabea, guziek dugu ikusi.
Gainerat Peiok koziner hori du bataioko aitaxi.
Guzien esku zarta beroak eskerrez ditu merezi.

Pierre Gabarain, segurki zira kozinatzen arras trebe;
ta gu guziak gormantak gira, hola gertatzea hobe.
Zerbitzariak Mayi ta Fifin laneko funtsaren jabe,
nolaz ba egon zerbitzariak bihotzez eskertu gabe?

Ahotik ezin utziak ziren jateko ta edariak,
zer atsegina ekarri daukun egun egin bazkariak!
Aingira, urtxo eta pinttarra, ahotik ezin utziak;
milesker, Frantxua, Luixa, Pierre ta zerbitzari guziak.

Bakotxak bere grazia badu, erretx ditaike konpreni,
bertze norbaiti kanta dezadan ez ote dea konbeni?
Gure artean bat ikusi ta lorietan banago ni:
dolarrez gaindi Amerikatik etorria zauku Jonnhy.

Edmon Leon ta Fefe-ri beha xoraturik naiz egona,
pesta eiteko horiek ere dute apetitu ona.
Kuple eder bat egiten dute, ez ditzagula kondena,
jakin dutanaz beren etxean jana dute ragondena.

Zuen artean egun errexki iragaiten dut denbora,
atseginekin jin naiz iloba eta koinaten ondora.
Gizon eder bat hor ikustean hauxet heldu zaut gogora:
hemen daukagun Mastoumet horrek iduri du jaun ertora.

Menddiko Roger lorian dago, hari begira naiz egon;
ta horri ere bertsu pollit bat egun hunetan zor nion.
Emazte pollit blonda horrekin baduke ainitz zorion,
ta Rogerk bere muxtatxekilan iduri du Napoleon.

Egungo pesta ederra dela ikus dezakegu aisa,
ene koinatak lauda ditzadan ez ote zautzue gisa?
Peioren ama Luixari dut eskaintzen oraiko hitza.
pesta eder hau antolaturik goresmen zuri, Luixa!

Peioren ama Luixa ere da maite dutan koinata,
bertsu berezi eder bat beraz harentzat dezaket kanta.
Luixa, zuri eskerrak egun egin izan dugu pesta,
zuretzat ere guziek betan jo dezagun esku zarta!

Ene andrea Jacquelinek du egun haundi atsegina.
Peiok amatxi duela hori duzue orok jakina.
Ta Jacquelinek denek bezala egun du pesta egina;
egun ederki goxatua da, bihar einen du rejima.

Elixabet ta Pierre, zueri bertsu bat dezaket kanta,
zuek ere bai eiten duzue kuple bat oso xarmanta.
Elixabet da kasu egina, Pierre ni bezain gormanta,
ta Pierre ezta moxkortzen ere nik baino geio edan ta!

Bidarrin Pierre, Menddiko Mañex, ez ditut denak aipatu,
nik ere pesta egin dut eta ezin naiz denez orroitu.
Ez baitut hori maleziz egin, behauzue konprenitut,
aipa ez tuztan guzien gatik galdatzen dautzit barkatu.

Lartzabeleko Marie Jeanne ere baitzira ene koinata,
pazientzia haundia duzu, zira emazte xarmanta.
Zure anaia Pierrek ere badaki egiten pesta,
alkol testa bat ein balezote balona laike zaparta!

Tuturruteiko Monikak ere pestan dauzka gaur gogoak,
manifestatzen Lekuinen ziren eskualdun artzain gaixoak!
Irri ederrik ein du Monikak, gure ostaler goxoak:
batzuk ardiak deitzen dituzte ta ostalerrek marroak...

Irri ederrik egin omen da Monikaren ostatuan,
manifestatzen batzuk kexu ta bertzeak arras gostuan.
Laborariak pleinitzen bainan beti dirua eskuan.
Beti dirua kurri dabila jendea baden lekuan.

Elgarrekilan pasatzen dugu egun bat arras goxua,
zuen artean egon nindaizke horrela aste osua.
Bainan etxerat joan behar dugu, agur, entzule gaixua,
milesker, Peio ta Patrizia, Luixa eta Frantxua!

Goxotasuna gauz ederra da, goxoki egon zirezte;
nik ere hola elgarrekilan egoitea baitut maite.
Agur ta erdi bihotzez dener, koinat, iloba ta beste;
milesker beraz guzier eta berriz elgar ikus arte.

Betiko erran zaharrak dio: «Apezak du azken hitza»,
ta egun argiz ezin ditake denen agerian mintza.
Hortakotz hauta du gordezkako azpi joko molde hitsa,
apezak ala betterrak zoinek jo deraukute *Xilintxa*?

Betterra bada izenozenta da, apeza bata ez arras.
Nolaz Mugerren Jainkoa jarri da debruarekin nahas?
Iñorant denik balinbadago ni ganik dezala ikas:
gizon zuzenen lerroan zela Jesus saldu zuen Judas.

Gaur ere berdin gertatzen bada nolaz gira larrituko?
Errexki baitu erretor batek bakea predikatuko;
ta gero mera ta jandarmekin gerla bidean sartuko,
Jainkoa eta euskal hizkuntza bieri eginez uko.

Munduko kargu ederrenetan jar niro apeztasuna,
hainbat alditan aldetik falta ez balu gizontasuna.
Euskal hizkuntza ez ote dea Jainkoaren ontasuna?
Hura menperaz Jesus bera da zangopean daukazuna.

Jendeak eskuz benedika ta zangoz bota ostikoak,
kanpoz urtxo ta barnez otsoak haxe duk zer puttikoak!
Mementoa da, mugi zarezte apez Euskaltzandikoak,
ez dezan nehork zuetaz pentsa: dira ziri beraz joak!

Ez nuen uste apeza zela hainbat gerlari trebea,
sinetsarazi zaukuten zela bake deiaren jabea.
Jesusek berak utzi derauku mezu bat askoz hobea:
«Aterbe gabe denari, otoi, emakozu aterbea!».

Beraz zendako salbaiki hetsi ikastolako atea?
Hitzak hitz utziz apezari da obratzen ere hastea,
bertzeak mana orde z nork berak etsenplua emaita,
ikus dezagun zer neurriko den apezan karitatea.

Jainkoak dio «barka zazue»; zerendako zuk kondena?
Zuretzat nolaz hastiragarri da Jesusentzat on dena?
Bortizkeria da zuk agertzen duzun alderdi onena,
Jainkoak ez du aterbe gaben haizatzeko ein ordena.

Hamar egunez haurrak kanpoan, barnetik irriz zinezten,
zuen baitako kontzientzia garbia dugu miresten.
Zer bihotz ona duzuen eta zer fede sua iresten!
Argi ageri da zoin Jainkotan duzuen zuek sinesten.

Gizon zuzenak nolaz ausarta zuzenaren trahitzera?
Haurrak kanpoan ezarri eta heien pusken bahitzera?
Jendetasuna eta euskara utzkitzue bizitzera,
ta Pariseren esku makilak bazaizte joan Parisera!

Amodioa zoin lanjeros den traba ainitz badelarik,
sustatzaileak izan ordean trabariak direlarik.
Nere ustean izaiten dira bat bestea bietarik,
bainan ez naute santa sekulan berexiko ni zutarik.

Orai artean maitatu zaitut ta gero ere maiteko;
zu hautatua zaitut hastetik neure besoen arteko.
Ez ahal naiz ni aski ahula zure betikotz uzteko?
Trabatzailiek nahi bezala lokarri onen hausteko?

Batzuek hola nahi lukete zu nitarik urruntzia,
zurekin argi dutan bizia zu urrunduz iluntzia.
Bainan Jainkoa baitan emana dut osoki fidantzia,
elgarrendako eginak dira zure ta nere bizia.

Amodiorik ez duen batek penak zer diren ez daki;
bihotz mingarri trixtena hoi da, ez dakienak balaki!
Nik zurekilan ezkontzea dut aspaldian erabaki,
ta hobe nuke amodioa zer den ere ez banaki!

Bihotzeraino sartua zauzkit eternitate guziko,
eta hargatik santa sekulan ez zaitut nehoiz utziko.
Bertze batekin ez naiz joanen ta zu arras ahantziko,
elgarrendako eginak gira ta elgarrekin biziko.

Dudarik gabe burrason ganik hori nuen bai merexi,
zaitudalakotz denen artetik espos laguntzat berexi.
Desterraturik igorri naute zure ondotik ihesi,
zure ganako amodioa nahian galdu arazi.

Ene ganako amodioa ez dezazula otoi gal,
bainan, badakit, horrelakorik ez duzu egiten ahal.
Gure etsaier mintza zaitela ez goraki ta ez apal,
bainan polliki galda zozute gutaz ditela urrikal.

Espos eguna etorri arte begietan dut nigarra.
Bertze batzuek hautatu behar ote dautzute senarra?
Jainkoak berak badaki nor den zurekin bizi beharra,
ta Hark zuretzat hauta duena ni naiz, ni, bakar bakarra.

Biziko lagun ez niro hauta zutaz bertzerik munduan,
fedezko argi ukatzailerik ez baita sartzen zeruan.
Bizi guzia egon nahi dut, maitea, zure onduan,
gu biak baino urosagorik ez bailitake orduan!

Amodioa, gauza bakarra, diruz ez ditake eros.
Beharrik hola da, bertzenaz gu beti gintaizke maluros.
Primadera, bai, etorriko da negu hau joanez geroz,
ta gero beti bizi guzian izanen gira zoin airos!

Jaun Zerukoa, zure oinetan diren bi gazte airosak
zuretzat eta herriarentzat izan bite baliosak.
Nola iguzki galdezka dauden baratzetako arrosak,
halaber daude, Jauna, zuhauri gaurko esposen bihotzak.
Zure graziak urrun bitzote egun latzetako hotzak,
bizi berrian engeiatuak dira oraindik esposak.
Emaiozute beti kuraia, kenduz trixturaren lotsak,
Zeruko Aita entzun itzazu gure xede ta otoitzak.

Gazte zintzoak eta fermuak ditu euskal gazteriak,
Maialen eta Leonek ere eman duzte ageriak.
Eta ezkonduz egiten dira beti ahide berriak,
haurride-lagun ta adixkide gaur juntatu bi herriak.
Adixkidantzan finka ditzaten familien lokarriak,
ezin hautsizko batasunean baitira orai jarriak,
bisitazkitzu, Jauna, penetan diren bi bihotz eriak,
maitasun sendo behar gorria baitauka Euskal Herriak.

Gaurko esposen gogo bihotzak otoizka daude zerura,
berek bezala maita dezaten bestek euskaldun kultura.
Maialenek du idazkaritzan *Seaska*-z hartzen ardura,
eta Leonek antzerkian du bere jeinu eder hura.
Euskaldungoa Jainkoak daki dela Baigurako ura...
Gure herriak ez dezan galdu aitamek eman itxura,
gazte sanoak lagunt ditzagun eta haur ainitz mundura,
nehoiz suntsitu ez diten gure euskal hizkuntza ta lurra.

Ezteiak hemen girixtinoki hasi ditugu elizan,
amodioak hortaraturik bi gazte leial zabilzan.
Egun bateko pesta bakarrik izan ez dadien gisan,
alegrantzi hau segi dadien beste egunen bizitzan,
lot gaiten beti denak elgarri anaigoaren zerbitzan,
gaurko ezteia ez dadin xoilki gau bateko pesta izan.
Hortakotz gaude kartsuki kantuz Jainko Jaunak entzun gai-
Maialen eta Leon bizian beti xuxen gida ditzan. tzan,

*Armendaritzeko elizan
1983ko agorrilaren 2oan*

Santa Katalina

Euskal Herritik urrun ere da aspaldi danik jakina
Heletan nola iragaiten den airos Santa Katalina.
Batzuek feira diote dela ostatuen atsegina,
bainan ez pentsa horien gatik dela bakarrik egina.

Mila ta mila jende Heletan feirian da erabiltzen,
herri altzoko burrunba ez da bi egun osoz ixiltzen.
Feiria dela ta lana uzten jendea ari abiltzen,
batzuk pottokak saltzen dituzte ta bertze batzuek biltzen.

Heletan feira eder horretan zu izana ez bazira,
zoaz eta hor egonen zira loriaturik begira:
nola badauden behi ta zaldi jinik plazaren erdira,
astoak ere lau zango eta bietakoak badira.

Gure feiriek aurten betetzen dituzte
berrehun ta hogoi ta hamahiru urte.
Orduko heletarrek ikusten balute,
plazerrez gaindituak litazke nik uste.

Frantses errege Luis hamaborzgarrena,
Nafarroako errege ere ginuena,
harek eman zeraukun feirien baimena,
horra noizkoa dugun feiria lehena.

Heletako feiriek haundi dute fama,
berrehun urtez goiti dutela nork asma.
Santa Katalinak du arras haundi zama,
bera baita heletar ostalerren ama.

Santa Katalinetan hemengo ta hango
Heletan ibiltzen da segur jende frango.
Bada asto ta mando, bainan dut errango
ez dituztela naski guziek lau zango.

Heletan da milaka jendea ibiltzen,
beren miseri kondan ez dira ixiltzen.
Halere ostaturat guziak hurbiltzen,
batzuek zer pottokak ez dituzte biltzen!

1983.11.24

Airea: Pottoka mendian

Aurten hiru urte izanik badira,
Euskal Herritik naiz jin Amerikara.
Eman zauzkidaten doi doi bost hektara,
deus ere balio ez duen lur bat da.

Neguak bortitzak, alharik deus etzen;
kabalak goseak eta hotzak hiltzen.
Indiano batzuk zaizkigun oldartzen,
ta gure kabalak ebasten zituzten.

Udan aldiz beti baita idortea,
lotsagarriena zen ene zortea.
Erabaki nuen tokia uztea,
ahal zen lekurat laster joaitea.

Orai oihanetan lanean ari nuk,
ganbera berean hamabost badituk.
Lanean gogorki denak ari gaituk,
jan edanean ta lo gela huntan truk.

Hiru euskaldun ta lau italiano,
denak berdin gazte, azkar eta sano.
Nagusiak dauku hitzeman oraino
gela haudio bat oraikoa baino.

Orai ditu jada zonbeit hilabete:
ezagutu nuen Bidarriko Maite.
Nausi aberatsek kanpo eman dute,
Txinako neskatxak merkio dituzte.

Hain neska ederra norat da joana?
Ez omen da geio jinen ene gana.
Akitzen omen da, du gauazko lana,
ez dakit zer ari den hirietan barna.

Ama Euskal Herri, gogoan zaitut maiz,
bainan ez dut sosik, eta bizia gaitz.
Aberastuko naiz egun batez araiz,
ta orduan berriz herrirat jinen naiz.

Heldu da ni berriz jiteko eguna,
besarkatuko dut Euskal Herri ona.
Denak jinen dira gero ene gana,
ta deituko naute: Kanadako jauna.

Idazterat naiz abian
berriak eman nahian:
orai hemen naiz Kanadan,
nigar xorta bat begian
ta diru guti sakelan.

Pidaia dut ongi egin
bertze bi euskaldunekin:
bat Aldudeko Xemartin,
bertzea Jatsuko Pattin,
omorea zen gurekin.

Ixturiztar gizon gaitza
bideko lagun apeza;
badazki hiru hizkuntza,
kontseilatu gaitu untsa:
badela ainitz ohointza.

Monrealen jautsi gira,
orai goaz Torontora,
han omen da gure lurra,
aberasteko mentura,
fite jiteko herrira.

Toronton dela lur ainitz,
horiek untsa ibiliz
laster aberastuko niz,
ta etxerat jinen berriz
Mercedes batean irriz.

Torontoko inguruan
aberasturik gostuan,
hiru urteren buruan
izanen naiz sor lekuan,
xapel eder bat buruan.

Ait'amak, ez egon trixte,
aberastuko naiz fite,
gostuan egon zaitezte:
fite behar tut nik uste
eskuak dolarrez bete.

Airea: Heletan Santa Katalina edo Baionako suprefeta

Hamarrak arte beti lo
ta oren bat beztitzeko;
arras guti kozinako,
tiens tan sandwich ta holako.

Euria denean mutur,
beroegi bada uzkur;
zerri baten ere beldur
i a un sanglier dans la coeur.

Larrua has iguzkitan,
egon dira berrikitan,
iduri oiloak xitan,
arroltzeak erdi bixtan.

Andere ttitti haundia,
badu gatu bat horia.
Zer gatu lepo lodia,
iduri ertor ohia.

Badute ere xakurra,
Ponia buxtan laburra,
pixka bat zango makurra,
iduri gure faturra.

Nunbeitik jinikakoak
jende, xakur ta gatuak;
gero ziren kexatuak,
ganberan zuzten saguak.

Ta gero, lokartu aintzin,
Jules, Valerie ta Francine,
argia bizi zoazin,
denak muztuka ihizin.

Argia pitz, borta idok,
ez dute lo egin orok;
argi hastean kot-ko-rok,
il n'fait cher s'putin de cog!

Gure oilar lepo motxa,
kukuruka beti goxa!
Etxen ikusiz arrotza,
jauzten baitzaio bihotza.

Egon diren azken gauaz,
bazen behi bat orroaz;
orroit bite hemengoaz
ta gu horien xoroaz.

Zer da legea? Zer da indarra? Nor ote da azkarrena?
Nor da nagusi? Edo errege? Trankil duena barrena?
«Elgar maitatu! Elgar lagundu!» manamendu suharrena!
Menderen mende horren iluntzen ari zauku borzgarrena.

Zer da mundua? Zer da bizia? Nun ditugu zimenduak?
Hiltzale batek nun ote dauzka arima salbamenduak?
Uste ote du eskuratzea Jainko urrikalmenduak,
zangopilatu ta ostikatu ondoan manamenduak?

Sortuz geroztik bizia denek ez dutea merezia?
Zendako dago gizona beti gerla bideko hezia?
Beti herraren aztaparretan, hau da Jainko gabezia.
Hil harri zilo iluner beha zer zinezko trixtezia!

Jesus mundutik urrundu zaikun manamenduak emanez,
«Jainkoa eta lagun urkoa osoki maita» erranez.
Jauna, nun zira? Gu herrestaka, Zutarik urrun izanez.
Zu ez bazine bezala gira oi elgar ezin jasanez!

Zabal atea, idek kaseta, ez da begiak hesterik.
Harek hura jo, hunek hura hil, zer da ikusten besterik?
Jainko beldurra nun dute ala ez daukate sinisterik?
Jesusek ez du gizoner eman holako lege trixterik!

Hil gazteak ta hil haurrak ere, gizonak bihotza nun du?
Pitz hasarrea ta hil bakea, burregoak munduz mundu
hola dabilta eta batzuek nahi dituzte lagundu.
Zuzena eta jendetasuna norat zaizkigu urrundu?

Gure oihana husten hasia da xori errexiñolez,
eta herria husten ari da xoriez eta arbolez.
Gero ta geio emendatua ihiztarien etxolez,
beren eskuak gorritzen tuzte martir gaixoen odolez!

Jesusek ere ukan zituen ozpinarekilan nahas
irri ta trufa, bisaierat thu; libro zen aldiz Barrabas.
Ukatzaileak, Petriren gisa, gaur ere ez dira eskas!
Euskal Herrian segur badugu Jesus baino geio Judas!

Zuzena beti laidostatua, behar da ainitz kuraia:
hau mundu erho, basa, trixtea, lazturagarri, salbaia!
Gizona zer da gizonarentzat, balinbadago etsaia?
Muiturrean jo eta aurdikiz laguna edo anaia.

Lagun urkoer egiten dena Jaunari dela egiten,
mundu guziko apez guziek hori daukute erraiten.
Kontzientzia iker dezagun zer den gutan iragaiten,
atsegin ala atsegabea dugun bertzeri emaiten?

Herria, 1978.02.02

Arindua dut loa utziz apairua,
bi eskuen artean harturik burua.
Nago zer den mundua ta zer den dirua.
Denak baino gorago baitago zerua,
ikusten dut han sartzen gure aingerua.

Zure nahia baitzen, gure Jaun Goikoa,
zu ganatzea hiru egunetakoa...
Gizona berenaz da ahul ta flakoa,
gure haur ttipi ezin ahantzitakoa,
zerua da zuretzat orai ohakoa.

Zeruko Ama ona, zu zaitut gogoan,
ezar azu Maria zure ohakoan.
Nahiago ginuen guhauren altzoan
otoitzak ikas zitzan supazter xokoan,
bainan betikotz orai da zure ondoan.

Jainko maiteak hartu du bere gerizan,
aitamak utzi ordu herriko elizan.
Gauza ederragorik zer ditake izan?
Jaunak ezarri dauku betiko egoitzan,
lur huntako penetaz sofritu ez dezan.

Fede argian erretx penak jasaitea:
ilunpearen orde argi izaitea.
Sakramendu haundia ezkontza maitea,
lehen eginbidea haurren ukaitea,
aingeru ttipieri bizi emaita!

Haur ukaitez batzuk ez dute axola,
zikoizki mintzo dira nik dakita nola.
Eskerniatzen dute Jesusen odola,
errefusatuz Harek utzi parabola:
deus ez dela fruiturik gabeko arbola!

Jainkoak egin gaitu gizon ta emazte,
bere idurikoez lurra zadin bete.
Biziaren etsaia Jaunak ez du maite,
bizia tratatzea delakoan trixte,
zonbatek beren nahiz haurrak galtzen tuzte?

Zonbat ez da trebatzen haur galtzerat egun?
Kontzientzia gabe daudelakotz ilun.
Jainko beldurrik ez da denetan ezagun,
sakramendu saildua kolpa ez dezagun,
izan gabe Jaunaren odolaz hobendun!

Herria, 1978.03.09

Gizongaia gipuzkoarra dut

Gure euskaldun lur garbi huntan nagusitu da laharra,
amodioa garraitu nahiz hasia zaiku aharra.
Nere begiak nigarrez busti tudana ez naiz bakarra,
Jainko maitea beharrik hor da, badugu Haren beharra.

Gizon gaia dut gipuzkoarra, aitak ez nahi sinetsi;
mendiz bertzalde joan naizela nehola ezin onetsi.
Nere bihotza zabalik dena aitak nahi luke hetsi,
gauza mingarri izigarri hau nola behar dut iretsi?

Oraino ere gogoan dauzkat aitaren solas gordainak,
lehenagoko etxeko jaunek badituzte gaur ordainak:
etxeko semek ez zuzten behar andregaitzat etxezainak,
lehenagoko akuluekin ditugu gaurko itzainak!

Jainko bidetik behar ote dut debrua ganat lerratu?
Amodioaz beterik dutan bihotza herraz kerratu?
Mundu hunetan badirelakotz zonbait arima herratu,
behar ote dut gizongaiari nere bihotza zerratu?

Ez ote gira bakotxa gure gorputz ta arimen jabe?
Aita, zendako ezartzen nauzu hoin trixte ta dohakabe?
Jainkoa bera ostikatzeaz ez ote zira herabe?
Zu ere lehen ezkondu zinen nere baimenarik gabe.

Amodioak ez du mugarik, ezin da nihun baratu,
gauza bakarra hori ditake ezin dena konparatu.
Maitasunaren beroak nau ni aitarekin hortaratu,
hego aldeko mutil gazte bat dutalakoan maitatu.

Orai artean ama bakarrik duzu nitaz urrikaldu,
amodioa sakratua da, burua behar apaldu.
Aita maiteak denborarekin konprenituko ahal du
gogor hetsirik daukan bihotza behar duela zabaldu.

Jaunak estekan ezarria nau amodio gar umilez,
maitasun hori kantatuko da eliza baten ezkilez.
Jo nezatela azotez edo jo nezatela makilez,
bainan nik dutan amodioa ez dute hilen ni hilez.

Jainkoak berak hastiro ditu maitasunaren etsaiak,
Berak baitauzka amodiozko iturri zintzo nasaiak.
Otoizten dut nik kanbia ditzan nere aitaren idaiak,
ez ditzadatan aitarik gabe iragan nere eztaiak!

Ez nuen uste amodiotan trabarik zitaken guaita,
Jainkoak berak erran baitauku: «Bihotzetik elgar maita!».
Anaier anai ezin erran ta Jaunari erranez Aita,
nere aitaren molde berean gezurrez artzea baita!

Nere kasuan gertatzen zaitzun semea edo alaba,
amodioan hartu bidetik ez zazula otoi traba.
Orroit bakarrik gutarik zonbat mundura zitazken salba,
Jainkoak berdin trabatu izan balitu Adam ta Eba?

Gizonak berak bere burua hola dezake errautsi,
elizan Jauna adora eta etxean debrurat jautsi.
Jainkoak berak egin duena gizonak ezin du hautsi,
ene ezkontzak asko jenderi hau behar du erakutsi.

Herria, 1979.04.26

Kontrabandixta

Kontrabandixtak ere baditugu ainitz,
guardarik ez litake hoitarik ez balitz.
Afera ona nuen, egonki naiz irriz,
atzo goizean nihaur guarda izan bainitz.

Kontrabandixta ezin da izan urosa,
arrangura baitago gaixo malurosa.
Beldurrean bizi den arima peilosa,
kofesorra gogoan den bekatorosa.

Guziak beldurgarri kontrabandixtentzat,
iringarri ditake barrandorientzat.
Hastapenak nolatsu diren horientzat,
ote tustak dituzte maiz hartzen guardentzat.

Arras neke gogoa beldurraz hustea,
deus ez delarik ere zerbaiten ustea...
Beldur dira gauean gaizki ikustea:
guarda bat berdin ote tustentzat uztea!

Atzo aintzinerat zaut gizon bat etorri.
«Ez naiz deuseren beldur» entzun diot horri.
Egia izan balitz erran duen hori,
ez zituen izanen koloreak gorri!

Guardian nindagola haren solaseri:
«Ohartu ote zaizte goizean deuseri?».
Irria bera zauntan eskapatu neri,
bekatua baitzuen kopetan ageri.

Kontrabandixta beti griñatua dabil,
bat hatzemaña bada bertzeak zoin umil!
Lagunak saldu baino nahiago du hil,
bizia galtzeraino diruaren mutil!

Holatsu erran zautan zerbait zakienak:
«Guardek ez dituzkete esku garbienak.
Batzutan berak dira naski abilenak,
bai eta ere kontrabandixt haundienak!».

Herria, 1979.09.13

Herritik doatzineri

Doinua: *Ttiki ttikitik*

Sor lekua ta Euskal Herria maite ditutzu biziki,
bainan «nik maite dut» erraitea nere ustez ez da aski!
Lur sakratu hau nahi badugu izan dadien hobeki,
harekin egon behar da eta herria xutik atxiki.

Herriarentzat gure bizia oso osoki emanaz,
edertu eta zaindu behar da gure izerdi ta lanez.
Solas guzietz zure herria maite duzula erranez,
uste duzia zerbitzatzea hartarik urrun joanez?

Beren etxea uzten dutenek ez deraukute salatzen
bide orotan erretxenari direla airoski lotzen?
Zonbat arrazoin eta aitzaki ote dituzte bilatzen?
Beren ohantze gozoak duen mina ez dute zilatzen!

Lan eskasia dugula edo hobeki nahian bizi,
beren tokitik begiak xabal itsumenduka doatzi.
Ohartu gabe hazi-lekua bakarrik dutela utzi,
heien maitasun inguramena ez ote zuen merezi?

Bixtan da lurrak ez du egiten ez oiuhu ta ez garrasi,
hargatik ongi senditzen duke gizona dela nahasi.
Herri maitatzen noiz behar ote da funtsezkiago hasi,
ez bada nahi gero ikusi dena lapar eta sasi?

Artatzaleak urrun doazko, zeren ondotik dabilta?
Dirua gatik sal lezazkete arima eta bihotza.
Diruak baitu eskuan hartu gure buru muinen giltza,
haren dirdirak estaltzen dauku aintzineko hedoi beltza.

Nork bere etxeko lurra baino kanpokoa nahiago,
auzoko salda ere etxeko salda baino hobeago.
Neri etzauta iduri gauzik hori baino trixteago:
landareak desterratu eta ote du fruitu geiago?

Inozentzia hori egiten duenari nauzu mintzo,
ohart dadin bere urratsetan berarekin denetz zintzo.
Berantegi da bihar artea: «Ai, zer egin dut nik atzo?».
Erroak lurretik atera ta egoitea heieri so!

Haurtasuna ta gaztetasuna emanik zorionian,
farandoletan, kantu ta dantza, beti omore onian,
sorlekuak bere esperantza dauka gazte dagonian;
otoizten zaitu: «Ez nazula utz ene azken agonian».

Iguzkia noiz nagusituko ote zaiku izotzari?
Udaberria noiz etorriko da nausi negu hotzari?
Diru indarra nagusi bada gizonaren bihotzari,
jakin gabeen sort-etxea du eskaintzen heriotzari!

Hegalak sendi orduko baitu xoriak uzten kafira,
gero kafirak arbola hoitan usteltzen egoiten dira.
Gu hazi eta herria berdin egoiten zauku begira,
guk zorrak hari ordaindu gabe urrun joaiten bagira!

Herria, 1980.09.04

Gezurra

Gaia emanta kantatu bertsua

Gauza ederrak eta gauza txarrak berdin,
gezurrarekin biak baiditazke egin.
Gezurrarekin eman ditazke ainitz min,
bainan halaber egin ditaik e atsegín;
gezurra nola erran behar laike jakín.

Ez da konfiantzarik gezurki hutsean,
zango laburrak ditu hain bide luzean.
Gezurra pollita da bide kurutzean,
tratua egin edo zerbeit burutzean;
gauza pollitena da gezurra musean.

Inoxenten egunak dira pollitenak,
ezin ahantzizkoak apiril lehenak.
Orduan dira naski arrain haundienak,
gezurka hasten dira gutiz gehienak,
egun hortan gezurti dira naski denak.

Larrazkena

Doinua: *Xenpelarren Betroiarena*

Gaia emanta kantatu bertsuak

Urteko sasoinetan da hirugarrena,
uzta biltzeko ez da segur txarrena.
Hostoen erortzeak emaiten du pena,
bainan ez horri beha, har itxaropena.
 Batzuk larrazkena,
 bertzek udazkena
 deitzen daukutena
 pozgarri da dena,
baita urtean den sasoin ederrena.

Sasoin ederrena da, nork ez du aitortzen?
Hainbat uzta barnera noiz da etortzen?
Iratzepean zonbeit onddo dira sortzen,
intzaur, ezkur ta gaztain lurrerat erortzen;
 artoak idortzen
 ta mahatsak ontzen,
 gazteak moxkortzen,
 xaharrak konkortzen;
udaren ondotik larrazkena hor zen.

Bere gau luze eta egun laburrekin
larrazken ezti goxo maitea da jin.
Ihiztariak ere pena ta atsegin:
batean urtxoak hil, bestean hutsegin.
 Bere on gaitzekin
 guretzat da berdin:
 ile xuriekin
 eta deusik ezin;
larrazkenaz pozik, negu beltza aintzin.

Jada urte bat pasa juan zinen mündütik,
geroztik nula giren behazü zelütik.
Bai, Ziberun euskara orano da xütik,
lüzamena üken dü zühauren eskütik.

Zure omenaldi bat egin berri beita,
orano hor gütützü maita eta maita.
Zü beitzüntügün gure olerkari aita,
zü beizik nihur etzen egün hortan falta.

Egin izan dütützün lan güzien sari,
orhit harri bat dügü züretzat ezarri.
Dakigü ez zinela hunbestez egarri,
orhitzapen bat nahi gineitzün ekarri.

Zelü eta lürrian hor zira, Etxahun,
zure bizitasuna bera da ezagün,
zure kantu eijerrak begira ditzagün,
zure erakaspena jarraiki dezagün.

Erletan langilena dakit züntügüla,
kofoina eztiz bete ützi deiküzüla.
Zuin olerkari fina ahuan txürüla!
Zure obrak ez dira galdüko sekula.

Zure kantu garbiek xoratzen bazterrak,
zure zortzi pastual zuin diren eijerrak!
Eüskaraz mintza bite Ziberoko haurrak,
zure hatsa daukano Ziberoko lürrak.

Zure kantak plazala bitza gazteriak,
ta zure pastualak agertü herriak,
elkhi dütin mündilat euskaldün txoriak,
Ziberoak sort ditzan koblari berriak.

Hunbeste aide eijer eman düzü guri,
zure erri ezta deiküzü ixuri.
Zur'ordainak sor bitez, Etxahun Iruri!
Nurk ez lüke nahiko izan zü üdüri.

Egia aitortzeko badit aski adin:
zindela txori erretxinularen berdin,
üda ta negü kantan gozo eta arin,
Ziberoko euskara bizi egon dadin.

Hortakotz kantügintzan zünien gogua,
paregabea zinen, erran gabe doa.
Beti kantatüko da "Agur, Ziberoa",
Ziberoan ez dadin gal üskaldungua.

(1980)

Airea: berak egin zuen: "Ondarrabia ta Donostia, ere bai Bilbao"

Errepika

Bihotz guziaz maite zütügu, Etxahun Iruri,
hainbeste kantu eta pastual eman duzu guri.
Üskara gatik egin züntien lan guzien sari
kantu txapelketa hau deitzügu ekarri. (bis)

Xori errexiñula maite baten berdin,
hainbeste üskal kantu eijer duzu egin,
Ziberoko üskara bizi egon dadin.
Aire polliten sortzaile goxo eta arin,
etzütügu sekulan aztuko Euskadin.

Errepika

Zure kantu eijerrek xoratzen bazterrak,
denetan trebe dira gazte ta xaharrak.
Ta zure pastualak zuiñ diren eijerrak!
Poeta bat eman beitu Iruriko lurrak,
egun zor diozkagu bihotzez eskerrak!

Errepika

Etxahun, zurekilan daukagu gogua,
gizon goxua zinen ta bihotz berua.
Zure soñuz deiküzü eijertu gerua,
orotan kantatzen beita "Agur, Ziberua",
gora Etxahun eta Iruri xokua

Errepika

Etxahun Barkoxe ta Etxahun Iruri,
gure beira direla beitzeiku iduri.
Hainbat kantu ta bertset dütie ixuri,
txaloak jo ditzagun Barkoxen bieri.

Bi Etxahun handiak guk ezin ahantzi;
bieri agur, ospe, goresmen, goraintzi.
Lan eijerrak zütien guretako ützi,
bien orhitzapena gu beitan da bizi.

Hunhar, entzule onak, esker beruena,
jujarien kondu da gure xantza dena.
Hartzen balinbadugu Iruriko treina,
han agertuko dugu kantu eijerrena.

Iruriko treinian girenez sartuko,
hanko txartela hemen dugunez hartuko,
hanitz denbora gabe zaiku agertuko;
gu prest gira gogotik zien zerbütüko.

Badakigu ez gire Nico bezin trebe,
funtsian beretako hola aise hobe.
Iruriko billeten ez baigira jabe,
huñez junen gütützü treiñan sartu gabe.

Iruriko pestarako

Barkoxen zendako debru
guri zinuen bozkatu?
Irurikotzat kantu eijerrik ez dugu prestatu.
Gu finalerat pasatu
ta hobeak kanporatu;
zuen bürik ta gu ere gira eijerki tronpatu.

Ez dela Mañex aldetik
haize eta jende hunik,
xaharren ganik aspaldi danik beituñü entzunik.
Alta gaur ez balitz jinik
Manexeko euskaldunik
Iuririn ez zen antolatuko holako egunik.

Egun beita txapelketa,
bidean zonbeit kaxketa,
buru ttipia beituñü bena den hura beteta.
Zortzi ximino gira-ta
ez gureztat deusik presta,
ximinoentzat aski baitira zonbeit kakaueta.

Ximino gira zortziak
ta ziek gure kusiak,
euskal kantore eijerrak maitez bilduak guziak.
Xiberotar bereziak
edo manex itsusiak,
denak anaiak gira ta gora zazpi probintziak!

Jin beharrak ginen huñez,
sartu gütizie treñez,
beldurrik gabe jinen ginen gu berdin abiunez,
ziekin pesta eginez,
goxatzeko kantu hunez,
ahal duguna eman ez eta hobeak entzunez.

Xiberuan zer da falta?
Hautetsier zazu galta,
gaur ere denak guri so dira rugbia utzi-ta.
San Antoni kaskun beita
re-emetteur bat pollita,
etxe orotan ikusten dute euskal telebixta.

“Xiberoko botza” ere
beti goiz ta arratsalde
etxe orotan entzuten dute ta lorian daude.
Euskal kulturaren alde
mera guziak baitire,
kultura mailan laguntzik gabe izanen ez gire.

Kontseilariak aiosik,
alegera ta urosik,
ez dela falta *subventionik*, prima eta sosik.
Ez da beraz falta deusik,
denak baditugu kasik,
ez dugu ere gure aldean lantegi eskasik.

Bena egun beita pesta,
bildurik hanitx artixta,
ez ditzagula asto handiak gibel aldin xixta.
Jendea ohartu beita
zoin dugun bide pollita,
Iruriraino eijer ta zabal dela autopixta.

Gaurko gure zirka tiki
huntan finitzen da naski;
gu ùskaldunen bizkar bizi da ximinorik aski.
Horien bai egiazki
ximino dira izanki,
horien kausaz da ùskara ta kultura hain gaizki.

Agur, anai euskaldunak,
jende goxo bihozduak,
kantua maitez Iruriraino jinak zireztenak.
Hau bezelako egunak
dira behar ditugunak.
Entzule onak, zuek zirezte gaurko txapeldunak.

Gure zirkaren bitarte,
alegera edo trixte,
gisa bat edo beste nolazpeit gelditu zirezte.
Agur, xahar eta gazte,
xiberotar ala beste,
agur, entzule maiteak, eta bertzaldi bat arte.

Nere herriaz ez naiz ariko nolako den espantuka,
herri pollita dela nehola nehork ez dezake uka.
Nahiz bakotxak berea nehoiz bertzeekin ez liron truka,
ni neureari banoakio zordun bezala bertsuka.

Sort-herriari mintzatu nahi diot arats apalean,
nere mintzoa ezagutua da hunen lur zabalean.
Sortu orduko nere nigarra entzun zen Ospitalean,
Heletargoa nitan sartu zen bere haur euskaltzalean.

Bertze herriak baino gorago ezarri zaitut zu mila,
zuk ere jakin izan zinuen goreslea ni nun bila.
Galdatu izan nauzun guziez hor nintzan umil umila,
esker onezko sendimenduez josia zaitzun mutila.

Gaur urgulutan jartzen ahal naiz, bai, sekulan jartzekotan,
esker biziak hartze dituzu nitarik deus hartzekotan.
Ene bihotza agertzen dautzut zuhauren azkartzekotan,
ez dut nihola kantatu nahi deus nihauri artzekotan.

Herri maitea, ez dakit xuxen zonbat denbora elgarri
beha egonak giren pentsatuz Jainkoak zer du ekarri?
Zuk hartze duzun semea ote nauen munduan ezarri,
hobe diozu galdegitea Jesus onari berari.

Heletak dauzkit neri emaiten egiazko alaidurak,
sort-herriari zor ditut nere ongiak eta jaidurak.
Herritik kanpo akabo dira ni baitako lasaidurak,
neure barneko berri guziak ongi badazki Baigurak.

Ez dakit nola azal, herria, egin dautazun ospea,
ta nola argi neri galdezka hor dagon jende ostea.
Dirutan ere neke da nere herriaren erosteia,
eta ni egin nauen neurrian bertze norbaiten poztea.

Hobekiago herria maite desterruan bizitzean,
etxearentzat amodioa emendatzen izitzean.
Heletarentzat leial egonen naiz beti nere hitzean,
ez naiz sartuko herriaz arta ez duten mundu hitsean.

Bere herria maiteagotzen baita hartaz gabetzean,
etxetik urrun etortzen diren sendimenez jabetzean.
Bizi naizeno eta hil-eta har nezazu babesean,
naizen guzia egon nahi dut beti zure sahetsean.

Herria, 1980.11.27

Lesakan

Lesakan, 1981ean, Nafarroako bertsularien xapeldun atera zen Mendiburu. Egun hartan eman gai bat:

–Euskal Herrian une larriak ditugu orai. Euskaldunak berak ere, herria bezala, zatikaturik daude. Zuk, Mendiburu, zer diozu eta zeren edo noren inguruan bil zinezake jendea? Zer kantatzen diozu euskaldun populu osoari?

Mendiburuk:

Une larriak ditugu eta ez nago ixil ixila,
entzuten dut ta bihotza joiten gure hil zeinu ezkila.
Entzun dutanaz anaia bere anaien aurka dabila,
batera bildu gaiten ta atxik etsaiendako makila.

Batera bildu herrian alde, ordua jina da orai,
hizkuntza eta herria bier erran dezagun bai ta bai.
Menderen mende denek dakigu garela gu zazpi anai,
ez da eguna, ez orai lotu anaiak elgarren etsai!

Zer bide bada nik sor diotan? Zer mirakuilu nik asma?
Elgarrekilan ereman behar gure herriaren zama!
Mundu guzira zabaldu dadin gure jendetasun fama,
beraz guk orai bere semek ez dezagun hil gure ama.

Beste gai bat: apeza zera. Meza denboran asto bat sartzen zaitzu elizan.
Mendiburuk:

Mezan ninduzun, meza ederra bainuen ere emango,
nahiz elizan, beti bezala, ez zagon, ez, jende frango.
Oilo xahar bat bazagon eta naski ziren hiru mando,
ta orai asto bat ere naski gure erdian badago,
eliza huntan asto guziek ez duzte egun lau zango.

Betleemeko asto pollita Jesusek eman idaia,
elizaraino gaur egiteko girixtinoki bidaia.
Zu euskalduna zira, badakit; ez arrotz zure bisaia.
Zu ikusi ta apez hau hemen dago gaur alai alaia,
aldare goitik pean ikusten baitu gaur bere anaia.

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Lehen agurra:

Esku muinak guziera eskaini ondoan,
malezia handi bat dut gaur ene gogoan:
Ezponda da Lapurdiko Ahetze xokoan,
Koxe Miel Donostian, beraz Gipuzkoan,
Michel Aire aurten artzain dugu Xiberoan,
ai, txapela, aurten geldi hadi Nafarroan.

Gaia: baserriak du bertsolaritza eusten (begiratzen).

Gai eder hori, Muxika, egun ateratu dautazu hor,
baserrietan bertsulariak errexki ditaizkela sor.
Hala gintuen bai Mattin zena, bai ere gaixo Xalbador,
nik ere naski baserria dut ohantzetzat orai aitor,
dutan dohaina baserriari ta Jainkoari ditut zor.

Bertsularien hazi ederrak baserrietan erainak,
hiriek egun eman bitzate baserri hoiene ordainak.
Bainan ez pentsa akusamenduz kantatzen tudan gordainak,
dohainez neri baserriak tu bertsuz gaur bete ezpainak,
bertsu sortzeko zoragarriak baitira baserri gainak.

Baserriari zordun naizela kantari bai nintzan mutil,
zu, hiritarra, ez gaizki hartu bai mutil ta bai neskatil.
Bakotxa bere hura laudatuz mundu hauetan baidabil,
baserritako bertsu ederren kantari ez nago ixil,
baserriaren alde bizi naiz ta harentzat nahi dut hil.

Eskerrak, kopa eskuan:

Ez duzu pentsu zer atsegina dutan nik hemen gaurkoan,
anai arrebak, denak zaituztet bihotzean ta gogoan.
Lore ederrak primaderari xutitzen ikus ondoan,
esker beroak bertze deus ez dut nik gaur neure bihotz joan,
gora Nafarra eta txapela gelditu da Nafarroan!

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Naparra, zure lur eremuak itxaropenez beteak,
azkartu baizik ez ahal zaitu bi zatiretan hesteak.
Nun da xorora? Erran zuena: gu batzu eta besteak,
ez giradela odol bereko ama beraren semeak.

Bainan, Naparra, zure xedeak ez baitira hoin hertsiaik,
ez dugu nahi lur berak egon ditzen zatika hetsiak.
Zure semeak zure nahian ongi dituzu heziak,
arras debalde jarri dituzte gure arteko hesiak.

Bihotza eta burua biak berexiak ikustean,
bertzeak ere asaldatuko litazke nere ustean.
Naparra ere berdin baitzaude zure indarrez hustean,
traidorez beste deusik ez gira zure horrela uztean.

Zure gudari hoberen batzu preso edo eroriak,
eta zuretzat egun ederrak ez oraino etorriak.
Hala ere zuk baderauzkatzu zure gisako loriak,
kantu beretan entzuten tuzu bi aldetako xoriak.

Beti segurrak baitituzketzu seme onenen laguntzak,
zure alabak gelditu behar badirare alarguntsak.
Alde batetik bestera dabilten ardiak eta ahuntzak,
gizonek berdin egin bezate zozo geldi ditzen huntzak.

Naparra, zure lur sakratua martir odolez bustia,
bainan noizbait da goiz edo berant etorriko iguzkia.
Egia eta semeak maitez higuin baitzaizu gaizkia,
azal bekigu zure bihotzak agintzen duen guztia.

Soka bat eman izan zioten Naparroari lepotik,
Ipar alde hau nahiz baztertu Iruñatik ta Hegotik.
Beren ustean bermatu izan dira funski ta errotik,
uste baitzuten ur hotza hiltzen zela iturri berotik.

Naparroa bat baizik ez dela garbi datorkit gogora,
ta asma zazu zoin ederra zen bat gineneko denbora.
Bainan ez pentsa askatasuna berriz ez ditaiken lora,
lepotik dugun urka bilurra bota dezagun kanpora!

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Zendako uzten nauzu ta norat zoazi,
maitea, ene ganik horrela ihesi?
Etxekoek ez nahi nerekilan utzi...
Elgarrekin goxoki ginitazke bizi.

Euskaldun garbia naiz, ez besten izarra,
ta bizitzeko nuke, bai, zure beharra.
Zuk emaiten dauztatzu kemen ta indarra,
gostukoa zu zaitut munduan bakarra.

Itzal bat omen daukat eta zoin haundia:
sobera maite omen dut Euskal Herria.
Zer bekatu mortala gure aberria
maitatzea delakotz espantagarria!

Batzu ariko zaitzu beti bazterretik
nere ganik urrundu nahiz aintzinetik.
Emozute erantzun zuk ere aurretik:
maite nauzula maite ta bihotz barnetik.

Jenden erraneri so egon zaite irriz,
eta nere ondora etor zaite berriz.
Lehen bezain goxoki ni ganat etorritz,
zurekilan betikotz uros izanen niz.

Herria nik sobera maite dutalako,
zure aitamak ere otsoen pareko.
Ez ote gera gizon argiz agertzeko,
ta gure sorlekua ondo maitatzeko?

Ez egon jende batzun erraner begira,
jelosiaz gu bien traban ari dira.
Zato gustu gustuan gure baserrira,
elgarrekin goxoki biziko baigira.

Badakizu jendea zonbat den gaiztoa,
Satanen ganik dute batzuek xertoa.
Bazterren nahasteko daukaten gogoan
ez zirea ohartzen zonbat den xoroa?

Zaude nerekin eta etorri gustuan,
bero gaiten biak ber amodio suan.
Euskalduna deus ez da batzuen gogoan,
holakoak utz-kitzu etxetik kanpoan.

Herria, 1981.10.08

Biarritze hiria eder ta zabala,
“aberatsen herria” hori du itzala.
Garbitzalek badute han egin ahala,
xarriotan harturik jatsa eta pala.

Hiri pare gabea, garbi eta eder,
bazter ikusleari emaiten du plazer.
Zakur tantoak dira eskuin eta ezker,
halere garbia da langileri esker.

Hiriko enplegatu hor ari direnak,
euskaldunak ditazke naski gehienak.
Lanean usatuak dira ongi denak,
nahiz hor sartzen diren alfer haundienak.

Jatsutik etorriak ala Parisetik?
Begiratu naiz beti berer galdatzetik.
Nungo diren ageri dute urratsetik,
bai eta erabiltzen duten frantsesetik.

Ainitzek dute herri lan hori galdatu,
ez baita nola nahi herri enplegatu.
Batek astean jatsa omen du higatu,
ez ahal baita guti gainean bermatu!

Eskuetan pubelak, palak edo jatsak,
badakite noraino zuzendu urratsak.
Aberatsen deizteko galdatuz urtatsak,
ez baitira emanez egin aberatsak.

Denak atalatuak zoin beren lanetan,
goizean beti jeikiz tenore beretan.
Ontasunak egiten dira hirietan,
bertzen soberakinak bilduz pubeletan.

Nola artzaina baita artaldeari so,
zoin den ardi ñapurra ta zoin diren maltso,
Beheran berdin zagon plai hegian atzo,
ikusi nahiz zonbait debruaren auzo.

Langile hautak dira zoin beren maneran,
plaiia garbitzen dute ta behar dut erran:
usuago sartuko litazke kaperan¹,
sahetsetik begira ez balitz Beheran².

Langilek garbitzean plaiaren bazterrak,
plaiia hegian daude andere ederrak,
iguzkitan erradan ageri ixterrak;
horra zoin handi diren hiriko lanjerrak.

Urrundu beharko dut sujet hunetarik,
hiriko enplegatu euskaldunetarik.
Geiago trufa entzun lirete nitarik,
ene koinata bera ez balitz hoitarik.

Herria, 1977.12.08

1 Kaperan: ostatua. (*Herria*-ren oharra).

2 Beheran, beren omoniera. (Id.)

Euskal Herriaz kezkatua ta trixte nagon bakoitzean,
ohartu ere gabe hasten naiz Jainkoari otoitzean.
Ama Herria gaur nola dagon ikus eta orroitzean,
nigar xorta bat begietarat jautsi zaut egun goizean,
halare kantuz hastera noa pena aunitz bihotzean.

Pena haundia dut bihotzean, ta burua aldiz sutan,
bihotzak jotzen dautanez ere hunki izan dut batzutan.
Ditudan kezkek azaldu nahi derauzkitzuet bertsutan:
Euskal Herriko etorkizuna nolatsu ikusten dutan,
bai eta ere zer heinetako trixtura emaiten dautan.

Zer heinetako trixtura dautan emaiten Euskal Herriak,
kantari bainan gogoa trixte agertzen ditut berriak.
Ez nuen uste edo ez nahi gure euskal aberriak
sor zitzaizkela seme alabak hain flako eta eriak,
eritasuna goizik berekin du egungo gazteriak.

Gazteriaren eritasunak jotzen dauta bihotz barna,
bainan ez pentsa gaztiguz bete natorren horiengana.
Ez dira berez eriak sortu, ez gaiten hortan engana!
Alkola eta droga zaiote lanaren ordeiz emana,
sarraski hori zer ote daike ez bada Satanen lana?

Satanen lana beti izan da nahasketa ta gaizkia,
zer desmasiak egin dituen berak ere badazkia?
Penagarri da arbasok utzi herri hunen argazkia,
bi zati eta hamar pusketan ikus daiken marrazkia,
aro txar hunek noiz arte gorde behar dauku iguzkia?

Noiz agertuko da iguzkia, bentzutuz negu iluna?
Zuk zer diozu, ene anaia? Aitor adazu, laguna:
nik bezain ilun ikusten ote duzunetz etorkizuna?
Erdaldundua aurkitzen dut nik inguruko euskalduna!
Euskal Herriak, Ama maiteak, hurbil du azken eguna.

Azken eguna hurbil duela, beraz laster dela gorputz,
pentsu dutana, sendi dutana, erraitera nazula utz:
Euskadi berriz piztuko dela enetako da aments huts.
Azken arnasak botatuz doa, entzun zazu edo ikus
Ama Herria doakigula kanpo santuari buruz.

Kanpo santura zoazi, Ama, hauxe da bada zer kenka!
Zure hiltzeaz hobendun garen gogoratzen zaut noiztenka.
Ama maitea, guharen faltaz ote zaude hor auhenka?
Ezin bizi ta ezin hil ere, zure bizia noiz trenka?
Zer egin dirot? Mintza zakizkit nahiz zauden dolamenka!

Nahiz hor zauden dolamenetan mintza zaite, Ama, mintza,
otoi errazu guk nola senda zure bihotzeko pintza?
Zu salbatzeko zoin den bidea, zoin den hortako baldintza?
Gaur arte egin izan dautzugu hainbat promes ta agintza.
aitor zaguzu, Ama, zoin laiken zure gogoko egintza.

Zure gogoko egintza zoin den zergatik nago galdezka.
Burtxoratuen gisarat nabil bide onari iheska,
dakitalarik ongi zer diren zure nahia ta kezka.
Zure kezka da guk ez hartzea nahi zinduken bidexka;
zure nahia munduratzea aunitz mutil eta neska.

Zure nahia litaike aunitz haur bagintu munduratzen,
bainan zonbateg beren nahitan haurren sortzeak mugatzen.
Hortarik dator zure galtzea, ez naiz batere dudatzen.
Negu beltzean sartua zira, zure nahia uda zen,
erradatu bide berriak ahal dirennetz urratzen.

Bide berriak nola urratu, Ama Herria, dakizu,
zure geroa izan dadien ilunpen ordez argitsu.
Orai artean gelditu izan garenak elkor ta itsu,
ahuleziak nola menpera segetuak dazkitzu,
bortizkeria ta haurkeriaz jada baduzu askitsu!

Zure semeri zabal zaguzu daukazun adimendutik,
argi zirrinta begista duzu gaurko zero ilundutik.
Guri oharpen egiten ari zira eritu pundutik,
koperatibak zuhaurek guri ezar araziak xutik,
etzaut iduri guharen faltaz joanen zarela mundutik.

Joanen zarela, Ama, mundutik ez zazula otoi pentsa!
Lo-asma baten barnean nintzan, hauxe duk lo-asma mentsa!
Egizaturik ezarkidatzu, bederen une batentza,
batetik ene ikus moldea, bertzetik ene amentsa,
Ama maitea, sekula santan ez zaitzadatan ofentsa!

Herria, 1984-10, 18 eta 25

Bero daukat bihotza ta airos gogoan,
laneko lagun baten goastera noa:
Urepelen sortu Domingarrainekoa,
Hairako oihaneko onddo arraroa.

Aranbel ostatuan zerbitzun lehenik,
Joantorena Baigorriin egona geroztik.
Baionarat joan zinen gero Baigorritik,
ta Jeannot Arosteguy jin zautzun ondotik.

Gero egona zira Baiona hirian,
Cazenave izeneko xokolaterian;
ta gero sartu zinen Mauriac-tegian,
hoita hamasei urte egon ber tokian.

Eskualdunen karrikan, Tonnelier karrikan
senarra bi semekin edo bakarrikan;
ta orai Hiriburun etxe eder hartan,
goxoki bizi zaizte han Arbola pean.

Zerbitzu egina ta langile umila,
lagun maitagarria, goxo ta abila.
Arrailleria maite, omore on bila,
guretako zu zinen ama bat bezela.

Estimatua zinen lagunez denetaz,
bai eta gure kliant jende ainitzetaz.
Luzaz goza zaitela zure erretretaz,
jakizu orroituko girela gu zutaz.

Zure amentsa izan dadila betea:
trein gidariarekin etxen egoitea;
ta berdin abiunez urrun joaitea,
San Frantziskon kusia nun zen ikustea.

Haur hutsa zinenean galdu duzu aita,
ta zure ama aldiz oino bizi baita.
Hari ta etxeari egizu bisita,
Hairako oihanerat zoaz onddoketa.

Maite duzu mendia, mintzatzea ere;
bizia maite duzu, baduzu omore.
Arbola pean bada onjo eta lore,
oi Marie Jeanne maitea, agur ta ohore!

Marie Jeanne Martinez, orai Arosteguy,
bihotz ona duzu ta luzaz hola segi;
Urepeleko izar, Hiriburun argi,
milesker denen partez eta bizi ongi.

Xanti Lazkano zenari

Airea: *Etzian aberatsa*

Hau duk une trixtea,
leku hunetan izaitea
gure begitarte!
Mila nigar malkoz betea,
Xanti lagun maitea,
hiri hemen agur egitea!

*Ez hintzen aberatsa,
ez hintzen pobrea,
bainan hire bihotza
zer urrezko kaliza!*

Oraino hintzen gazte:
hogoi ta hemezortzi urte;
nehork etzian uste,
moto ixtripu bat suerte.
Xanti Lazkano maite,
joan hindaken gitarik aparte.

Hain trixte egundaino
izan ote gara gaur baino?
Gogo dena laino,
ta negarra bihotzeraino,
xirrindulari baño
joan baitzauku bertze munduraino.

Zer berri txar iluna!
Nork esango zuen sekula
Xanti gure laguna
hoin gazterik joango zaikula?
Anaia euskalduna,
orroit zaite maite zaitugula.

Jakitean berria
Xanti Lazkano hila dela,
trixtatu da herria,
nork esan hola hilko zela?
Ai, txirrindularia
itzali da argia bezela.

Oi zer ordu iluna
orain iragaiten duguna!
Xanti Lazkano jauna,
gure anaia euskalduna,
abertzale kuttuna,
goza zazu goi askatasuna!

Pantxo Carrere-k galdaturik eginak,
1984ko urtean uste dut.

Adixkide maiteak
J. L. Harignordoquy eta Maite

Espos maiteak, entzun nere parabola:
gaur loratzen hasten da zuen arbola.
Orroit herria zuen haiduru dagola,
ez zazuela uka iñoiz ta iñola.

Herriaz axola
duzue ta nola
atxik beti hola
euskaldun odola,
ta euskal xoriz bete zuen kaiola!

1985.03.30

Bertsularitza

Airea: Xarmegarria zira, eder eta gazte

Bertsularitza bada menderen mendetan,
Euskal Herrian eta beste lur aldetan.
Testament Zaharrean lerro guzietan
Mois ta Dabid ari ziren bertsuetan.

Testament Berrian zen Zimeon zaharra
Zakariasekila poeta zilarra.
Ez urgulutan sartu, euskaldun izarra,
bertsu kirola ez da gurea bakarra.

Bertsu moldea ere bazagon Grezian,
kultura bide hori bazen Zizilian,
Birgilio poeta bazen Italian,
beraz bertsua bizi zen mundu guzian.

Bertsularitza bizi da Euskal Herrian,
bai eta ere omen bada Galizian,
Andaluzian eta Hibiz alderdian,
Apanistanen, berdin Arabian.

Euskal Herritik kanpo baitugu ikusi,
orai Euskal Herrirat gaiten beraz jautsi.
Ehunka bertsulari daike hemen kausi,
beraz Euskal Herria da hortan nagusi.

Batzu bertsu kantari, bertzeak idazle,
hala nola Etxahun, Bilintx ta Otxalde,
Xenpelar, Bordaxuri, Dibarrart, Larralde,
zonbat ez da bermatu bertsuaren alde!

Zazpi probintzietan hainbat bertsulari,
mila bertsu eginik zaizkigu itzali,
ta beste asko gira lotu lan berari.
Gora bertsularitza ta gora Euskadi!

1985ean

* * *

Noizkoa dugun bertsularitza bazaudena gogoetan,
xehetasunak ekarri nahi daitzugu zinta hunetan.
Bertsularitza ez da mugatzen bekarrik euskal lurretan
bainan bizi da oraino ere ainixko erresumetan,
Galizian ta Andaluzian, Arabian ta bestetan.

Testament Zaharrean aipu dira haunitz,
bertsulari bezala Dabid eta Mois.
Ta Testament Berrian aipu dira aldiz
Zakarias ta Zimeon, xuxen orroit baniz.

Bertsularitza bizi zen mundu guzian,
ta azkarrenik naski omen zen Grezian.
Bertsulari asko zen ere Zizilian,
ta diotenaz ere berdin Italian.

Bilintx, Etxahun, Iparragirre, Dibarrart eta Otxalde,
eskola dunak izan dira ta ainitz aipatuak daude.
Aldiz Xenpelar, Ardotz, Lexoti, ziren eskolarik gabe,
Bekotxia ta Eperra ere ez dira egon debalde,
denak bermatu izan baitira euskal pertsuaren alde.

Txirrita famatua ta Pello Errota,
Udarregik ere du zonbeit bertsu bota.
Patxi Bakallo ere faman badago ta
Sailburu ta Txapeli nork hets ziron borta?

Seme sortu berriari

Laurogoi ta bosteko agorril hamekan,
Ximun, seme maitea, zinitugun ukan.
Burrasoen loria haurtxo bat sehaskan,
holako atseginak dira arras bekan.

Ximun, zure sortzeak aita ta amari
oso bizi berri bat derauku ekarri.
Bertzelaturik dauku etxea ezarri,
argi berri bat duzu piztu etxeari.

Ximun, zu zira gure izar berezia,
zure oihu, nigar ta zure garrasia,
horiekin betetzen daukuzu bizia,
zuri esker da gure etxeko grazia.

Ximun, zu jinez geroz gira gu ohartzen:
zurekilan euskara etxean da sartzen;
zuri esker da gure hizkuntza indartzen,
zurekilan euskaraz gira beti artzen.

Ximun, gure semea etorri berria,
maita zazu etxea ta maita herria.
Atxik azu bizirik gure Euskal Herria,
indartsu egon dadin euskal aberria.

Abertzalegoaren indartzeko lagun,
osagarri ta xantza izan zazu, Ximun.
Heian zuk egun batez ikusiko duzun
Euskal Herri sendo bat osoki euskaldun.

Manuel Lasarte bertsulariari

Gure Manuel Lasarte maite sortua da hemen Leitzan,
eta poz haundi nuke bertsu hok nere ahotik har ditzan.
Zoin haundi zautan, zoin maite dutan berak entzuteko gisan,
plaza gizon bat paregabea, berdin kartsua elizan,
haren neurriko bertsularirik nik uste guti da izan.

Lasarte Leitzan sortu zen eta naski bizi da Orion,
eta eskaini nahi diozkat bihotzez mila zorion.
Erran dut jada plazako eta elizako da berdin on,
agian luzaz gure artean kantari dadila egon,
goi bertsulari batetik eta bertzetik funtsezko gizon.

Zuk ni ez dakit, bainan berdin du; Lasarte, nik zaitut maite,
eta zuk maite ez banauzu ni barkatzaile izan zaite.
Alabainan da Euskadin barna hainbat idai ta izaite,
gisa guziez nafar odola gure zainetan ditaie,
hargatik ere nere bertsuak onar itzazu, Lasarte.

Zure sehaska Leitza herri hau edo zure ohakoa,
errespetu ta maitasunekin bota diot behakoa.
Ez zaut iduri eman dion bat zu zaren bezalakoa,
ez baita mende guziez sortzen bertze batto holakoa,
bertsulari ta gizona zira ta gainerat nolakoa!

Bi potreteri so

Duela hamar bat urte edo gehiago, Elixabet Gereziatako ene koinatak, bi potret erakutsiz, gai hau eman zautan lau bertsu idatziz segidan egiteko: Huna argazki huntan gure auzoak beren hamabi hurrekin, eta huna beste argazki huntan gu gure lau hurrekin. Eta segidan eman zauztan papera eta eztilo bat, eta hauek atera nituen.

Pentsatzea geiago holako gai ona,
bi potreteri so naiz lorian egona.
Lau hurrekin duzue zuen zoriona,
langileago baitzen auzoan dagona,
oilorrek egin du xitoez dotzena.

Haurrik gabea baita zoin dohakabea,
horren erraiteko naiz kasik herabea.
Allocationen gatik zen arras trebea,
ez zitaken segurra kuraia gabea,
oilarra ere zuken zuk baino hobea.

Hori da egiazki emazte modela,
diote haurrer bizi eman behar dela.
Horren amodioa ez dago epela,
hamabi aldiz bete izan du sabela,
merezitua duke urrezko medela.

Kondata ditut xuxen dotzenan hamabi,
zuk zer pentsatzen duzun mintza zaitte garbi.
Lau hurrekin gelditu, baduzula aski;
utziz gure auzoa lan hortan nagusi,
dolu balinbaduzu ez da berantegi.

Gora Muskildi!

Hona Muskildin eman zen pastoral ederraren oroitzapen bat gerokoentzat.

Doinua: *Amerika hortako esne saltzaileak.*

Uztail hoitazortzian, agorri hamekan,
ikusi dutan gauza ikusten da bekan.
Muskildin dut bi aldiz zer plazerra ukan!
Milaka euskaltzale amaren seaskan,
zer abertzale onak Xuberoak dauzkan!

Muskildiko herria ttipi ta apala,
bainan zonbat haundia barneko ahala!
Haren bihotza ere eder ta zabala...
Ikustean Muskildin eman Pastuala,
uste nuen zeruko gainetan nintzala!

Ederra da, Muskildi, zuretzat geroa,
balinbaduzu beti hoin bihotz beroa.
Batetara ditutzu ipar ta hegoa,
anaitasunezkoa da zure gogoa,
gora Muskildi eta gora Xuberoa!

Muskildik etsenplua eman dauku aurten
populu bat ez dela nola nahi hausten.
Zanpaturik ere du fermuki irauten,
pastualean hori zaukuten erraiten,
erakaspén hoberik nork dauku emaiten?

Allande d'Oihenarte Xuberotar fina,
euskalduner hainbeste laguntza egina.
Preso ere egona da gauza jakina,
lehen ere hola zen libratu ezina,
gaur ere berdín da ta jo beti aintzina!

Zazpi euskal herrien hegaletan gaindi
askatasun nahia denetan da sendi.
Irabaz arte ezin da herri bat geldi,
zer etsenplua eman daukuzun, Muskildi!
Gu denen bihotzetan barna egon bedi.

Muskildiko gazteak, Muskildiko haurrak,
atxik aitamen ganik eskuratu lurrak.
Ez utz nagusitzerat hemen kanpotarrak,
batetara'zkitzue guzien indarrak,
Xuberon bizi ditzen goi xuberotarrak.

Muskildin pasa ditut hainbat aratsalde,
ez baitzeraut dolutu, ez baitzen debalde.
Lagunek egin izan dautelarik galde:
«Xuberoko partean zer modutan daude?»,
ihardetsi diotet: «Herriaren alde!».

Beraz elgarrekilan goazen burura,
sekulan galdu gabe euskaldun itxura.
Herria salbatzea dugu arrangura,
bizi atxikitzea euskaldun kultura,
euskara baita gure iturriko ura!

Xuberotar hizkuntza hain ederra baita,
liliak bezain untsa zazueta arta.
Galtzen bada izanen baita zuen falta;
hain mintzaira ederra bertze nihun ez ta,
beraz salba zazue, lagunt eta maita!

Agur eta ohore, Muskildi herria,
enetako ez zira ezagun berria.
Beti goretsiko dut zure gazteria,
goratzen duen arte Euskal Aberria,
gora Muskildi, herri amiragarria!

1985.10-19 / Herria, 1985.12.19

Baxenabarren dut zango bat ta Ziberoan dut bestea,
Muskildi herri pollitean dut nere arreba maitea.
Zer atsegina bi probintziren seme betan izaitea,
pentsatu beraz nolatsu nagon plazer haundiez betea.

Nere arreba gazterik joan zen sasoinlarigoz Lurdera,
bertze ainixko gazte bezala sasoinaren egitera.
Ezagutu ta maitatu ere zuen horgo kozinera,
ta elgarrekin xutik ezarri dute Muskildin *Xixtera*.

Bai Lurden eta Parisen gaindi hainbat lan egin ondoan,
Euskal Herriko amodioa atxikiz bihotz xokoan,
sor leku huntan lan egitea baizik ez zuten gogoan,
herri maitasun horrek kokatu ditu ongi Xuberoan.

Nere arreba Heletan sortu, bere senarra Pagolan,
zonbeit izerdi ta nigar utzi dute Pariseren zolan.
Euskal xoria ez baita eina preso sartzeko kaiolan,
berriz kantari huna nun dagon goxoki euskal arbolan.

Beren izerdiz Muskildin egin zuten ostatu berria,
zonbat aldiz hor ez dut hatzeman kantuz euskal gazteria.
Xixtera-n laister sortzen da plazer, irri ta arrailleria,
hortakotz diot Muskildi dela nere bigarren herria.

Ospitaleko alaba hor da edangiaren hegian,
bihotza dauka eskuan eta irri ezti bat begian.
Senar Pierrak erroak ditu Pagola Irulegian,
hoien artean urus naiz nola errege bat jauregian.

Seme bat dute, Alain deitzen da, mutiko xoragarria;
Xubero eta manexa mintzo, euskaldun seme garbia.
Kantua maite, dantza ere bai, gainerat pilotaria,
aitamek bezain leialki maita dezala Euskal Herria.

Denek ez dute ohantze eder batean sortzeko xantza,
nahiz ederrak eder lan duen bada harekin nun dantza.
Batzutan loa gutzizatzen ta etxean arramantza,
bainan halare jarraik aitamer, hi haiz heien esperantza.



Ene lehen liburua

Ai iguzkia!

Heletan, 1986ko apirilaren 20an, Nafarroako Bertsulari Txapelketan, Mendibururi lau oinak: *usaia, lasaia, etsaia, zelaia*.

Mendiburuk:

Sort etxe polita dut ta toki zelaia,
Ospitalean bizi naiz lasai lasaia.
Eta ordokietan baitut nik usaia,
patar edo aldapa dut nere etsaia.

Kartzelako gaia: goizean jeikitzen ari den iguzkiari hiru bertsu.

Mendiburuk:

Ai iguzkia, zabaltzen daitzut zabal zabalik atear,
plazer haundia egiten dauta zurekilan izaiteak,
gauko belztura ta hoztasuna joan ta hola egoiteak.
aharrak ala gazteak,
gizon eta emazteak,
laborariak, artzainak eta komertsant eta besteak,
zuk gu ezartzen gaituzu beti zorionetan beteak.

Ai iguzkia, begira nago zure edertasun horri,
nun zinen bada gordea eta nundik zaizkigu etorri?
Egun argia piztu da eta gau beltz iluna erori.
Zira primadera xori,
argi garbi eta gorri.

Izan zaitela zahar ta gazte zu beti gure sokorri,
esperantza ta berotasuna baitauzkigutzu ekarri.

Negu beltzean sendi ginuen hoztasuna eta latza,
ta primaderan berriz piztu da gure etxeko baratza.
Ai iguzkia, ongi etorri, kanta zazu eta dantza,
lorezta bekigu haitza,
gure kulturen emaitza,
argi printzaren edertasuna edo herri hunen giltza.
Ai iguzkia, bero gaitzazu, zira gure esperantza.

Eskola utzi nahi duen semeari

Donezteben, Nafarroako Finalean, 1986.05.04an.

Gaia: eskola hamalau urtetan utzi nahi duen zure semeari hiru bertsu
Mendiburuk:

Ai zu, semea, zu bezalako batzu badira askotan:
erdal eskola arrotzu hoiek alderaino uztekotan.
Zu ere naski erran dautazu zaudela horren asmotan.
 Guhauren etxeko bortan,
 neure ama ondo hortan,
zu ikusita lasaitutzen naiz ta gauza hau dut gogotan:
etxean egon zaitetz nerekin etxea salbatzekotan.

Idaia ona, xede zintzoa zu baitara da etorri,
gogo kontrara nik eskolara etzaitut nahi igorri,
frantses eskola ez baitago gaur xuri, perde eta gorri.
 Begira nindagon horri,
 ez dela gure sokorri,
ta haren sare galgarrietan ez duzu nahi erori.
Zure xedea opatzen dut gaur euskaldun seme orori.

Euskaltzale ta euskaldun suhar badakit hemen nagola,
eta semea berdin berdina aita iduri dagola.
Zu entzun eta hasarretuko ez naiz nehoiz ta nehola.
 Euskaraz duzu axola,
 jarraik zazu beraz hola,
beti atxikiz euskal hizkuntza eta euskaldun odola,
loratu dadin berriro ere Gernikan dugun arbola.

Terexa Bizkai zendu berriari

Terexa Bizkai, zendu berria, guziek zintugun maite,
zu gabe zonbat trixterik gauden zerutik beha jar zaite.
Zure joaiteak gure bihotzak urratu ditu bi parte.
ta gure pena ez da galduko zure ondorat jin arte.

Terexa Bizkai, zure hoin laster joaiteaz trixterik gaude,
bainan zuk eman etsenplu onak gure gogoetan gaude.
Zure munduko itzuli hori ez da izana debalde,
beti agertu zira Euskadi eta euskararen alde.

Manifestaldi batzutan ere ikusi zaitugu xutik,
zuk eman duzun etsenplu ona emaiten daukute gutik.
Hogoi bat urte goizegi, Terex, joan izan zira mundutik,
bainan halare abertzaleak lagun gaitzazu zerutik.

Agur ta erdi, Terexa Bizkai, heletar euskaltzalea,
gure arteko etsenplu on ta erakaspem emalea.
Funtsezko andre bihotzekoa ta emazte langilea,
nehoiz ahanzi ez dezakegun amatxi abertzalea.

Guziendako peningarri zen zure bet betan joaitea,
nahiagoko zinitugun gaur gutartean ikustea.
Zu baitzintugun paregabeko egiazko emaztea,
zeruan berriz ikusi arte, agur Terexa maitea!

Heletan, 1986 ekaina.

Bertsotako gostuak nundik badatorzkit?
Ama Euskal Herriak berak eman dauzkit.
Nun, noiz ta nola hasi ez gaitela akit,
nihaurek ere xuxen deusik ez baidakit.

Haur haurretik ni baitan zerbeit nuen sendi,
kantuz banindabilan beti mendiz mendi.
Orai ezin hasia, lehen ezin geldi,
lehengo su hartarik nitarat jin bedi.

Bertso txapelketan dut hartu behar parte,
pozik egongo nintzen hortarik aparte.
Elkartuko baigara saioen bitarte,
beraz agur, entzule, eta ikus arte.

Gipuzkoa ta Bizkaian hizlari nobleak,
bertsotan ere dira nihauren dobleak.
Txapelketari buruz ditut doloreak,
kanpoan direlakotz ni baino hobek.

Hau ona dela eta hura dela txarra,
euskal kulturak baitu guzien beharra.
Elgarretara gaiten Hego ta Iparra,
Ama Euskal Herria baita bat bakarra.

Pentsa zazu, Mirentxu, pozetan nagola:
alaba bertsolari etxen dagola.
Ez duzu ukatuko aitaren odola,
ene liburutxoan harturik eskola.
 Bertsoez axola
 baituzu ta nola!
 Ez utzi nehola,
 jarrai zazu hola,
fruituz bete dadien zure arbola.

Zuri mintzo nitzaizu, alaba bikaina,
bertso hazia baitut zutan eraina.
Ta hartu duen lurra ez baitzen gordaina,
errexki beretu du aitaren dohaina.
 Zabalik ezpaina,
 berdin bihotz gaina,
 zaude euskal zaina,
 urrunduz dohaina,
herriak ukan dezan ene ordaina.

Kukua

Airea: Xarmegarria zira edo Dama gazte xarmant bat

Kukua, kantuz egun baitzaitut entzuten,
zutaz zer pentsu dutan dautzut erantzuten,
ta nik bezela bertzek zer erraiten duten:
zuk bertzen ohantzean duzula erruten.

Primadera jin dela kantuz baduzu lan,
zure kantua ez dut gaitzetsi sekulan.
Bainan zu entzutean banago karkulan,
nolaz nehoiz ez dutan dirurik sakelan.

Kanta zazu halere kantore berria,
udaberrizta zazu gur'Euskal Herria.
Alai zazu herria, susta gazteria,
ta urtero bisita gure aberria.

Ipar anaien partez agur bat osatu gabe nola utz?
Senditzen dugun anaitasuna ez baitago itxura huts.
Elgarrekilan goazen aurrera etorkizunari buruz,
urgulu, herrak, berexgoak utz ta munduari erakuts
Hego Iparrak beti daudela arima beraren gorputz.

Amodioak bentzu dezala bekaizkerien histura,
bozkariozko anaitasuna gure artean piztu da.
Beti bizirik egon dadien garrarit dezagun trixtura,
atxik dezagun tinki ta finki harturik dugun itxura,
ahal bezenbat Iparra bilduz Hego anaien xixtura.

Ez dakit pentsu ote duzuen nola frantsesa ez naizen,
zeren sekulan ez dut asmatu nola española haizen.
Euskaldungoa aski zitzaike, horrek baigaitu alaitzen,
gure arbaso maitagarria euskaldun baizik ez baitzen,
aments hoi egi bihur dadien has gaiten funtsez anaitzen.

Zendako mila debru guretzat zünien bozkatu?
Iruuriko kantu eijerrik ez dugu prestatu.
Guk Barkoxen behar günin final erditan kanporatu,
zien bürrik ta gu ere gira eijerki tronpatu:
«Zortzi, zortzi, zer? Zortziko bat».

Manexetik ez dela nehoiz haize eta jente hunik,
Xiberoko semiak gira gauz hori entzunik.
Alta egun ez balitz jin Manex aldeko euskaldunik,
Iruurin gaur ez ziteken kantarien txapeldunik!
«Zortzi, zortzi, zer? Zortziko bat».

Zortzi zimino gira hemen ta ziek gure kusiak,
euskal kantua maitez gira bilduak guziak.
Ziminoak ez baitira xakurrak bezain itsusiak,
gora euskal ximinoak, gora zazpi probintziak!
«Zortzi, zortzi, zer? Zazpiak bat».

Gaurko gure zirko ttikia huntan finitzen da naski,
euskaldunen bizkar bizi da ziminorik aski.
Horiek bai ziminoak dira guziak egiazki,
euskara ta euskaldunak hoiien kausaz gira gaizki.
«Zortzi, zortzi, zer? Zazpiak bat».

Izar maite bati

Gaia: zuretzat izango ez den emaztea maite duzu.

Nere bihotza hain xamurki zen beti goxo eta ezti.
izar maitea, zu zinelakotz neretzat zinez eguzki.
Aingeru baten antzera zaude udaberri lorez bezi,
eta badakit etzirela zu neuretzat orai ta beti,
alta zuretzat banuke nitan kanta ahala abesti!

Ezin ukana maite dutana hauxe da hau zer trantzea!
Biek arroltzez gaur ezin bete kabi edo ohantzea.
Nik zu maite ta zure jabe da ikusten dutan bertzea,
setio latza trantsigarria, hau duk hau ezinbertzea,
horrela bizi baino aunitzez hobe litaike hiltzea.

Bainan ez naiz, ez, etsimenduz jo, ez dut hiltzea buruan,
ezin ukana izana gatik nago zure inguruan;
ta amodio gaindika daukat bihotzean ta golkuan,
gordezka beti ahal bezala elgar maitatuz munduan,
betirateko ezkontza on bat egingo dugu zeruan.

Ama guziak dira egun ohoratzen,
eskerren bihurtzea zaku gogoratzen.
Noizean behin denak baigira ohartzen
ama baten bihotza ez dela ordaintzen.

Amen pesta da egun ospatzen duguna,
mereritua dute holako eguna.
Ama, zu ganik heldu da goxotasuna,
esker onez har azu gure maitasuna.

Amentzat bada egun lore eta musu,
amarendako bada esker ona usu.
Izar bat zira, ama, ta merezi duzu
haurren ganik hoinbertze hitz goxo amultsu.

Eguberri! Eguberri!

Airea: Xalbadorrek sort etxeari

Eguberri! Eguberri!
Kanta denek herriz herri
Jesus sortuaren berri.
Bozkarioa bihotz barnetan Eguberriz du ezarri,
esperantza bat ekarri,
gogoaren altxagarri,
gizonaren salbagarri.

Eguberri! Eguberri!
Jesus Haurra sortu berri
adoratuz herriz herri.
Bi mila urte hurbil baditu Betlemerat zen etorri,
izpirituen hazkurri,
esperantzaren iturri,
gizonaren altxagarri.

Bi mila urte, Jesus maitea, gu denak salbatu nahiz,
Betleemeko estalpe hartan sortu zinen Eguberriz;
eta geroztik izpirituak gainditzen dituzu argiz,
fede hazkurri altxagarriaz, Jainkoaren dohain garbiz.

Eguberriko mixterioa zoin den eder eta haundi,
esperantzaren iturri hori gu denen baitan sar bedi.
Erreinu hori menderen mende sekulan ez dedin geldi,
gizon guztiek horren distira dezaten goza ta sendi.

Eguberriz da Jesus sortua, badauka bere loria;
gizon guziak salbatu nahiz zen mundurat etorria.
Fede gabeak iduri luke lurreraino eroria,
bere hegalen indarrez aira ezin ditaken xoria.

Xori umea ezin hegaldia, laguntza eskas duzia;
girixtinoa berdin ahul da, hortan ditake guzia.
Gure baitarik kausi dezagun zeru lurren nagusia;
Jaunaren bilatzea Jesusek gizonen gain du utzia.

Arima deitzen den izaitea ta izpiritu hutsari,
izpiritua lantu behar da behatu gabe uztari.
Kezkatu gabe neke ta dorpez ta zer eman gorputzari,
penitentzia izan dezagun gogo bihotzen hazkurri.

Gure bekatuz kargaturik du karreatu kurutzea;
ordu zen noizbeit ohartu eta guri ere damutzea.
Ez baita aski egin hutsaren nola den ezagutzea,
gero onartu nahi ez bada penitentzia luzea.

Girixtinoen eginbideak leialki ditut beteko,
gorputz arimak ezartzen ditut, Jainkoa, zure meneko.
Aingeru baten amodioan Jaunak ahal nau erreko,
egon nadien Jesusekilan ni erresuma bereko.



Heleta herria

Bataiatzaile Joanes hil izan zelarrik,
Jesus itsas untzian joan baitzen bakarrik.
Jendeak joan zaizkion milaka ondotik,
ta Jesusek eriak sendatu gogotik.

Dizipuluek gero galdegin zioten,
iluna zetorrela baitzuten ikusten:
«Mana zazu jenderi hemendik joan diton,
herrian jatekoa erosi dezaten».

Jesusek erran zuen: «Goseak nere gain!
Benedikatzen ditut bortz ogi, bi arrain,
ta jenderi jatera emazue orain».
Soberakina baitzen eskasaren ordain.

Bortz mila jendez goiti ase ziren naski,
ogien mirakulu hori baitzen aski.
Jendea ogiz ase zuen egiazki,
soberakinez betez dotzena bat saski.

Segi, Jauna, segi
gu asetzen ongi.
Zu zira gure ogi
eta gure argi.

Ardiak eta otsoak nahas

Eguberriko besta gozoak
goza ditzala mundu osoak;
bainan munduan nahas dabilta ardiak eta otsoak.
Etxeko eta auzoak,
ez bazirezte lausoak,
Betlemerat bota soak.
Jesus Haurrari zabal ditzagun bihotzak eta besoak,
gu denek baino indar geiago baitauka Jesus Haurtxoak.

Zer ekarriko dauku geroak?
Egun hotz batzu ala beroak?
Egun saminak, pena ta minak, ala gau eder gozoak?
Batzuek hiltzen urtxoak
ta bertzek berdin auzoak.
Zer kolpe itsu lausoak!
Ta haratxago behatuz nago: egarriz hiltzen haurtxoak,
munduan nahas direlakoan bildotsak eta otsoak.

Munduan barna dena su ta ke;
bertzela balitz, hobe litake.
Egia eta zuzentasuna nagusitzea zoin neke!
Zapalkuntza arras merke,
krima da krimaren truke,
bertzela nahi ginuke.
Bainan ardien jauntziekilan dabilta otsoak eske.
Gerla egiten dautzunarekin nolaz baketu ditake?

Euskara zabaltzeko goazen bidez bide,
etor zaite gurekin, euskaldun haurride.
Ekar diru laguntza, izan AEK-ide,
zato gure lankide, gure adixkide.

Euskara da arima, Euskal Herri gorputz,
bata bestea gabe ez ditzazkegu utz.
Zato gure sustenguz, bihotza erakuts,
AEK-ide izanez hitzez eta diruz.

Zail da gaurko bizia, hits da ingurua,
bainan zabal ditzagun bihotz ta burua.
Euskara zabaltzea dugu helburua,
sar zaitez AEK-ide ta eman dirua.

Doinua: *Bi emazteki entzunak ditut*

Euskal Herrirat udatiarrak gogotik dira etortzen,
gure herria garbiki dela hainitzek dute aitortzen.
Zenbaitzu hauzok bere lagunak ez dituzte estimatzen,
ur higatuak arroiletarat nola nahika igortzen.

Arroilak garbi badira beti, ur beltza doa aintzina;
eskuz garbitzen haizanak gira, eskas ginuen maxina.
Errespetua balinbadute herri gizon baten dina,
kantonierari garbiarazi arroila hori aintzina.

Muztikaz eta uliz zitzaikun etxe guzia betetzen,
murrak xuriz egin ondoan hasiak baitziren belzten.
Herriarentzat lanean artzea ez da ardura gertatzen,
bi egun jornal galdetzen ditu, bato urririk ai baitzen.

Mahain bateri konparatzen dut gaurko gure komedia,
Ezpeletatik hartua nuen delako biper gorria.
Azken plat hunek gustua zuen bertziek baino hobia,
ondoak falta baziren ere ederra zen bazkaria.

Bertsu hauk denak eman tuena gaztea da ta justua,
ez du iduri beiratu eta bainan hortan du gustua.
Sujeta dautet ekarri eta bazuen horren dretxoa,
bertzaldi arte deneri eta orain aintzina banao.

Herria, 1986ko abuztuaren 7koa

Agur, Maite Barnetche

Airea: *Lo hadi, aingüria*

Arima gorputzetik jarri zaitzu berex,
horren konprenitza ez zaigu hain erretx.
Hargatik gaude milaka euskaltzale nigarrez,
bihotz erditik agur, gaixo Maite Barnetx.

Adin ederrenean mundua uztea,
zer gauza lazgarria, kurutze trixtea!
Berrogoita bost urtetan betikotzat joaitea
hainbeste sofriturik, adios, maitea!

Hainbeste lan eginik orai pausa zaitte,
betiko erreinuan sartu zira, Maite.
Batzuk adios erranik ta bestek ikus arte,
Bidarrin frogatu da zoin zintugun maite.

Euskaltzaleak gira zutaz orroituko,
bainan nehoiz ez zaitu nehork ordainduko.
Langile berdin gabea, noiz gira ohartuko,
zu bezela, dugula euskara galduko?

1986.09.19

Jakelin

Ene maitea, zure pesta da, egun da Santa Jakelin,
bihotz guziaz eskaintzen dautzut zorion eta atsegin.
Hamabost urte aurten badira gabiltzala elgarrekin,
joanago ta geiago gaitu biziak biak bat egin.

1987ko otsailak 8

Egun hamabortz urte baditu ezkondu izan ginela,
andre maitea, Ospitalean ezkontzaz sartu zinela.
Eta geroztik ohartzen gira denbora laster joan dela,
elgar maitatu dugulakoan hitzeman dugun bezela.

Ta gure bien amodiotik zure besoen artera
izar pollit bat gure Mirentxu maite hori zen atera.
Goretsi nahi baitut alaba amarekila batera,
hiruek beti elgar maitatuz goazen bizian aurrera.

1987ko otsailak 19

Sei urtetako maitagarria

Kantuz ari naiz bainan trixterik bihozmina zabaltzean,
nork ez du sendi garraztasuna bere norbait itzaltzean,
azken aldikotz bere begiak lurreraino apaltzean?
Guk hori dugu orain saritzat gure haurtxoa galtzean.

Osaegilek eritasuna ez diote ezagutu,
edo bertzenaz dena ezin egin, ez dute ahal bentzutu.
Aita amentzat uda minaren erian zauku negutu,
heriotzaren burrego beltzak bizirik gaitu larrutu.

Landarearen itotzen ari da laparra sasiturik,
gure maitea eritasunak berdin zuen sesiturik.
Nork ikusi du aingeruño bat bere heinaz etsiturik?
Galdatu zaukun: «Gaitza ez ote da eni nagusiturik?».

Sei urtetako maitagarria ohean zela etzanik,
galde bat egin zaukun bieri hotz ikaretan emanik:
«Osaegilek zer erran duten dakizue oraidanik:
sendatu ala hilen ote naiz zer dautzue erranik?».

Heriotzea etortzen bada gure maitea biltzeko,
hain maite dugun mintzo eztia betikotzat ixiltzeko,
ez gira geio haizu ahalko besoetan ibiltzeko,
ta berak dio ez dela beldur gure besotan hiltzeko.

Ez da haizerik hoin tormentgarri etortzen denik hoin lazki;
Jainko maitea, zendako bada gu gaztiga hoin garrazki?
Gure oinazen berri guziak auzoak ere ez dazki,
haurrak galdatu dauku hil aintzin hartzea zonbeit argazki.

Holakoetan kurutzefika ez da segur laidostatzen,
eihartuz geroz arbola ere ez baita berriz hostatzen.
«Sendatu eta lagunekilan ariko zira jostatzen...».
Holakoetan nigarra bera gordetzea da gostatzen.

Osaegilek bi gogoeta dituzte jada lanturik,
ta deus ez bada egiten ahal ez du gero espanturik.
Gorderik nigar egin ondoan ez da holako kanturik,
haurraren gana agertu behar gure begiak hanturik.

Holako gauzik santa sekulan ez laike behar idatzi,
bainan gogotik ezin dut kendu, nehola ezin ahantzi.
Poz batendako penak badira lur gainean bederatzi,
beharrik denak edo berant lurretik ihes goatzi.

Umiltasuna ez da egiten urguluaren partean,
bera heldu da nigarra sortzen delarik begitartean.
Zer zimikoa haur amultsua gogortua ikustean!
Guk nahi baino lehen ezarri daukute taulen artean.

Zer pairamenak ekartzen tuen berekilan bizitzeak!
Umiltasuna ekarri dauta horrenbertze izitzeak?
Jendea bera kanbiatzen du guk bezala sufritzeak,
oraino ere entzuten ditut taulen sartzean itzeak.

Orai artean egon ondoan amodioz beroturik,
zer hoztasuna jarria zaukun uste gabe lanoturik!
Kutxa etxean ikusi eta nintzan kasik eroturik,
nere andrea beti baitzegon bi eskuz hari loturik.

Beti hemengo bagine bezain griñatuak gure sailez,
otoitzak ere ordaintzen ari gizon arteko kasailez.
Gure indarrez norat goatzi nola lorea otsailez,
ohar gaiten gu baino gorago norbait badela bi mailez.

Bizitzearen jabearentzat jarri nintzen hasarrean,
ezarri izan gaituelakotz herioari parrean.
Galbarioa zoin dorpea den senditu dut undarrean,
jasaiten ahal ez den kurutze hori hartuz bizkarrean.

Gure biziak zer du helburu? Nundik dator ta nortarik?
Munduan nun da heriotzeak joa ez duen bortarik?
Badakit, ezin gira eskapa itzaltze ilun hortarik,
bainan sekulan ez dut ixuri hainbertze nigar xortarik.

Nigarra dela purgatzalea diote lur zabalean,
gu segurik bai egin arazi gaitu arats apalean.
Badakizue zoin lazgarri den doluminen itzalean,
amodioa ez balinbada bihotzaren axalean.

Gizona eta emaztekoa bizia hedatzaileak,
Jainkoak berak munduan utzi dituen kreatzaileak.
Jauna, zendako gaur gaztiga dituzu haur maitatzaileak
ta libro uzten tuzu biziak tuen enganatzaileak?

Zeruko Argia, 1977.03.06.

Hemezortzi ehun eta berrogoita hamaseia,
utzi behar dut etxea, familia ta herria,
anaia baitut etxeko, etxaldea da ttipia,
ta ez da nitaz gustatzen gure auzoko Maria.

Ene geroaz nindagon gau ta egun gogoetan,
zer egin eta norat joan lana xuhur da denetan.
Lantegi guziak hesten ari ziren alde huntan,
gaitz bat ere sartua zen hemengo mahastietan.

Kalustrapean igandez, goizeko mezatik landa,
Kanadako gobernuak egiten du propaganda:
han kitorik badagola nahiko lur eta landa,
bakotxarentzat hirutan hogoita hiru hektara.

Bi miliun jende frantses direla Ameriketan;
nahiz frantsesa nik ere pixkaño bat badakitan,
beti euskaldunak izan dira bazter guzietan,
han baditaizkelakoan joanen naiz lorietan.

Airea garbia dela eta lurra hobeago,
bizia ere dagola hemen baino merkeago.
Beraz harat joan behar dut zeren hauturik ez dago,
nahiz herria uzteaz izigarri trixte nago.

Partitzeko egun hura oraino daukat gogoan,
haurride eta aitamak nintuelarik ondoan.
Karrosa bat etorri zen, hartu ninduen ta joan;
ama gaixoa nigarrez zagon supazter xokoan.

Ene anaia zaharra ta ene aita idorra
nigar egin gabe zauden, hain dute bihotz gogorra.
Amaz eta arrebaz naiz beti orroitu beharra,
nola nigar egin duten nik uztean euskal lurra.

Ene etxetik joaitea ez dut nehoiz ahantziko,
pentsatuz zonbatek duten etxea hola utziko.
Gogotik nigar egin dut joaitea bizi guziko,
beharba herri maite hau ez dut berriz ikusiko.

*1988 otsailaren 15ean eginak,
Beñat Eiherabidek galdeginik.*

Aita Piarres Larzabal-en omenez

Doinua: Labegeriren "Bakearen urxoa".

Euskal kontzientzia batzu eta bester
zabaldu izan duzu zahar eta gazter.
Idatzi duzu hainbat antzerki fin eder.
Zuk egin guzientzat bihotzez milesker!
 Zure lana ezta gal,
 aita Larzabal.
 So gaude izarreri
 eta ez gau beltzari,
 argituz doa Euskadi.

Hainbertze abertzale duzu sortarazi,
hamar minuta txalo dituzu merezi.
Zeruko abertzaler emozu goraintzi,
Monzon lagunari ta zure Matalazi.
 Errozute deneri:
 Aintzin beti!
 So gaude izarreri
 eta ez gau beltzari,
 bidean baita Euskadi.

Gure bihotzak tuzu amodioz bete.
Zerutik so egizu zoin zaitugun maite.
Horko gudariekin beha egon zaite,
euskaltzale guziak horrarat jin arte.
 Hor zaude irri-farrez,
 gora Piarres!
 So gaude izarreri
 eta ez gau beltzari,
 gurea baita Euskadi.

1988.05.01

Jainkoari otoitzez

Jainkoari otoitzez gira hasten ahal,
bere grazia dezan esposeri zabal;
gaurko amodioan egon ditzen leial,
Jainkoak lagun ditzan Christian ta Chantal.

Huna bi espos gazte aldare oinetan,
ezkontzaz bat eginik gaur Gerezietan.
Jainkoari has gaiten otoitz kartsuetan,
lagun ditzan biziko urrats guzietan.

Entzun, Jaun Zerukoa, guk egin otoitzak,
ta benedikazkitzu esposen bihotzak.
Zure argian dira gure esperantzak,
fruituak ekar ditzan egungo ezkontzak.

Entzun gure otoitzak, Zeruko Jaun ona,
emazu esposeri zure zoriona.
Christian ta Chantal-en bihotzetan barna
zure amodioa zabal zazu, Jauna.

Ezkontzaz bat eginik dituzu ezarri,
Christian eta Chantal loturik elgarri.
Jainkoa, emozute gaurko esposeri
fede, zorion, xantza eta osagarri.

Gerezietako elizan

1988.06.18an

* * *

Espos maiteak, zuer kantari nagola,
gaur loratzen hasten da zuen arbola;
ta lorietan nago, hobeki da hola,
amodioz beterik atxik bihotz zola.

Geroaz axola
baitut eta nola
Hazparne dagola
zuentzat etxola,
lorez bete zazue zuen kaiola.

Zuentzat da kanta hau, Chantal ta Christian,
atxikazue zuen bihotz erdian.
Gaur sartzen baitzirezte bizitze berrian,
urosa izanen da zuentzat agian.

Hazparne herrian,
irria begian
ta osagarrian
bizitza guzian
egon zaitezte, otoi, Euskal Herrian.

1988.06.18an

J. Pierre, Jacqueline ta Mirentxuren partez

Bi espos gazteri

Sakramendu hau baita eder eta ezti,
huna bi espos gazte esposetan bezti.
Gaurko amodioan egon ditzen beti,
Jainkoa, beha zazu Alain ta Colett-i

Ezkontza sakramendu ederrena baita,
gaurko esposer beha, zeru lurren Aita.
Hauen amodioaz har ezazu arta,
bizitzean dezaten beti elgar maita.

Entzun, Jaun Zerukoa, guk egin otoitzak,
ta benedika gaurko esposen bihotzak,
fruituak ekar ditzan egungo ezkontzak,
pilotari berriez bete ditzen plazak.

Jainkoaren dohainak hain dira zabalak,
esposer eman bitza beraren ahalak,
gero're ikus ditzen euskaldun leialak
agertzen maskaradak eta pastoralak.

Jainkoa ganik heldu da amodioa,
biziari horrek du jartzen balioa.
Esposer eman zazu idaia beroa,
xutik atxik dezaten beren Xiberoa.

*1988.10.01ean
Muskildiko elizan*

Bazko besta hunetan zer argi bidea!
Bihotz berrituz doa munduan jendea.
Jainkoari egiten diogu galdea
zabal dezan guzier Kristoren fedea.

Mundua gertakariz da maiz ilundua,
zuzentasuna ere usu urrundua.
Jainkoa, ikus azu gizonen gudua,
ta zure argiz argi zaiguzu mundua.

Ikus, Jaun Zerukoa, gure miseriak,
laguntkitzu langile ta laborariak.
Lagunt ta soleizkitzu xahar ta eriak,
eta doluminetan badauden guziak.

Gure otoitzak entzun, Jaun Jainko maitea,
zure grazier zabal dezagun atea.
Errespeta dezagun gaur batek bestea,
bihotzetan sar dadin Kristoren bakea.

Luhuson, 1989.03.12

Bozkatzeko kesari beha naiz egona,
ez da beti gezurra horrek dariona.
Horrek salatzen dauku nor ez den gizona,
batzur pena emaiten, bertzer zoriona,
jenden negurtzeko da arras tresna ona.

Bozka arrats guzietz beti gauza bera:
batzu trixterik eta batzu alegera.
Zonbeitek uste zuten izaitea mera,
eta bertze batzuek axuant kadera,
bainan lehenik sartu behar da barnera.

Beti bezala aurten baziren bi lixta,
marratu ere dute jendetze pilixta.
Hortan bederen arras ona dute bixta,
badakite noiz nola nori eman xixta,
bat alegera dadin ta bertzea trixta.

Bozek dute herria bi parte emaiten,
herria ta jelsiak kalteak egiten.
Eztabada ainitz da herrian izaiten,
ainitz egia eta gezur da erraiten,
bainan jende xuxenak barnean egoiten.

Batzu bertzen mendratzen dira beti trebe,
ixilik egoitea bailukete hobe,
egonez jendetasun poxi baten jabe,
sekula santan gauza hau ahantzi gabe:
elgarrekin behar da bizi bihar ere.

Batzuek baitzioten bozkatzeko untsa,
gaizki egin dugula nork dezake pentsa?
Herri huntan jendea ez da arras mentsa,
nahiz batzuk bertzela zuketen amentsa,
bozka biharamunez bada mutur saltsa.

Lehen kolpez pasa da kasik lixt osoa,
bainan beste jendea ez baita zozoa.
Dakite zoin den ona ta zoin den gaixtoa,
hau kapablea dela ta hura astoa,
jujamendua ez da denentzat gozoa.

Sei urteren bakea du gure herriak,
orduan jinen dira kandidat berriak.
Aurtengoen berdinak ditaizke erdiak,
batzu asto ttikiak, bertzeak haundiak.
ondotik dituztela tokero guziak.

Hautetsi auzapeza adixkide ona,
aurten ere zu zira denen txapelduna.
Onar azu bestekin ene goresmena,
hamabi urtez egin izan duzun lana,
hauekin segi zazu hemendik aintzina.

Heletan, 1989 msartxoaren 13an

Ez gira deus gabe!

Eiherabidek jarri zautan gaia: Euskal Herrian falta ditugu urrea eta petro-
la, baina ez gira deus gabe! Zer badugu? Eta bertsu hauk igorri niozkan.

Euskal Herrian falta ditugu urrea eta petrola,
gutaz diote: «Jan edanetaz baizik ez dute axola!».
Piperrada jan, arnoa edan eta gero lo gaudela,
ahazten dute zoin maite dugun guk Gernikako arbola!

Itsasun bada gerezi eta Ezpeletan bada biper,
ez gira beraz deus ere gabe, Jainko maitea, milesker!
Zikiro pestak, merkatu, feirak badira eskuin ta ezker,
badugu ere ikurriña bat, nola bihotzetik bazter?

Euskal Herrian nasai ditugu airea eta ur ona,
xoratu eta gelditzen baita mendieri so dagona.
Senperen bada lakua eta Iratin zer zoriona!
Eta gainerat prefeturatzat laster izanen Baiona.

Maule Herrian eta Hazparnen zapetaren lantegiak,
Boncolac ere ahazter dut ta zabal ditzagun begiak.
Dantza lekuak ez dira eskas, aitor ditzagun egiak,
ta abertzale gaixoendako badira presondegiak.

Urtxo ihizin erabiltzeko tokiak ere oraino,
gure eskuan behar lukete gure lurretan direno.
Bainan dirua errege da ta geio pagatuz guk baino,
jende xehea aberatsak du izorratzen leporaino.

Bihotz urratu batekilan naiz pena batzuen kantari,
eta ehunka ager nezazke hola zonbeit gertakari.
Penen ahazle badugu soinu, dantza eta pilotari,
euskal folklor, kantari berri eta zonbeit bertsulari.

Badira ere zonbeit pizina, zonbeit trinket ta Euskal Jai,
xaharrendako xahar etxeak ere baditugu orai.
Memento huntan ere badugu nahiko deputatu gai,
herrian lana gure gaztentsat hoi dute bakarrik etsai.

Ttipi ttipitik ikasi ditut Eliz Amaren legeak,
ikusi ere zer dion gure biziaren Erregeak:
ez duela deus onik ekartzen fedea gutiosteak,
gure ariman erroak barna egin ditzan sinesteak.

Bere nekeak ditu biziak zuzenki eremaitean,
karitatea obratzean ta nork beretik emaitan.
Jainkotasuna lagun urkoan ikus ta hatxemaitean,
eskuak hutsik ez gaitezen sar Jaunaren etxe maitean.

Galbarioan guretzat utzi du Jesusek abisua:
guk ere hartu behar dugula haren kurutze pisua;
haren kargaren pean gal diten urgulua ta hisua,
arima garbi igurikatuz goiko zero argitsua.

Mundu huntako edertasunek ari gaituzte aspertzen.
Lurrean diren gauza guziak hilkor zerauzkit agertzen.
Jainko maitea, dutan fedez zintzoki zaitut eskertzen,
nere bizitza ez baitu deusek fedea baizik edertzen.

Fede gabea lotsatua da, hor dago begi xuria,
ezin asmatuz zer den bizia, burtxoro bat iduria.
Egizu, Jauna, fede argia dadin horri ixuria,
hatzeman dezan zoramenduzko kristauaren iturria!

Nekatuari emozkioztu kurraia ta indar, biak;
artzainak ere igor mundurat gida ditzaten ardiak;
lagun gaitzaten irauten beti gogo bihotzez garbiak,
gure bizian distira dezan fedearen su argiak.

Fede gabezko bizitze hitsak berekila du zer latza,
lotsamenaren aztaparretan ezarriz bihotz beratza!
Egizu, Jauna, guziek goza dezaten fedezko gatza,
etsidurak jo bihotz guzien altxarri aberatsa!

Mundu trixte hau hobeagotzen badugu segur nun josta,
bainan sari bat merezitzeko behar da lehenik gusta.
Gure arima zure laguntza gabe ezin baita hosta,
egizu, otoi, ez dadiela etsimenduaz lanbrosta!

Meza sainduak bertze itxura berezi bat gu geroztik,
nere izerdi lanen eskaintzen elizan nabil gogotik.
Ez nadiela berriz urrundu zur'amodio berotik,
gero ta geio maitatu nahi zaitut eta barnagotik.

Sofrikarioaren bitartez bainaiz hobeia egina,
zuri otoitzez amultsuki naiz, Zeruko Ama Birjina:
«Zu baitzaitugu, Jesusen Ama, zeru lurren erregina,
lagun nezazu beti fededun egoiten gaurtik aintzina».

Ama Birjina maitagarria, ama guzien izarra,
bisita zazu ene bihotza, emozu barne indarra.
Xuka dadien ene begien dolamenezko nigarra,
kotsolatzeko, Zeruko Ama, badugu zure beharra.

Ongi dakizu zer diren mundu huntako ahuleziak,
eta zer penak sortzen dituen esperantza gabeziak.
Zutan fidantzi osoa daukat eta zure oneziak
nere baitarik urrun ditzala lur huntako trixteziak.

Amodioa izan ditake pozgarri edo lazgarri,
eta nik orai zu maita ordu behar dut penetan jarri.
Ezin da erran geroak guri zer behar duen ekarri,
nik uste nuen bat bertzeari jostea biak elgarri.

Zendako bada gaur nahi duzu maite duzunik urrun?
Nik ote nuen hori merezi? Kasu zer egiten duzun!
Ni utzi eta omen zoazi seroretara, dut entzun;
bakar bakarrik utziko nauzu ezkondu gabe alargun.

Xede horretan bizi zirela badia ainitz denbora?
Ezkontza orde nahi duzula ni utzirik joan serora.
Naizen aihena eihartuko da, nehola ezin da lora,
ez bazirade bizi guzikotz etortzen nere ondora!

Jainko maiteak zu seroratzat ba ote duke beharrik,
gero ni hemen gelditzekotan abar guziak eiharrik?
Maitea, otoi, ez nazula utz betidaneko bakarrik!
Ez zadazula penarik eman, ez eginaraz nigarrik!

Jainkoak eman ote dauzkitzu gisa hortako idaiak:
serora kondu eremaiteko lur gain huntako pidaiak?
Badakit, Jaunak galdatzen ditu zerbitzari on nasaia,
baliosago ez ote zaizko gizon emazten eztaiak?

Sekulan bada nere amentsa ez ditakea burura?
Ez zaitela joan, geldi zaita ta etor nere ingurura.
Mundu guzian bakar bakarra zu zira nere mentura,
begiak neri ez otoi hetsi beha egonez zerura.

Jainkoa bera amodio da, ta amodio hortarik
emaiten dauku, ohartu zaite ez ote duzun hartarik.
Amodioak errana dautzut ez dauka nihun mugarik.
Jaunak neretzat egina zaitu, ez da horretan dudarik!

Kanbia zaite eta gaur danik ideia horiek alda!
Aita ameri ere kontseilu ahalaz aski goiz galda.
Ta ez zaitela ni ganik urrun nola nahika hegald,
ezkontza ere seroragoa bezain ederra ahal da.

Ez otoi igor azken agurrik, ideia horiek utzi.
Bertzenaz dolu izanen duzu bihar ez bada're etzi.
Nik zu maite ta zuk ni eitea ez ote dut ba merezi?
Jainkoa ta ni biak maitatuz behar zinitaizke bizi!

Gehienik beldurtzen nauena

P. A. Idieder: Hiru bertsu, nahi duzun doinu eta neurrian. Gaia: zer da gehienik beldurtzen zaituena?

Mendiburuk:

Geien beldurtzen nauen gauza da gerlaren sua ta kea,
gizonak gizon anaier egin egin diron atakea.
Bake bide ta amodioa nolazpeit lort ditakea.

Hori da ene eskea,
eta ez da hain nekea.

Gerla berenaz munduan dakit ez dela arras merkea.
Ni beldurrez naiz oraino ere jinen zaukunez bakea.

Gerla bidetan hainbeste gizon Euskadin baita erori,
hola jarraiki bide txarretik ezin dut opa ñori,
aldiz gutizi haundiena dut bake zuzen eder hori.

Bainaiz bakearen xori,
kantu alaietan jori,

bake oso bat nahi dut hemen Euskadi hunen sokorri,
gauza onena hori litaike behar bailuke etorri.

mantza.

Zerk beldurtzen nau? Zeren beldur naiz? Entzun dugu arra-
Debruak edo Satanek beti gure gan egin du dantza.
Ta badakigu Paris ta Madril beti dela zapalkuntza,
lehertuz gure hizkuntza.

Nun da gureztat laguntza?

Beldurrez naiz bai bainan ez dut gaur osoki galdua funtsa,
bake oso bat negoziatuz hori dut nik esperantza.

Landibarren, 1989 apirilaren 2an

Soldado baten auhenak

Soldadutzara juate hori iritxia zait noizbaite,
bein joan nintzan, badaramazkit hantxet sei bat hilabete.
Lagunentzako hainbat eskutitz, neretzako ez da bate,
jaunak, galdera hau egiten dut: nehork ez ote nau maite?

Jaunak, nehorren gogozko ez da soldaduzkako biziya,
petralkeritan betea dago han dagon agintaritza.
Gure herriko bizi modua bururatzen zaigu aisa,
noiz iritxiko ote zait neri maitearen eskutitza?

Nik egunero banaketako betea daramat moltsa,
guztiak besterentzat dirala, honek ematen dit lotsa.
Bekozko ilun asko dadukat, begiratua zorrotza,
era honetan etzait joango neri soldadutza motza.

Gorputz saildua

Jesus Jauna da ostia baten itxuran eskaini guri,
osti saildu hoi adoratzeko egiten da Pesta Berri.
Jainkoak dauzku ogi bizian bere graziak ixuri,
Gorputz Saildua izan dezagun gure arimen hazkurri,
ostia baita iguzki saildu, esperantzaren iturri.

Pesta Berriak fededunentzat pesta eder ta airosak,
Gorputz Saildua ohoratzeko dira urrats baliosak.
Jesus onari xuritan bezti hurrek botatuz arrosak,
Jainkoarekin lotzen dituzte gure gogo ta bihotzak,
ostian dagon Jesusendako baitira gure otoitzak.

Pesta Berriko jauntziekilan gaztek ospatzen dutena,
Ostiral Sailduz Jesus maiteak guretzat egin zuena.
Iguzki saildu barnean dugu Jesusen orroitzapena,
Jesus bera da ostia baten itxuran guri emana,
Haren grazia, fede hazia sar dadila gutan barna.

1989 ekainaren 4an

Ibiltzen naiz ni ere hil harrian gaindi,
leku hortan trixtura haundi bat dut sendi.
Berrogoi urte ditut, egina biderdi,
egiten dut ni baitan: «Hemen behar geldi».
Jada hor utzi ditut ainitz lagun haundi,
ta horien erdian gure gaixo Maddi.

Hil harrian beharko dugu denek sartu,
batzu hilen direla ez dira ohartu.
Maddiren hil hobian han dut irakurtu:
«Iturri bilakatu, itsaso bat sortu».
Poesi ederra zaut, behar dut aitortu,
bainan ez dauzkit horrek nigarrak legortu.

Urteak laster doaz, nork du ahantzirik
ez daukagula ainitz urteren bizirik?
Jada zonbat ezagun ditut ehortzirik?
Naio nuzke bizi ta kartzelan hetsirik,
ezinez ta betikotz lurpean utzirik,
handik ez baita nehoiz libratzen bihirik!

1989ko ekainaren 21ean

Ttipi eta haundiak, denak eskolara,
gogotik edo bortxaz ikastei huntara.
Jin gira ikasteko apur bat erdara,
ahantzi ta baztertu gabeen euskara.

Agur, etxea, eta egun on, eskola,
dakit aspaldian hor beha zindagola.
Argi nezazu, bainan ez ahantz nehola
ni baitan daukatala euskaldun odola.

Bakantzak iragan ta eskolak berriz has,
huna nun giren berriz lagunekin nahas.
Elgar ongi maitatzen dezagula ikas,
munduak hori baizik ez du egun eskas.

Etxearen uztea zonbat zaukun gosta,
bainan eskolan ere baititake josta:
hunkika, kukulauka, balon ta pilota,
badugu segur asko jostagailu mota.

Eskolan zonbat gauza ditugun ikasten:
nola mintzatzen den ta nola den idazten,
kondatzen, irakurtzen, oneski jostatzen,
pilotan, kantuz dantzan ta igerikatzen.

Egunak badoatzi egunen ondotik;
eskolara goatzi, ez beti gogotik,
ikasi nahiz ala jostatzeagatik,
gogotik edo bortxaz bagoaz etxetik.

Erakasle maiteak, zazuela entzun:
gure bihotzak zuer kantuz daude egun.
Larderi, mehatxuak utz gutarik urrun,
bertze biden bilatzen ikasi dezagun.

Euskaldungoa ere ez bazterrera utz,
euskaldunak baigira, entzun eta ikus.
Euskal Herria zer den zaguzu erakuts,
nolaz gure arimak dituen bi gorputz.

Bietarik bat

Gaia: Belauniko bizi ala xutik hil?

Belaunko bizitza da gauza trixtea,
bainan trixteagoa mundutik joaita.
Lagun nezazu, otoi, entzule maitea:
nik ez dut aukeratzan ez bat ez bestea.

Bietarik aukera ez dela bat baizik:
zutik hil behar edo belauniko atxik.
Galdera horrekilan ez nazula akit,
zoin hautatuko dutan oraino ez dakit.

Zezena ere bizi bainan belauniko,
hilen ote dutenez gero ikusiko.
Toreroa plantatzen bada kokoriko,
zezenak toreroa adarrez du hilko.

Munduaren argia da beti Eliza,
apez suhar zintzoak beti izan bitza.
Jaunaren erreinua dezaten zerbitza,
Jainkoa, Zutaz diton gizoneri mintza,
gutaraino hel dadin, Jauna, zure hitza.

Jainkoari otoitzez baigaude Irurin,
mundu hau hobe dezan dezogun galdegin.
Eliz kantua ere otoitza da berdin,
gure egungo besta argiz bete dadin,
dezagun Jainkoari denek otoitz egin.

Kantore besta huntan dezagun Irurin
Jainkoari guziek funski otoitz egin.
Batzu irrati bidez badaude gurekin,
xahar eriek eta denek elgarrekin
Jainkoari laguntza dezagun galdegin.

Munduan gaindi bada hainbat berri trixte:
ixtripu, eritasun, gerla eta beste.
Mundua hobetzean har dezagun parte,
amodioz ta ongiz lurra dadin bete,
Jainko maitea, otoi, gurekin jin zaite.

Lore pollita, erradatazu maite nauzun bai ala ez,
orroitu zaite amodioak gutan dituen ahalez,
eta mundurat sor ditzazkegun gure seme ta alabez.
Maite nauzula ezin erranez zertako zaude ahalgez?

Izar pollita, ikusten zaitut aingeru arropaz beztu,
erle bat banintz zaren loretik jalgi niro hainbat ezti.
Nahi zinduzket neurea izan ez gau batez bainan beti,
nere bihotzak zuretzat badu kanta ahala abesti.

Ez otoi pentsa nabilanenik enganio bidez gaizki,
amodio su garbitan nago, maite zaitut egiazki.
Bizi guzikotz hartu nezazu gorputz, arima ta guzti,
izan zaitela nere bihotza bero dezaken iguzki.

Xume xumea naizela dakit bainan, izar amultsua,
zure alderat nere bihotzak bere barnean du sua.
Zu zira nere begi bihotzak hunki dituzun usua,
xede zintzoak daduzkat eta har azu nere musua.

Loretxu ta Eneko egungo esposak,
biak berdin gazteak eta loriosak.
Eskaintzen diozkatet goresmen arrosak,
egin ondoan gaurko urrats baliosak,
bizi guzian izan ditela urosak.

Sakramendu haundia da zinez ezkontza,
«Betikotz nahi zaitut –da esposen hitza–.
Xurekilan nahi dut iragan biza,
gaur emaiten derautzut osoki bihotza,
ta emaiten arima ta nere gorputza».

Jaun esposa ondoan, aldare oinetan,
andere esposa da arropa xuritan,
bihotzean amore, irria kopetan.
Jainkoak entzun bitza beren otoitzetan,
bat egiten baitute sakramendu huntan.

«Elgar maita zazue –Jainko Jaunak dio–,
elgarri leial egon, izan amodio».
Bertzenaz bizi hunek deus ez du balio,
elgarrekin jasanez pena, bozkario,
espos maiter goresmen eta laudorio.

Erraztun bat duzue erhian ezarri,
espos egunak hori dautzue ekarri.
Amodio zintzoaz zinezten egarri,
ta orai betikotzat emanak elgarri,
izan zazue xantza eta osagarri.

Herriko gizon bat

Herrian dut gizon bat aipatua guti,
girixtino zintzoa, xuzen dabil beti.
Egin duen lur meta ari da beheiti,
errebide guzia iztilez du busti.

Landaburu batean etzen aski leku,
errebide hegia lurrez bete dauku.
Badauka elhasturu zernahi prediku,
bainan ez dakit nundik mainkutua zauku.

Elizan aldiz lehen lerroetan berdin,
holakoak dabilta saindu guziekin.
Jendea kexu dela behar luke jakin,
lur hori kendu dezan zerbait gerta aintzin.

Herriko baratzetik lurra du ekarri,
ta leku publikoan trebeska ezarri.
Ez da fidatu behar gizon itxurari,
gizonak obretarik baitira ageri.

Zure ontasunaren zai
nintzan gustuan ta alai.
Horra berri txarra orai,
hargatik ez nago lasai.

Ez nuen uste hau egiteko, oseba, zinela zu gai:
ontasunik ez neretzat eta zor pila eder hori bai.
Nik ez dut besten zorrik pagatzen, nere zorrak ditut nasai;
zu aberatsa izana zira ni aldiz pobre ta artzai,
nik bizitzeko behar dutana ez dut zuretzat eman nai.

Bakotxa bada zabilan,
gu ere gira atalan,
ez amerikano salan,
bainan gure bortu zolan.

Ta bizitzeko behar dugunik ere ez dugu sakelan.
Nik zure zorrik, oseba, ez dut pagatu nahi sekulan,
ez du balio hortik guri so egon zaitezzen gau beilan.
Zuk ontasunak bazinituen, nik ehun bat ardi alan,
eta nihauren zorren pagatzen badut segurki aski lan.

Aberasteko amentsa
zer ilusione mentsa!
Nork zezaken bada pentsa?
Nun da zuk egin promesa?

Lehenik denak ukan ustea ta azken finean eza.
Nere amentsa debru zaharrak berekin eramane beza.
Zure hil hobi huntarat egun jina naizen erromesa
egina gatik eskerrak zuri, oseba, kopeta beltza,
ni kartzelara joan ninduzkete horrela egin baneza.

Irria

Gaia: farra, irria.

Irria behar du medikuak eriaren soleitzeko,
irria behar artatzaileak xaharren kontsolatzeko.
Irria behar neska gazteak gizongaiaren biltzeko,
biziaren edertzeko,
trixturaren baztertzeko,
bihotzaren goxatzeko.
Iguzkiaren parekoa da aurpegia argitzeko,
gogo bihotzen osasuna da, irria da beharrezko.

Herriko zerbitzari bati

Herriko Etxearen sekretarioa
berroita hiru urtez, zer ofizioa!
Hortarik ageri da zure balioa,
Onar-azu herriak egin adioa,
ta pasa erretreta luze ta goxoa.

Zure faborez, Mayi, bildu gira egun
herriko plaza huntan horrenbeste lagun.
Zuretzat ginuela hoinbertze maitasun
ez baduzu sekulan jakin edo entzun,
horra begien bixtan froga nun daukazu.

Egin ditutzu hiru hogoita bost urte,
gure artean egun baiditutzu bete,
herriko zerbitzuan harturikan parte.
Erretretan goxoki orai bizi zaite
gure artean hola ehun urte arte.

Heleta, 1989ko urriaren 22an

Galde anaikor ta maitekor hau hartu izanik Bizkaitik,
arbol saildua bizi arazten duen lur alde alaitik,
agurrik bero ta zintzoena bil azu ipar anaitik;
hor naiz Iparra ere Euskadi dela frogatzea gatik.

Zuen bihotzak dakit ez dira epelak eta zikoitzak,
mugaz bi alde bizi garenak batu gaitu egun goizak.
Ahal bezen maiz hola bil gaiten, hauk dira nere otoitzak:
ipartar batzu behar luzkela Hegoko saio bakoitzak.

Hegoa baitut bi aldetarik gostuko eta maitena,
zuen artera jin nahi nuke ahalik eta maizena.
Zueri zordun naiz huntaratu baininduzuen naizena,
zueri esker bildu baiditut izana eta izena.

Lau oinekin bertsu

Bertsularitzan bada “lau oinak” deitzen den jokoa, “lau oin” edo lau erri-
ma eskainiz kopla buruko, berttua moldatu behar haiekin. Joko hortan jostatu
zaigu hemen J. P. Mendiburu bertsularia. Huna zenbat gisetara atera duen lau
oin hauekin bertsu bat baino gehiago. Hauk ziren lau oinak: indarra, beharra,
zaharra, bakarra. (Emile Larrek).

Zaindu behar dugula aberri zaharra,
batzuek dabilate harmaren indarra.
Abertzale naizela dut kanta beharra,
bertsua da nik dutan harma on bakarra.

Asko gudu molde da, ez da bat bakarra.
Bakoitzak negurtzen du beraren indarra.
Ez naiz militarixta, dut kanta beharra.
Bertsuz nahi dut zaindu Aberri zaharra.

Euskal Herri maitea, Aberri zaharra,
bi zati ezarria, Ama bat bakarra.
Ama, zure alde da nik egin indarra,
nere bertsuez zaitut libratu beharra.

Bertsutako gudua da joko zaharra,
nahiz gudu moldea ez dagon bakarra.
Abertzale guzier dut erran beharra
etzaidala gustatzen armaden indarra.

Ama Euskal Herria dugu bat bakarra,
arbasoek utzia aberri zaharra.
Batera bil dezagun guzien indarra,
Amak baitu bere haur orenen indarra.

1989.12.03

Heletan astorik ez dela

Heletan gehiago astorik ez dela;
asto bakar bat zela, hura ni nizela.
Urepelen saioan kanta dut horrela:
«Astoak nai tuztenek jakin dezatela
arras asto pollitak Heletan direla».

Astorik ez dugula geiago Heletan,
aski duzu jitea gure feirietan:
arraza pollit hori denetz galtzekotan.
Hainbat asto emanik duen herri hortan,
ez zira geldituko asto baten faltan.

Nahiz ez den ibiltzen lur lanetarako,
mahasti arrotzeko ta arto pasako,
Heletan ez da nehoiz astorik faltako.
Astoa nori galda dut erran beharko:
batto behar baduzu mintza Pier Laco.

Etxetoko pentzean ikus baditaizke
Pier Laco-ren asto zahar eta gazte,
emeak edo arrak, ume edo beste.
Asto bat beharretan balinbazirezte,
Heletan bada frango onak eta merke!

Astorik gabe dela Heleta herria,
hori da Urepelen zabaldu berria.
Urepelen bakarrik zen arrailleria,
Heletan egiten da astoen feiria,
zatozte ikustera ez denetz egia.

Aranalde apezak¹ hau jakin behar dik
Heletan ez dagola asto bat bakarrik.
Nahiz berak ez duen astoren beharrik,
apez batek ez baitu pentze ta belarrik,
etorri asto bila; ez dugu faltarik.

Heletan hainbat asto nun da gaur ikusten?
Arraza hori dute guretzako uzten.
Batto behar duenak, garbi dut erraiten,
Heletarat ahal da astoketa jiten,
nahi bezain pollita ahal du erosten.

Heletako herria, beste askon eran,
astoen herria da, batzun araberan.
Asto edo pottoka, behar dautzut erran,
Heletan izan zela Daniele Mitterrand,
beharri luze bat du hemendik ereman.

Aranalde apeza gai emaille finaz,
hobekiago erran, adixkide minaz,
lorietan bainago bertsoak eginaz.
Astoek astoekin duten atseginaz
konturatzera zato Santa Katalinaz.

Koxe Mari apeza, aita Aranalde,
astorik badugunetz egin duzu galde.
Noiz etorriko zira Heletako alde?
Asto pollitak hemen begira badaude,
astokeria ere badugu debalde.

¹ Joxe Mari Aranalde apez jauna zena Urepelen gai emaille jarduna.

Heletako feiriaz, Aranalde, zato,
anaien ikustea ez ditaike gaixto.
Ekgarrekilan janez bildotx ta oilaxko,
gero ikustekotan zaldi, mando, asto,
Heletan pasa daike memento on asko.

Hegoko anaiak ta arrebak tut maite,
Sunbillako astoaz ere orroit zaitte!
Geroztik pasa dira kasik hamar urte...
Grado hartan jartzerik ez dut berriz uste,
orduz geroz astoek begietan naute.

Prediku luzexkoa gaurkoan botarik,
noizbait bukatu behar dut sujet hortarik.
Ez dut nehoiz hetsiko nehoi bortarik;
astorik gabe ezin izan Heletarik,
bainan bertzetan ere ez dago faltarik.

Azken irrintzinetik ez nago aparte,
bakarrik batzuer dut eman nahi parte.
Heletan jende onak badirela parte,
bi hankako astoak utzirik bi parte,
agur, Aranalde, ta Katalinak arte!

Zeru lurren Jaun boteretsua, hemen naiz Zuri galdezka,
nere aurrean ikusten ditut ez dakit zonbat bidexka.
Badut beldurra hoberenari ibilki naizen iheska,
hoberenean banintz ez nuke gaur dutan bezenbat kezka.

Kezka haundi bat nere barnean ez baitut ahal mugatzen,
iduritzen zaut zure izanaz beraz naizela dudatzen.
Nere barneko min bizi hori ahal balitz bururatzen,
zuhauri horren eskatzeraino nolaz naizu menturatzen?

Zu ganik urrun naizen guzietz trixte da nere zortea,
nago munduan, ni bezain trixte bertze nihun nehor dea?
Bilatu nahi zinduzket eta zu irriz nunbeit gordea,
zure eskasak zauri bizia ematen dauta ordea.

Zutarik urrun nintzan denboran, ez naiz ari gezurrean,
heriotzeaz besterik deusik ez nuen nere aurrean.
Heriotzea ikusten eta hor ni haren beldurrean,
fede eskasa bezain txixterik deus ez ditake lurrean.

Milesker, Jauna, berriz jin zira neri indar emaitera,
jainkotasuna ekarri duzu nere gizon izaitera.
Fedea nitan emenda zazu, utz nezazu erraitera
ilunpetatik nahi dutala behin betikotz atera.

Orai artean ez dakit xuxen zer neraukan bihotzean,
iduri zautan jada sartua nintzela heriotzean.
Nigarra bera etortzen zauta berriz zutaz orroitzean,
grazia eske xumeki zuri nagolarik otoitzean.

Nolaz ditake hoinbertzedino otoitza dutan maitatu?
Nahi dauzkitzut nere baitako ahuleziak aipatu.
Sakramenduen oinetarik naiz ainixko aldiz airatu,
Jauna, ez dakit zuk ala nik nork duen geihenik pairatu.

Sakramenduak eta otoitzak bertzerik dira neretzat,
ezagutzez ta estimuz bete nabila orai zuretzat.
Ohartzen bainaiz gauza ederrak egin tuzula denentzat,
guk merezitu baino ainitzez hobea zira guretzat.

Meza sailduak beste itxura berezi bat du geroztik,
nere izerdi ta lan eskaintzen mezan ni nabil gogotik.
Ez nadiela berriz urrunduz zure amodio berotik,
gero ta geio maitatu nahi zaitut eta barnagotik.

Sofrikarioaren bitartez bainaiz hobea egina,
zuri otoitzez amultsuki naiz, zeruko Ama Birjina.
Zu baitzaitugu, Jesusen Ama, zeru lurren erregina,
lagun nezazu beti fededun egoiten gaurtik aintzina.

Zeruko Ama, nere deiadar biziari kasumazu,
nere bihotza kanbia dezan Jainkoari galda zazu.
Zure seme den Jesus onari naizena gatik errazu
nere arima ez dezan utzi dena lapar eta sasu.

Belar gaixtoak bihotzeraino sartuak ditut barnegi,
gezurra bera maitatua dut hastiatuz hainbat egi.
Beharrik aski goiz ohartzeko eman dauzatzu bi begi,
gaurko manera trixte hunetan ez dezaket luzaz segi.

Ama, egizu entzun dezadan Aitaren mintzo ozena,
nere gogoa hegaldada dadin ahalik eta gorena.
Bekatueta garbi nezazu, badut eginik dotzena,
ta ken ni baitan dagon lazdura lurreko arrabotsena.

Zu ganatzeko indarra egin nahi dut nere partetik,
nere burua begira dadin bekatuaren kaltetik.
Iragan nahi baitut zerurat Petrik zabaldu atetik,
zure laguntza beharretan naiz gauza guzien artetik.

Nere arimak pairatu ditu ainitz euri eta haize,
gaur urrikitan sartzen ari da jasanik hainbat oinaze.
Zeruko gauzak gutizi ditu lurrekoez baita ase,
zure laguntza ardietsiz da hobeagotuko aise.

Zeruetako goi ontasunak diruetan ezin eros,
gure arima ez delakoan egina munduko lerroz.
Nere bihotza zuri so dago beterik sendimen beroz,
aberatsago kausitzen baitut zurekin baketuz geroz.

Ama Birjina, zure bihotza hain amultsua omen da,
nori dezaket nere bizia zuri bezenbat gomenda?
Zu ganateko amodioa zazula nitan emenda,
ene bihotza kotsola dadin eta bekatutik senda.

Ama ezia, badakit ongi duzula ainitz botere,
Jainkoak berak ezarri zaitu andre guzien andere.
Zure Semea maite dut eta maite haren Ama ere,
zuen ganako amodioan nadiela noizbeit erre.

Kontzientzia dut zure esku saildu eta ederrean,
haren laguntza segur dutala naizelarik lanjerrean.
Noizbeit ikusten balinbanauzu gaur nintzen lanjer berean,
zu jin artean hor egonen naiz bidearen bazterrean.

Mendia

Doinua: *Ume eder bat*

Mendia zoin den zoragarria, zoin den haundi ta zabala!
Bere gainean kokatzen ditu nork asma zonbat kabala?
Mendiak badu ezin dut erran zer neurritako ahala,
ainitz kabala hazten baititu amak haurtxoak bezala.

Iguzkia du alde batean ta ilargia bestetik,
biak aldizka pasatzen dira jauzika hunen gainetik.
Beti elgarri keinuka daude lano batzuen artetik,
iduri kasik jalgitzen diren mendi kaskoen barnetik.

Iguzkiak du berotzen eta ilargitan dago alai,
izarrak ere maitatzen ditu, ihintza baitute nasai.
Haizeak aldiz perekatzen tu mendi lagunak ta anai,
hiri aldeko burrunba baizik mendiak deus ez du etsai.

Mendia bertze mendiekilan bizi duzu uztarturik,
ez baitabila herra bidetan lagunekin samurturik.
Jenderen mende eskuz esku hor daudela naiz oharturik,
gu ez bezala dira elgarri beti besarka loturik.

Ur iturriak erreka xilo batzu baditu, zoin sano!
Ur horretarik etortzen zauku egun guziz etxeraino.
Ixiltasuna ta deskantsua mendiak ditu oraino,
haren gainera harri biderik eginen ez daukuteno.

Dena bidexka, ote, iratze, arbola eta harroka.
Ortziak eta zimiztak zaizko bakarrik lotzen borroka.
Basurde, ahuntz, axeri, ardi, hegazkin edo pottoka,
haren edangi freskoetarat etortzen dira lerroka.

Jaun arranoek sendi badute mendietan zerbeit hilki,
laster banazka etortzen dira mendi gainera umilki.
Nehor ohartu gabe guziak jausten baitira abilki,
mendi garbitzen arrano batzu hola dituzu ibilki.

Zoin zorrotza den gure herriko mendiko bizkar hezurra!
Mende ta mende zaharra baita, hori da gauza segurra.
Sorropila du arropatako eta gorputza du lurra,
eta neguan ez hozteko du estalgitako elurra.

Mendia maite duenak badu haren ganik mila plazer:
uretan arrain, larretan erbi, pekada, lapin ta eper.
Ta nik dakita zonbat holako eta zonbat bixta eder?
Mendi maitea, nehoiz ta nehork erran dautzia milesker?

Ezagutu zintudan lehen egunetik
maitatua zaitut nik, ta bihotz barnetik.
Erran ezin ditaken negurri gabetik
zu zintudan gogoan guzien artetik.

Begietan irria, kopetan dirdira,
nere lehen galdea: «Libro ote zira?
Oi zer zoramendua: biok libro gira!
Nere etxean daukat zuretzat kafira».

Kurutze bat ginuen gure aintzinean,
eskual eliz eder bat gure gibelean.
Egin nuen: «Oi, gu noiz eliza barnean,
arropa xuritako, espos egunean?».

Igurikatu dugu biek egun hori,
ohartu ere gabe bera da etorri,
gure gogo, bihotz ta arimen sokorri,
ezkondu ginelarik bi eskualdun xori.

Oi zer gauza ederra den hori, maitea:
gorputz eta arimak elgar emaita!
Betikotz elgarrentzat einak izaitea,
eliza batetara betan joaitea!

Erraztun bat ginuen erhian ezarri,
leialtasuna ere hitzeman elgarri.
Amodio zintzoaz baiginen egarri,
suerte hori Jaunak derauku ekarri.

Ez dut dolu ezkontza zurekin eginik,
horrek bihotz barnean ez daut eman minik.
Orai arte ez nuen gaurko atseginik,
neretzat ez daukazu munduan berdinik.

Ezkontzak gizonari emaiten baidio
itxura, zentzu eta bizian balio,
nik ere zuretako badut amodio,
zu gabe banintz orai, oi zer egin nio?

Nori zor dut ezkontza? Behar dut ikertu.
Jainkoa behar nuke bihotzez eskertu.
Nere aintzinerat zu baitzauzkit agertu,
zure bitartez dauta bizia edertu!

Ezkondu aintzinean bizirikan hila,
esmoil eta herabe andre baten bila.
Jainko maitea, Zuri dautzut esker mila!
Zure bitartez ezkont bitez bertze mila!

Zeruko Argia, 1976.10.10

Biek egin behar dugu bat

Zuk ta nik biek egin behar den arbola
ez zazula hiltzera kondena nehola!
Ni naiz abarra eta zu nere odola,
nere bizi az otoi har azu axola!

Amodioarekin ez zaitela josta!
Jostatzen denari da ainitzetan gusta.
Zuri esker baizik ni ez nitaik hosta,
nere bizi guzia ez otoi lanbrosta!

Ez otoi eror bertzen aztapar txarretan,
ni bakarrik utzi ta azken nigarretan.
Iragan behar duzu nere abarretan,
bizi guzikotz nago zure beharretan!

Zure izerdiak daut emanen indarra,
zutan hartu behar dut biziko pindarra.
Zu zira izerdia, ni abar adarra,
zu gabe eihartuko nindazke undarra!

Zurekin bizitzeko ez nago herabe,
nindazke bizi eder sano baten jabe.
Zu gabe aldiz trixte eta dohakabe,
funtsean hil nindazke, maitea, zu gabe!

Zurekin agertzeko lotsa ez nindazke,
duda gabe zu ere hala ez zindazke.
Zutaz agradatuak ainitz baditazke,
erraiozute otoi ez zirala aske.

Jinen da primadera, gu jauntzi berritan
agertuko baigira guzier argitan,
zu nere ondoan ta arropa xuritan.
Hori gogoan egon naizu berrikitan.

Etorriko zaizkida elizan ondora,
apezaren aurrean erraiteko gora
nerekin nai duzula iragan denbora;
ni're zurekin baizik ez naiteke lora!

Amodiotan ez da behar indarkatu,
bide zuzenetikan nehoiz zeharkatu.
Huntan beharko zaitut gaurkotz besarkatu,
geiago ez erranik, maitea, barkatu.

Zeruko Argia, 1976.08.29.

Amodioa nere ustean ditake jainkotasuna,
bera amore denaz geroztik guri emaiten daukuna.
Argi zirrinta baten pare da, ez da segurki iluna,
bizitzearen Jabeak berak eman aberastasuna.

Amodiorik ez zen izanen ez balitz izan Jainkorik,
jainkotasuna gutan sartzeko ez balitz amodiorik.
Gure biziak ez luke segur ez itxur ez baliorik,
ta zonbat jende ote dabila maitatzeko ez gogorik?

Amodioa ez uste izan dela gauza bat ahula,
egundaino zuk egin duzia amodioaz karkula?
Ohar zitezte gauz ederrena munduan hori dugula,
ez laike behar eskarniatu ontasun hori sekula!

Amodioak ez du mugarik, da gauza orroigarria;
herrarik ez den bihotz barnean ederki dago jarria.
Egiazkoa delarik ez da hilkor edo hausgarria,
da zure gogo bihotzaren ta arimaren egarria.

Amodiorik gabe dagonak ez du gogoan goxorik,
ez eta ere gutziarik, maitatzerako gogorik.
Alta guziek behar lukete bihotza hortaz berorik,
Jainkoak ez du munduan egin gauza ederragokorik!

Amodioa badakizue zonbat den gauza bitxia,
zoramenaren iturria da ta goizaren iguzkia.
Bihotz barnean sartuz geroztik kanporat ezin jauntsia,
burdin kadena gogorrena den bezala ezin hautsia!

Jainkoak gutan zarri duena ezin hautsizko kadena,
horren hausleak Jainko maiteak berak ditzala kondena.
Batzuendako ezkontza eta bertziendako ordena,
Jainkoak ez du gaizkirik egin, baizik guretzat on dena!

Amodioa ez da berekor, baina maizenik biena.
Ez da aberats, gogoz bederen, gauza hoi ez dakiena.
Nere ustean gure bizian da gauzarik haundiena,
ezkontza baita sakramendurik eder eta garbiena.

Zer ilundura izigarria etorria den herrira!
Goibeltasunak itzali dauku gure herriko dirdira.
Okaztatua egona nauzu haur batzueri begira:
ohartu gabe, gelditu gabe, erdaraz mintzatzen dira.

Erdara ere zein gaizki mintzo eta baterez euskera!
Oraikoan bai abiatuak gira noski gain behera.
Etorkizuna ukatzen dute, nortasuna're gainera.
Arbola ere eihartuz geroz laster badoa lurrera.

Ai, nun zirezte kontzientzia baduzuen burrasoak!
Berantegia dela erranez ez altxa gora besoak.
Begi bihotzak zabalzkitzue ez bazirezte lausoak,
bere begiak betikotz zerra ez ditzan euskal mintzoak.

Erdara ere ez dut erraiten ez dela behar ikasi,
bainan euskara lurperatua nork nahi luke ikusi?
Gure bularren barnera ez da bertzen hatsa behar utzi,
bertze lenguaiak ikasi bainan euskararik ez ahantzi.

Asko jakintsun haundiek ere euskara dute ikertu,
goresgarria hatzeman dute, ez dugu behar baztertu.
Tema haundia duenak ere gaur behar luke ulertu
ez dela behar nola nahika gurea dena lehertu.

Bego euskara bere bidean, goraki dut hau esaten,
gogorrek ere nahi ala ez bederen entzun dezaten.
Arrozkeriek ari dituzte gure haur maiteak jaten,
euskal iturri oneko ura ez dutelakotz edaten.

Ai, nere haurrak balira batzu beharko lukete hezi,
euskara ere nahi ala ez mintzatu eta idatzi.
Gureak gure atxik ditzagun, bertzenaz norat goatzi?
Gure mintzairak zendako ez du amoriorik merezi?

Haurrak erdaraz entzun orduko sumintzen nau doloreak.
Zer dira, beraz, euskalduneri egin tuzten ohoreak?
Zer estimutan hartzen ditugu Jaunak eman fagoreak,
euskaldun batzuk berak badira euskararen traidoreak?

Euskara zein den miresgarria ezin da aski estima.
Eta batzuek zangopilatzen, hau da zinezko lastima!
Euskaldunak gaur bere buruaz egiten ari du krima.
Etsimenduak jo ote dazko bihotza eta arima?

Euskara ez da mintzo baxtarta ainitz badiren bezala.
Gur'arbasoek maitexko zuten ta ez maitasun axala.
Euskara gal ta ibiliko haiz burua apal apala,
ohartu eta eskandala bat haundia egin dukala.

Euskara gabe Euskal Herririk ez ditake gehiago.
Gauza hoi ez dut nehoiz ikusi egun baino garbiago.
Euskal Herria doluminezko egunen bezperan dago,
izanik ere erdaldun batzu gu baino euskaldunago.

Begiak eta bihotzak ere behar ditugu zabaldu,
gure hatsaren jabe gauden ta ez gaitzatela zapaldu.
Kontzientzia duen jendeak konprenituko ahal du
Jainkoak eman dohain ederrak ez direla behar galdu.

Zeruko Argia, 1975.09.9-16

J. P. Mendiburu *Bertsutan ariz ikasten* liburutik

Heletan sortu zinen mutil edo neska,
bigarren herritako duzu Amerika.
Kafiratik xoria doa hegaldaka,
bainan ez du ahanzten ttipiko sehaska.

Etxea utzi izan zinuen gaixoa,
zure kafira edo sehaska goxoa.
Zer nahigabea ta bihotz ximikoa!
Badakit hemen utzi duzula gogoa.

Heletak zuretzat du haundi balioa,
ez diozu egina azken adioa.
Etxearentzat zutan den amodioa
iraunkorra da eta ezin galduzkoa.

Lehen Pestaberritan soldado izana,
mutxiko ta fandango Heletan egona,
Baigurari hainbeste behako emana,
itzul zaite herrirat, zato gure gana.

Heletan bizitzeko ez denetz ahalik,
so iguzkiari ta ez aipa itzalik.
Zatoz berriz etxerat burua apalik,
zure aiduru gaude besoak zabalik.

Etxen duzu anaia bakarrik Heletan,
zu aldiz ezkondua hor Ameriketan.
Etxearen geroa segurtatzekotan,
jin zaite ohantzerat ainarekin betan.

Pariseko Heletarra

Heletan sortu nintzan ta Parisen bizi,
ainitzek bezela dut sort herria utzi.
Bainan ez otoi pentsa dutala ahantzi,
berriz itzuliko naiz bihar edo etzi.

Gazte gazterik nintzan Heletatik joan,
bainan beti bizi naiz Heleta gogoan.
Izana gatik orai etxetik kanpoan,
berriz jin nahi nuke lana utz ondoan.

Zu etxean gelditu, Heletar gaztea,
ez dakizuna zer den herria uztea.
Ezin duzu pentsatu etxetik joaitea
zer heinetaraino den dorpe ta trixtea.

Heleta, ez da nihun holako herririk,
bainan herrian ez zen denen lanbiderik.
Aitamak hil zaizkidan hemen nintzelarik,
orai etxean daukat anaia bakarrik.

Heletako gazteak, entzun Parisetik,
herri minez joa den baten bihotzetik:
nola hartu dituzun aitamen eskutik,
etxea ta herria atxizkitzu xutik.

Ezkontzekotan omen zabilta, ene bikari gaztea,
erabakia hartua duzu apezgoaren uztea.
Kargu eder bat utzi ta gero hartu nahi emaztea,
ederki gusta beharko zaizu orai lanean hastea.

Bulta bat huntan bazinabiltzan gauaz ta berant airean,
pentsatzen nuen tenore hortan ez zinela aldarean.
Estazione-tentazione dira ardura parrean,
ez zira segur lehen aldian sartu Satanen sarean.

Orai artean ez erortzeko hainbeste zira nekatu,
bertzeri ere bekaturako bide oro debekatu.
Ta azkenean erori zira, zuhaurek egin bekatu;
bekatu egin duenak beti berak behar du pekatu.

Urrikituko zauzu uztea holako kargu noblea,
eta izertu beharko zira orai arteko doblea.
Orai artean aberats zinen, gaurtik aurrera pobrea;
zalditik jautsi behar astorat, ez duzu leku hobe.

Orai artean alfer egonik orai lanean hastea,
asko alditan urrikituko zautzu, bikari gaztea.
Zure izerdiz eta lanetik familiaren haztea,
hori da, hori, untsa gostarik zerua irabaztea.

Lanean hasi beharko duzu, ene jaun bikarioa,
biharko penaz pagatzen baita atzoko bozkarioa.
Bekatu horren penitentzia da luze ta karioa,
hori da gure hizkuntzan deitzen dugun purgatorioa.

Behar ez dena egin duenak doi bat sofritzea on du,
orai artean apez zinen ta gaur behar duzu gizondu.
Geroan ere izanen duzu kofesa ahala kondu,
ez nuen uste behar nuela bikarioa ezkondu.

Bekan gertatzen da bekatuan apez baten erortzea,
edo bederen erori dela zuk bezala aitortzea.
Hameka aldiz ospatu duzu Jesus Haurraren sortzea,
berdin kartsuki zelebra zazu zure haren etortzea.

Mediku asko berdin dabilta bertzer kontseilu emaiten,
ta gero berdin errejimena berek ez dute egiten.
Mundu hunetan beti da asko debrukeria izaiten,
arrain trufari kasu amuer, beraz huntan ixil gaiten.

Euskal irrati maiteri beha egoten naiz ordu betez,
berriak jakin nahian eta kantu ta soinuen maitez.
Uste gabeko emanaldi bat nitaratu da gau batez:
euskal kantari batzu entzunak ditut kantatzen frantsesez.

Frantsesez ere kapable zaizte, hauxe duk dohain nasaia!
Nork debru eman ote dautzue hola hasteko idaia?
Mintzairak ere aldatu nahi, hau Europaren garaia,
dohain eder hoi gorde uztea ez zena bada domaia?

Euskal populu eder hau zagon bere mugetan hetsirik,
zuetaraino ez dauku eman gizon kapable bihirik.
Alta gaur arte ez da faltatu Mixelik eta Panpirik,
zueri esker naski Europan sartuko gira bizirik.

Zuek entzunez ohartu nintzan Europan sartu nintzala,
zuen kantuen bidez badugu *repertorio* zabala.
Inglesez ere kanta zazue orai frantsesez bezala,
fruitu onenak emaitetako baitago zuen ahala.

Zuen neurriko besterik ez da, edozonek hola dio;
jende guzia xoratzen dela zuen kantuen medio.
Bazter orotan entzuten ditut denak dena laudorio,
operan edo hor nunbait zuen sartzea luke balio.

Nehork aitortu ote dautzue zaiztela artixta haundi?
Ala nehork deus erran gabeen duzue gaur hori sendi?
Kantutik bizi behar duzue *Champs Elysées* ta hor gaindi,
bide haundian sartuz geroztik ez bide erditan geldi.

Euskal Herriak orai artean sortu du kantari ainitz,
Lertxundi, Lete, Imanol eta holakoer so naiz irriz.
Zuen neurrirat hupatzekotan hasten ahal dira berriz,
naiago nuke Martikorena ere hein berean balitz.

Ez gorderik utz zuen dohainak, hain dira eder ta onak.
Aberastasun horri begira lorian gira egonak.
Lau mendetarik aldi bat dira sortzen holako gizonak,
ez uste izan faltsuak diren nik eskaini zorionak.

Zeruko Argia 1989.03.05

Kukua kantuz entzutean

Airea: Amerika hortako esne saltzaileak

Orain arte kukua nun bahindabilan
ta ni hire bilan;
hi ezin hatxemanez banian aski lan.
Ni hire ondotik ta hi atzetik burlan;
ta, hi kantuz hastean, nik santa sekulan
zentimorikan ere ez diat sakelan.

Munduan ba ote da hi bezain abilik,
hain xori umilik?
Primadera piztu duk negu hotza hilik;
hi entzutean nagok eskuak zintzilik.
Bainan otoi, kukua, egoadi ixilik,
orain ere sakelan ez baitiat pilik.

Negua pasatzerat norat haiz joaiten?
Gero nundik jiten?
Alferra haizela hi dautaie erraiten;
txantxangorri arraultzak dituzkala jaten,
ta bertzen kafiretan heureak erruten...
Norbeiten antza deat hiri hatxemaiten.

Kukua, ba ote da hi bezain urosik,
hain xori airosik?
Hire entzuten beti egoiten nauk pozik.
Hi maite ez hauenak ez dikek bihotzik,
hi kantuz entzuteak horrenbeste poz dik,
ez izanikan ere sakeletan sosik.

Egun guziz hasten duk hire predikua,
biba hi, kukua!

Hi goraltzeko diat altxatzen eskua.
Gogotik uzten diat kantuko lekua,
hirekin trixtatzeko nun da hirriskua?
Hi haiz amorearen lehen medikua.

Gu amorestatzea baituk helburua,
gora duk burua.
Kantuz alai zak beraz hire ingurua.
Euskal Herria dela alferren zerua,
dirudunentzat pausa leku segurua...
Horier ote duka eskatzen dirua?

Gure kuku maitea, zinezko artixta,
untsa daukak bixta,
gure artean diuk kanpotar pilixta.
Diru biltzen has adi, oi kuku polita,
hautetsi abertzalez bete dadin lixta,
heldu den martxo hori laster jinen baita.

Primadera ekarri duk gure ondora,
negua kanpora...
Diru galdezka orai ez galdu denbora.
Negua joan baita gibel alde z gora,
udaberria denek dezagun ohora,
sos kondatzen lagunduz apez ta serora.

Kukua entzutean bada esperantza,
ez da guti xantza;
uros denak orduan egiten du dantza.
Diru gutirekilan ainitz arramantza,
eta kukua diru galdegile gaitza,
ez ote du kukuak apez baten antza?

Kukua, diru galdez jo beti aintzina,
badugu aizina,
dirurik ez dut bainan badut atsegina.
Huntan bururatzen da ene etsamina,
dirua jainko duen apezaren mina:
dela kuku zaharren doktrina berdina.

Kukua

Zutaz pentsatzen egon izan naiz askotan,
primadera berriz has zedin asmotan.
Bainan zu nunbeit zinen gordea ta lotan,
zuhaurek badakizun gorda leku hortan.

Ni etxeko bortan,
egurrak besotan,
hasia bertsotan
ta zuri ditzotan,
etor zaiten negua kasatzekotan.

Kuku maitea, zuri nik ongi etorri;
zu jin eta negua zauku erori.
Aspaldi nahi dugun primadera hori
etzaio gaitzesgarri gaurkoan nehuri.
Nork zaitu igorri,
euskaldunen xori?
Xuri, perde, gorri,
talendutan jori,
berri ona kantatuz egun orori.

Kukua neri kantuz hortxe badagola,
ta ni hari bertsuka hemen nagola.
Primaderak berotu baitauku odola,
berriz hostatzen hasten denean arbola,
sasoinez axola
baituzu ta nola,
segi zazu hola
zure parabola,
kanta zazu, kanta, ez geldi nihola!

Apeztasuna aipatu nahi nuke hartze duen gisan,
ederragoko ofiziorik ezin baititake izan.
Edertasuna berekin dauka kanpoan ala elizan,
ahal bezenbat arima jarriz Jainko Jaunaren gerizan.

Sortu berri bat benedikatzuz bataio harrian uraz,
hautxoari du fede argia apezak eskaintzen luzaz.
Gure bizian argi galdezka baitago hainbeste urrats,
apeztasunak estimu ainitz hartze ditu egun gutaz.

Gure bizitza egina balitz gorputz ta haragi hutsez,
kabala baten pare gintazke, arras guti nere ustez.
Izpiritu bat badaukagu ta fede argia ikustez,
ez gaude trixte heriotzaren oinetan hortxe ahuspez.

Gure bizia fedeak dauku ezarri mail gorenean,
izpiritua ezartzen baitu omorerik onenean.
Bada sustengu ta soleigarri apezen botz ozenean,
hoien laguntza nork ez du nahi bere azken orenean?

Apezgoaren haunditasuna mementorik hitsenean
haundiagoa senditzen dugu beharretan girenean.
Aldare saindu baten oinetan esposatu naizenean,
apeza bera mintzatu zautan Jainkoaren izenean.

Dohakabeak dira apezik gabe dagotzin herriak,
sakramenduak nork obra eta nork senda bihotz eriak?
Nork benedika espos berriak edo haur sortu berriak?
Nola helaraz gizonetarat zeruetako egiak?

Apezik gabe nola satifa arimaren gose hura?
Ta nola kendu bihotzetarik bekatuzko asedura?
Apez maitea, zure laguntzen beharra dugu segura,
zure besotan joan behar dugu lurretik eta zerura.

Gure baitako bekatuz egin lokarriak nola hautsi?
Barkamendua noren bitartez behar litzaiguke jautsi?
Mundutarraren jite makurrak apezak ditu errautsi,
gogo bihotzen osaegile hobeagorik nun kausi?

Begira zazu ardi tropari, begiratu azindari;
artzain on baten haiduru dago, norbeit behar aintzindari.
Halaber baitu gizonak behar artzain bat bere gidari,
apeza dauku Jainkoak berak egin gure zerbitzari.

Zer trixtezia gaurko munduan apezik gabe bagina!
Bekatz egin kurutzefika ez bailitake arina.
Haurrak ere du konprenituko, jitearekin adina,
apez gaixoek artatu behar dutela gure arima.

Batzuetan da gutaz jabetzen erran nezake sukarra,
diferentzia emendatzen da nitarik eta zutara.
Jainkoak berak konbertitzen du mundutar gizon suharra,
goiz edo berant bilakatzen da egiazko zerutarra.

Fedeak baitu indar emaiten arima nekatuari,
nola apezak barkamendua aitortu bekatuari.
Kontsolamendu Jaunak eskaintzen du bihotz kezkatuari,
fede lotgarriz zeruetako gauzer estekatuari.

Esperantzaren dohainak dira girixtinoen doteak,
Jainkorik gabe, federik gabe, zer dira gure zorteak?
Apezik gabe nork eihartzetik begira gure loreak?
Lore eiharrak elgarrendako ote direa hobeak?

Elizkizunek gure bizian badaukate edertasun,
gizon artean hedatu nahi dute bake ta maitasun.
Jainko maitea, ez nakiela zure seme nindaukazun,
azkenean dut konprenitu're zer galdegiten dautazun.

Zer ginitaizke ez baginu hor Zeruetako Aitarik?
Sakramendurik ez bada hartzen ez da arimen pestarik.
Apez maitea, esker biziak hartze dituzu nitarik,
Jainkoa bera ez bainezaken hatzeman nere baitarik.

Jainkoa bera sartuz geroztik ni naizenaren etxean,
nere bihotza lorian dago Jauna bera beretzean.
Haren argia beharrezkoa dauka bere sahetsean,
indarra bera gal bailezake ilunduraz jabetzean.

Berenaz argi guti badator lurreko gizonetarik,
bizia zer den, mundua zer den pentsatuz egonetarik,
ez nadiela sekulan urrunt sendimendu onetarik,
aldarearen sahetsetik ta apezaren oinetarik.

Edertasuna apezak baitu emaiten eliza pester,
bozkarioa helaraztean batzueri eta bester.
Apezak izan ditela beti munduan eskuin ta ezker,
gogo bihotzak argi ditezen fede argiari esker.

Jesus maitea, lagun nezazu ez nadien mintza gaizki;
apez gaztea, bi erakспен emanen daukitzut naski:
euskal seme haiz ta behar huke euskara bizi atxiki,
hiauren aitak ere mintzo dik frantsesa baino hobeki.

Batzuendako zer bekatua agertzen bahaiz euskaldun!
Euskaldungoak hainbeste etsai hemen berean dik egun.
Paris-Madrilgo gobernu tzarrak utzkiguk hemendik urrun,
t'Euskal Herria beti atxikak euskaldun eta fededun.

Euskara aipa orduko batzuk laster galtzen die funtsa,
bizkitartean Jainkoak berak egin du euskal hizkuntza.
Zuzenkontren jaun aberatseri ez zakal'egin laguntza,
ta beti orroit Jesus maitea ez zela, ez, aberatsa.

Injustiziak ikusi eta ez hadila egon ixil,
unionia predika eta hi sua pizten ez ibil.
Sobera apez alderdikari bide hortarik baitabil,
apezak Jesus zerbitza beza t'ez sar gobernuen mutil.

Jainkoa eta dirua biak ezin ditazke zerbitza;
apeza diru mutil badago, zertako Jesusez mintza?
Kurutzeratu zuten gaixoaz minuta guziez hitza,
ta gero gaurko kurutzefikatzaileen alde badabiltza?

Apeztasunak beraz baditu, garbiki erran, bi molde:
amodioa predika eta herra sorrarazle daude.
Gelditasuna manatu eta gure lehertzailen alde,
bakea guri prediku eta gerlariekin baitaude.

Xalbador

Mixel Itzaina gai emaileak:

–Jean Pierre, badakiat hiretako zer lekua atxikia duen Xalbadorrek hire bizian; badakiat. Nahi nitek hiru bertsutan gai hau erabil dezaiguk: Xalbador. Mendiburuk:

Hiru bertsutan Xalbador aipa egin dautazu galdea,
gutarik eta hartara bada izigarrizko aldea.
Egia erran, bera baitzagon dohain ederren jabea,
Giputz, Bizkaiko ta Nafarroko guziak baino hobea,
bertsulari bat zoragarria, nihun parerik gabea.

Xalbador zenak bazuen zentzu, ausartzia ta kopeta,
bere herrian joko dut pozik goresmenezko tronpeta.
Bertsularien artean baitzen hura zinezko profeta,
bat batekoan arraroa ta bertso idazten perfeta,
berdingabeko bertsulari ta neurri gabeko poeta.

Euskeraz ere aberatsa zen ta dohatua talenduz,
haren bertsuak barnakor finak ta barna zauden zimenduz.
Bere dohaina lantu zuen ta bete zen merezimenduz,
gaur esker onez hemen gaude gu beraren atxikimenduz,
haren parerik nehor ez gaude zentzu eta adimenduz.

Gure errirentari

Airea: Galerianoa

Agur, Alain Martineau, gure errienta,
zure esker onez da gaurko gure pesta.
Gure eskolatzeaz baitzinuen arta,
hemen bilduak gira mutil eta neska.

Besazpian gitarra, eskuan xirula,
hamalau urte ditu etorri zinela.
Gutarat eman duzu zinuen eskola,
ezin zaitu ahantzi Luhusok sekula.

Musika eta kantu dituzu zabaldu,
zuretzat estimua nehork ez du galdu.
Ta orai behar duzu Kanborat urrundu,
eskerren emaiteko gira hemen bildu.

Euskaldungoa duzu guri maitarazi,
antzerki asko ere duzu erakatsi.
Zuk egin lan ederra ezin da ahantzi,
hamar minuta txalo zinuzke merezi.

Bizitzan bada beti pena ta atsegin,
ta lokarri guziak ez daizke desegin.
Luhusotik bazoaz ainitz penarekin,
emazte xarmant bat ta bi haur pollitekin.

Ez da bide luzea hemendik Kanbora,
bainan Euskal Herritik ez zoaz kanpora.
Zato artetan otoi gure ikustera,
gure etxetan segur maitatua zira.

Kanborat joaiteko gaituzu utziko,
Luhusoko eskola utzirik betiko.
Bainan munduan giren denbora guziko
ez zaitugu, Martineau, nehoiz ahantziko.

Alain Martineau, beti gutaz orroit zaite
Luhustar haur ohiek zaitugula maite.
Bainan ez beti egon gutarik aparte,
beraz ez adiorik, bainan ikus arte.

Ainitz penarekin jakin dugu Kanbo-ko eskolarat izendatua izan dela jaun Martineau, gure errieta. Bazuen 14 urte gure artean zela eta beraz Luhusoko haur frango moldatu duela.

Huna bere lehen urtetako eskolierrek (orai hainitzek 20 urtez goiti dute) eskolako pestaren karietarat kantatu dazkoten bertsu hunkigarriak. Erran gabe doa gazte horien ait'amak ere bihotzez juntatzen zirela hoién kantuari. Ukan du ere hartze goresmen frango: haur ttipiagoenak, herriarenak, burrasoenak.

Milesker handi batekin guk ere erraiten diogu kantuak dion bezala: «ez adiorik bainan ikus arte».

Batzuendako larrazkena da, bertzendako udazkena,
egia erran, azken uda da, hori da uda azkena.
Urtean diren lau sasoinetan ez ote da ederrena?
Primadera hotz, uda euritsu, ederrago larrazkena.

Larrazkeneko egunak dira eztiak eta goxoak,
nork tu hastiro, udazkena, zuk ekarri haize hegoak?
Nahiz arbolek galtzen hasiko dituzten beren hostoak,
iratzepean bil ditzazkegu gaztainak eta onddoak.

Ainarak ere joanen dira, negua baita hurbildu,
bainan horra nun ordainez diren urtxoak tropaka heldu.
Ihiztariak nahi luzkete beren saretara bildu.
Beraz larrazken maitagarriak mila plazer ekarri du.

Ihiztariak larrazkenaren beha zauden aspaldian,
lapin erbiak ihiztatzeko zelaian eta mendian.
Bas-oilo, eper, urtxo ta bertze, ihiztarien guardian,
atsegin haundi ainitz badago larrazkenaren erdian.

Piko xuri-beltx, martxux, mahuru, madari, sagar, mahatsak
ez ote dira, larrazkena, zuk gizoner egin emaitzak?
Urtxoeren beha mila ezkurrez beterik daudela haitzak,
hur eta intzaur biltzen punpeka dabiltzalarik urtxintxak.

Primadera ta uda ere bai ohartu gabe joan dira,
bizia ere berdin badoa, larrazkenaren erdira.
Hobekiago estimatzen da iguzkiaren dirdira,
hortarik landa negu beltzaren hoztasunean baigira.

Herria, 1999.X.25

Lehenik azaroa ta gero horra heldu abendoa,
ta goiz guzietz jeiki orduko bordaraino zuzen noa,
oraino nitan garraitu gabe neure bi begien loa,
ikusi nahiz ner'artalde denetz oso ta sendoa.

Atean sartu bezain laster tut pizten bordako argiak,
batzu etzanik, bertzeak xutik, hor daude neure ardiak.
Beren orroez neri agurka belarra galdez erdiak;
bezperan bete mañategiak dituzte garbi garbiak.

Sorroa nasai eman ondoan, ardi gaixoen bihotzak
neri eskerka bezala daude, ta hoietarik bakotzak
neri begira ta inguruka ez dauzka estimu hotzak,
iduri kasik neri eskaintzen tuztela beren bildotsak.

Batzuk bildotsak deitzen ditugu, bertze batzuk axuriak,
nahiz batzutan beltzak badiren geienak dira xuriak,
eztitasunez zeruetako aingeruak iduriak,
Zeruko Amak goxo guziak bildotser tu ixuriak.

Nere besotan erabiltzen tut bildots ezti ta goxoak,
umiltasunez beteak diren izaite garbi gaixoak.
Bildotsa, zure garbitasuna balauka mundu osoak,
ez ginezazke bildots ebasten ta jaten ikus otsoak.

Bildotsa, ile kuxkulatua, erran ote derautzute
badaukazula ainitz gizonak baino geiago bertute?
Umiltasuna, eztitasuna zutaz bertzerik nork duke?
Gizonak ere gizonagoak litaike doi bat balute!

Egun artean bildots ttipier ez dut hoinbeste kasuman,
ez eta ere hoinbertzedino pereka ta musu eman.
Haur bat bezala horiekilan solaska nauzu hatxeman,
ai bazinaki zoin goxo zuen orai nintzen erresuman!

Ez dakikezu nola den ere hoién besotan hartzea,
gizon zirela ahantzi eta haur bat bezala artzea.
Zoin laiken eder haur bat bazine bildots artean jartzea!
Bortitz litake aments hortarik gizon artean sartzea.

Belarrian hatz, begiak dantzan nintuen egun goizean,
ene alabak barda nihauri erranetaz orroitzean:
«Pena haundi bat ezarriko dut, aita, zure bihotzean,
ta pena horren sor iturria dago ene sabelean».

Apur batean uste izan dut trenpu txartua nintzala,
ez bainakien ene alaba bekatu bidez zoala.
Hamasei urte baizik ez eta emazte baten ahala,
ene alabak egin behar du beraren amak bezala.

Hola dagonaz gogoan hartu aitak erraten dauzuna:
haur botatzerik ez otoi asma, ez da hura hobenduna.
Orduan erran izan dautanak ekarri dauta iluna:
aingeru horren aita beharra ez zuela eskualduna.

Debru ezarri nauzu, ene alaba, orai ta
halere ongi hartu beharko dezazuen elgar maita.
Ez baitiot nik haur ttipi horri kendu nahi bere aita,
amodioa hil araztea bezain trixterik ez baita.

Erranen duzu ez dutala nik bertzen bizia manatzen;
amodioa Jainkotik dator, Harek du guri hedatzen.
Amodioak ez du mugarik, ez zaitut hortan tratatzen,
bainan bakarrik eskuara galdu ez dadien dut galdatzen.

Amodioak oihua du ta kontzientziak garrasi,
sendimenduzko loeriatik atzartzen behar da hasi.
Ez baduzu nai gure etxean arrotasunik nahasi,
behar diozu mutiko horri eskual mintzaira ikasi.

Gauza nekea izanik ere mintzaira bat ikastea,
bide bakarra hori ditake, ene alaba maitea.
Atsegin haundiagoz nik ere bihotza nuke betea,
zuk maite duzun mutiko horri idekitzean atea.

Laurogoi eta hamar huntako urtarril hamargarrena,
Bordagaraiko etxearentzat zen egunik ederrena.
Bi seme betan munduratzea hain bekan gertatzen dena,
lehen lehenik ait'et'amari doa nere goresmena.

Orai aitatxi ta amatxiri hasi behar dut kantari,
zuentzat ere berri on hori ditaike atsegingarri.
Zuen etxeko etorkizuna lore berritzen da ari,
zueri ere mila zorion, Bordaiko Martin ta Mari.

Beste bertsu hau zuendako da, Jean Pier ta Bernadeta,
hainbertze etxe galtzerat doa karlosen¹ esku daude ta.
Alaba eta bi semerekin etxea galtzerik ez da,
zuek bezala maita bitzate Bordaia eta Heleta.

Zuen ezteiak aspaldi ziren, zonbat urte da pasatu,
orduan zuer nik kanta zerbait norbaitek daut gogoratu:
erran nuela parezkakoak ahal zirela gertatu...
Ez naiz orroitzen hoi kantaturik; egia bada, barkatu.

Bihotzaren erditik goresmenak!
Herria, 1990.01.10

¹Karlosak deitzen ditugu mutil zahar donadoak. (E. L.)

Gure Euskal Herria da toki pollita,
leku ederragorik munduan ez baita.
Gure xoko pollit hau dezagula maita,
kontent izanen dira ama eta aita.

Aitamek ere zuten leku hau hautatu,
eta beren bizia herrian moldatu.
Gure xoko pollitak parerik ez baitu,
guk ere behar dugu etxean gelditu.

Gure pentze perdeak ta mendi pollitak
xoragarriak dira, bizitzeko hautak.
Pestaberri, feiriak ta herriko bestak,
bertze nihun ez diren usaia xarmantak.

Nun da Euskal Herrian bezenbat kantari?
Hemen bezenbat besta, soinu ta dantzari?
Hoinbeste musikari, hainbat pilotari?
Bertze nihun ez dute alegantzi hori.

Maita ditzagun beraz aita eta ama,
herri amodioa sartuz gutan barna.
Ama Herria dator galdezka gu gana,
xoko hau bizitzeko sor dezagun lana.

Urtxo, lapin, urtxintxa, arrain eta eper,
lore, onddo ta mendi, zonbat gauza eder!
Arrano ta pottokak eskuin eta ezker,
horien guzientzat, Jainkoa, milesker.

Mendian ihiziak, urean arrainak,
arboletan xoriak kantari bikainak.
Pottoka, onddo, urtxintx edo hegazkinak,
Jainko maitea, dira denak Zuk eginak.

Kabala, jende ta lur, badaukagu xantza,
arrantza ta artzaintza edo laborantza.
Hainbeste kantari ta musika ta dantza,
herri bat biziko da, ez gal esperantza.

Ainitz joaiten dira herritik kanpora,
bizitze hobe baten baitute mentura.
Gaixoak ez dakite galtzen duten hura;
geroan orroituko zaiote ardura.

Herritik urruntzeak sortzen duen mina
hemendik joan aintzin da ezin jakina.
Sorlekutik urrun da hainbeste xangrina,
hemen gelditzea dut hautua egina.

Baserri ederrean lantuko dut lurra,
edo berdin burdina, harri edo zura.
Hemen bada bertzetan ez daukaten hura:
gure aitamek utzi euskaldun itxura.

Euskal Herriarentzat badut amodio,
bertze zoin eskualdek du hoinbeste balio?
Ez diot herri huni erranen adio,
munduko itzulia iragan artio.

1990.04.03

Esposentzat Jaunari

Esposentzat Jaunari dugun otoitz egin
ukan dezaten beti xantza ta atsegin,
zorionean bizi ditzen elgarrekin,
Jainkoak lagun ditzen Jean Mixel ta Aline.

Gure otoitza beha, Zeruko Jaun ona,
emazu esposeri zure zoriona.
Aline ta Jean Michelen bihotzetan barna
amodio zintzoa zabal zazu, Jauna.

Aldare oinetarat dituzu ekarri,
plazer eta penentzat loturik ezarri.
Emozute kuraia eta osagarri,
ta lagunt beti leial egoiten elgarri.

Lekuineko elizan, esposetan bezti,
egun lotzen baitira bide berri bati.
Elgar errespetatuz, estimuan ezti,
gaurko amodioan atxizkitzu beti.

Munduan bada hainbat gertakari ergel,
esposen batasuna diotenak goibel.
Gure otoitz kartsua bedi Jaunari hel,
lagunt ditzen bizian Aline ta Jean Michel.

1990.10.06

Lekuineko elizan

Ameli eta Joseph egungo esposak,
bizi berrian izan ditela urosak.
Jainkoari doatzi guk egin otoitzak,
graziaz bete ditzan esposen bihotzak.

Amodiotan zintzo baitira ibili,
ezkontzak bat eginak horra bi famili.
Jainkoa ganat gaiten otoizka itzuli,
uros izan ditezen Joseph ta Ameli.

Urruñan bildu gira Jaunari otoitzez,
har dezan beti arta egungo esposez.
Ez ditenehoiz geldi geroaren lotsez,
ta beti elgar maita dezaten bihotzez.

Bi Zubiria gazte baditugu hemen,
izen kanbiatzerik ez dute ukanen.
Joseph ta Ameliri milaka goresmen,
agian luzaz uros zirezte izanen.

Zeru lurren Jainko den gu denen Aitari,
esposentzat Urruñan gira kantuz ari.
Ukan dezaten xantza eta osagarri,
leialki jarraitzeko gaur eman hitzari.

1990.10.27

Urruñako elizan

Zorion eskean

Jainkoari eskainiz egungo ezkontza,
apezak emaiten du aldarean meza.
Egungo esposentzat, Jauna, otoitz beza
graziaz bete ditzan Jean Pierre ta Maitexa.

Jainkoari baigaude zorion eskean,
argi ditzan esposak plazer ta nekean.
Arrosak egun batez, arantzak bestean,
atxikazu kuple hau maitasun betean.

Zure laguntza ukan dezaten bizian,
berdin atsekabean ta alegrantzian.
Adimenduan eta maitasun grazian,
begirazkitzu, Jauna, bizitza guzian.

Esposen atseginaz gira partalier,
goresmen bizienak bien familier.
Jainkoaren grazia jauts dadila bier,
uroski bizi ditzen Maitexa ta Jean Pierre.

Egun iguzkia ta biharko euria,
begi beretik sortzen nigar ta irria.
Jainkoa, gida zazu famili berria,
gaizkitik begiratzuz hauien iturria.

1990.12.08
Senpereko elizan

Aiherrako erretor zinelarik, Emil,
idatzi zinarauztan zonbeit lerro abil;
ta ni lanari lotu xintxo eta umil,
bertsu xume ta xuxen batzueri hurbil;
zuri eskerrak dela medio banabil.

Fakturrak zure letra zerautan ekarri,
xeheatasun guziak zinauztan ezarri:
truntxoak nola molda, pikoak nun jarri...
Jendek jakin bezate: banaiz bertsulari,
nitan den on guzia zor dut Emil Larri.

Bertsutan banabila eskuin eta ezker,
ahalaz ateratuz zonbeit bertsu eder,
atsegin eman nahiz batzu eta bester,
nor den nere maixua salatzen dut dener:
plazaratu naizela Emil Larri esker.

Pellot kapitaina

Entzun, entzun denek, aipatzerat noa,
Jaun Ixtebe Pellot Hendai aldekoa;
itsas agintari hogoi urtekoa,
Hendaiko kapitain ospe haundikoa.

Itsas untzi hartan berrogoi gudari,
alaitasuna zen barkuan gidari;
kurai emaiteko bazen soinulari,
aupa gudariak, gora xirulari!

Etsaien uretan, lanoaren pean,
gure itsas untzi lapurra sartzean,
ingelesen untziak hor kurutzatzean,
han «*I am the Pellot*» oihu egin zian.

Etsaiek ustez ta beren laguna zen,
ohar gabe ziren zepoan erortzen.
Borroka luzea hortan hasi baitzen,
euskal gudariak zituzten garraitzen.

Ingles kapitainak hasarrean dio:
«Zuek borrokatzen diruarendako.
Inglesentzat aldiz ohorea bego,
guzien borrokak zerbeit du balio».

Untziko sotoa urrez kargaturik,
kapitaina uros dirua harturik.
Hark bost ehun lia¹ balio geroztik,
inglesen dirua lotan dagolarik.

Errepika

Gora gure Pellot, gidari alaia,
Axeri abila, ideiaz nasaia.
Aise enganatu baitaiku etsaia,
biba zu, Ixtebe, euskaldun anaia!

¹ Ehun *lia* erraiten dugu, oihukatzen, apostu egitean, ehun liberarendako. Bainan orduko liberak? (E. L.)

Mundu hobeago ta ederragoa

**Xalbadorren 15garren urte burukari,
mezan, Urepeleko elizan**

Eliza bezain gauza ederrik mundu guzian badea?
Jainko Jaunari hel arazten dut Urepeletik galdea:
beti euskaldun atxiki dezan Euskal Herriko jendea,
sekula santan ez diten galdu euskara eta fedea.

Erizain eta artzain ta bertze, giroa da sumindua,
lan gabezi ta ezin bizi az mende hau da samindua.
Iduri luke, Jainko maitea, nunbeit zauden urrundua.
Hobeago ta zuzenagoa eizu langilen mundua.

Eri ta xahar eta ixtripu bada munduan askitsu,
mundu huntako berri guziak, Jainko ona, badazkitzu.
Gure galde ta gure otoitzen dei suharra hel bekizu:
gaurko mundua ederrago ta hobeagoa egizu.

1991.11.03

*Xalbador zenaren 15garren urte buruko mezan,
Urepeleko elizan.*

Zuen denboran ezagutuak aitzurra eta goldea,
desberdina da egungo gazten laborantzako moldea.
Gaur urusago behar lukena gibelago da jendea,
aldatu dira zuen garaiko jostetak eta fedea.

Gazte denboran ibili zaizte ainitz aldiz biltzarretan,
esperantzaren indar haundia zabaldurik bazterretan.
Eskualdun kartsu eta suharrak zuen urrats guzietan,
zueri esker zernahi gazte gelditu zen herrietan.

Zuen denboran dena esku lan, bazen elgar lagundua,
gaurko gazteak tresnen artean iduri luke galdua.
Barnez airosa duzun biziak kopeta du ilundua,
noiz bada berriz ikusiko da zuen garaiko mundua?

Eskualdun gazte lehenekoak, atera zaizte festara,
egun goxo bat iragan eta joanen zaizte etxetara.
Zuen haurreri lehengo eta oraiko gauzak konpara,
Eskual Herriak ez ditzan galdu esperantza ta euskara.

Zuen gazteko laguna frango ez dira mundu hunetan,
bainan halere bizirik daude zuen gogo bihotzetan.
Meza hau ere emana baita heien orroitzapenetan,
etzazuela nehor ahantzi egun egin otoitzetan.

Telebixta so, irratia pitz ta kazeteri so nago,
bazter orotan egun guziez bada berri txarra frango.
Jaun Zerukoa segurraz ere guzieren beha dago,
gure mundu hau egin dezala eder eta goxoago.

Bi gauza dira garrantzitsuak: fedea ta osasuna,
horiek biak badituenak du nahiko ontasuna.
Hirugarrena ezar nezake protsimoen maitasuna,
Zeruko Jauna, zure esku da galdegiten dautzuguna.

Hainbat ezbehar gure artetik urrunt ote ditazkea?
Bederen galda dezagun eta Jaunari egin eskea.
Karitatea kario bada otoitza bada merkea,
Jainkoak zabal bitza munduan maitasun eta bakea.

Bertsutan nola hasi?

Bertsutan hasi nintzan maite nuelakotz,
joko berezi eta ederra delakotz.
Eta, ahal dutano, ene indar oroz
hortan jarraikiko dut bihotzez ta gogoz,
herria ta hizkuntza bien amodioz.

Ez dakit nolaz egin naizen bertsulari,
ohartu ere gabe hasi naiz lanari.
Herriari nahian zerbeit on ekarri,
talendu guzia dut lan hortan ezarri,
euskara ta Euskadi bien zerbitzari.

Amen pesta

Ama guziak dira egun ohoratzen,
eskerren bihurtzea zauku gogoratzen.
Noizean behin denak baigira ohartzen
ama baten bihotza ez dela ordaintzen.

Amen pesta da egun ospatzen duguna,
merezitua dute holako eguna.
Ama, zu ganik heldu da goxotasuna,
esker onez har azu gure maitasuna.

Amentzat bada egun lore eta musu,
amarendako bada esker ona usu.
Izar bat zira, Ama, ta merezi duzu
haurren ganik hoinbertze hitz goxo amultsu.

1993, Heletan

Jendetasun ta fedea

Asko gisetan batzuen faltaz mundua da ilundua,
gizontasuna, jendetasuna bihotzetik urrundua;
amodio ta goxotasuna bere baitarik galdua,
ta erresumen artean beti elgar hiltzeko gudua.
Jainko maitea, ederragoa egizu gure mundua.

Eri ta xahar dolumin frango, Jainko maitea, dakizu,
ixtripu, droga, kanzer ta sida eta bertze gaitz askitsu;
lan gabezia, jornal apalak, zerga axurantzak pizu,
laborari ta artzainen grinez etzaitela egon itsu,
Jainko maitea, gaurko gizarte zuzenago bat egizu.

Elgar estima ta errespeta dezan jendeak jendea,
Jainkoa, gutan finka zaiguzu ongiratzeko xedea.
Ez baita berez hobea heldu badatorkigun mendea,
egizu, Jauna, ez dezagun gal girixtinoen bidea,
Euskal Herrian begiratzeko jendetasun ta fedea.

1993

Esposen goresteko prest presta nindagon,
Saint-Martin ta Helenei begira naiz egon.
Halaber ere dira Alice eta Leon.
Bizian bada beti gauza txar eta on,
ukan bezate esposek xantza ta zorion.

Denen partez goresmen, gaurko jaun esposa,
Heletako klikaren gidari airosa.
Musika da bizian gauza baliosa,
musikaz bete duzu Maiteren bihotza,
txalogarria da bai holako ezkontza.

Andrek arrapatu du Maite bat xarmanta,
eta Maitek ere bai Andre bat galanta.
Egun pestan ditugu Itsasu-Heleta,
amodioa gauza ederrena baita.
esposentzat dezagun egin esku zarta.

Batzuk espos eguna dute iguzkitsu,
zernahi konplimendu, lili eta musu.
Iguzki gutirekin Heleta-Itsasu,
bainan espos eguna delarik euritsu,
espos heiek bizian dira zoriontsu.

Andere esposa, zu xuri xuriz bezi.
Itsasuko alaba goxo eta ezti.
Gaurtik aintzina zira deituko Urruty,
lotu zira klikako musikari bati,
zuen bihotz musikak iraun beza beti.

Jaun andere esposak, bier laudorio,
bihotzean duzue ainitz bozkario.
Gizonak ezkontzean andreari dio:
«Gure biziak zerbeit duela balio,
elgarrentzat delarik ainitz amodio».

Agur, espos maiteak, uros izan zaizte,
bizi guzian izan beti elgar maite.
Musikari ttipiak geroan jin bite,
beraz zuen etxea ñiñi ttipiz bete,
aitatxi amatxiak enoatu arte.

1993.09.15

Pilotaria xuritan bezti, jo eta jo beti, azkar ari da.
Pilotazaleak airos joaiten dira beti gure plaza erdira.
Pilota bezain joko ederrak, ederragokoak nun ote dira?
Zer plazerra egoitea gure euskal pilotarieri begira!

Segi, gazteak, jo pilotan,
trinket edo plaza laxotan.
Zueri begira gaude beti, haundi ttipi,
lorian ta txalotan.

Eskerrak gure burrasoei, bai eta euskaldun arbasoeri,
pilota euskal joko ederra utzirik gogo bihotz altxagarri.
Euskal Herriak eta eskuarak pilota daukate beren lokarri.
Euskaldunak bere nortasuna parte handi bat zor du pilotari.

Segi, gazteak, jo pilotan,
trinket edo plaza laxotan.
Zueri begira gaude beti, haundi ttipi,
lorian ta txalotan.

Zer laike Eskual Herria, ez balu trinketa eta plaza laxorik?
Zer laike Eskual Herria, ez balu bere euskal pilota jokorik?
Mundu guzian ez da deusik
pilota den bezain ederrik.
Ez da kirolarik eskualdun pilota den baino ederragokorik.

Munduko pilota xapelgoak
Lapurdin, 1994

Meza hastean

Heletar denek behar ginuke izan omore onean,
jaun ertorari omenaldi bat eskaintzen den egunean.
Apeza nor den estimatzen da apezik ez dugunean,
zortzi urte du Manex Huntzarren daukagula aintzinean,
egun goresten ta eskertzen dut zuen denen izenean.

Jaun erretorak hoita bost urte apez karguan beteak,
hortakotz gira meza hunetan bildu batzu ta besteak.
Goresmenekin etorri gira xaharrak eta gazteak,
eskergarriak baitira apez pasa dituen urteak,
omenaldi hau merexi zuen gure jaun ertor maiteak.

Komunione ondoan

Hogoi ta bost urte apez
Krixtoaren argia maitez
eman dituzu bihotz guziaz eta borondatez.
Heletar guzien partez
goretsia izan zaitez,
ta sail berean berdin jarraiki bertze hogoi ta bost urtez.

Zu ganat gira hurbildu,
omenaldi huntan bildu,
zu apezteak mende laurden bat aurten betea du.
Bataio edo ezkondu
ta gure hilak lagundu,
egin dituzun guziendako esker onez gira heldu.

Egun guzitako meza,
Pestaberri ta kermeza,
Heletak ere hatxeman zuen behar zen apeza.
Berritu dugu eliza,
gure herriko bihotza,
agian luzaz parropia hau zazula Jauna zerbitza.

Meza bukatzerat doa,
altxa dezagun gogoa,
omenaldi hau izan dadila bihotz betekoa.
Pesta ederra gaurkoa,
esker dezagun Jainkoa,
jaun erretoa bat eman baitaiku guk behar bezalakoa.

1994.12.18

Hemen bilduak gira amen bestakari,
begietan irria, bihotzak kantari.
Goresmen ta zorion ama bakotxari,
nor da munduan ama bezain maitagarri?

Ama, zuretzat dira musu ta liliak,
gure maitasunaren ezagutgarriak.
Gure baitan dauzkagu sendimen biziak,
besta on bat zueri, ama on guziak.

Amen besta baitugu ohoratzen egun,
bihotza goxo dugu, aurpegia legun.
Amaren estimua beti da ezagun,
egun ama guziak ohora ditzagun.

Ama, zutaz orroitzen naizen bakoitzean,
amodio fina dut sendi bihotzean.
Ama baten falta da ageri etxean,
beti nahi zaitugu gure sahetsean.

Ama, izar bat zira, erran gabe doa.
Zure distira dago neurri gabekoa.
Zure besta da, ama, lorietan noa
zuri desiratzerat besta bat goxoa.

Amak garbitzen ditu etxeko bazterrak,
sukalde ta baratze, bai eta ganberak.
Haskari ta bazkari, afari ederrak...
Zuk egin guzientzat, oi ama, eskerrak!

Amak zer balio du? Dezagun karkula,
eta errespetua guk ez disimula.
Hitza arina da ta bertsua ahula,
ama, zuri erteko maite zaitugula.

Etxen ala kanpoan haundi duzu fama,
haundia duzulakotz bihotzaren zama.
Zure goraiptzerat gaurkoak nerama,
milesker ta besta on, bihotzeko ama!

1995

Heletako pestak

Heletan pestak dira Andredena Mariz,
Agorril erditsutan, ohidurek nahiz.
Bada denen gostua kantuz eta irriz.
Ez da Heleta bezain herri airos ainitz.

Pesten antolatzeko gure gazteria
paregabekoa da, gauza ageria.
Pilota, kantu, dantza... Gazteri berria,
beti maita zazue Heleta herria.

Maitagarriak dira mutil eta neska,
Heleta biziko da, ez zaitela kezka.
Zoin den gauz ederrena, hor zaude galdezka.
Pestarik ederrena da zikiro pesta.

Zikiro pesta hunek zer edertasuna!
Gazten laneko funtsa zer anaitasuna!
Ageri elgarrentzat duten maitasuna.
Zoin da Heleta bezain herri euskalduna?

Herriko pestetan ta Pestaberrietan,
kantari, dantzaldi ta gure feirietan,
jin alegeratzerat gurekilan betan.
Omore ona beti badugu Heletan.

Denise egungo andere esposa, sortua Gerezieta,
aurpegia du ezti eta irri on bat begietan.
Bainan zer sendi dute aitamek alabaren ezteietan?
Azken xoria airatu zaie Etxemendizaharretan.

Beren hegalk azkartuz geroz hori gertatzen da beti,
aita ta amen begiak dira plazer nigar batez busti.
Beren alaba eskaini dute goxo, eder eta ezti,
goresmen eta ohore beraz Pier ta Elixabeti.

Arginbordako familiaren aipatzen behar dut hasi,
goizik alargun, bere bost haurrak ohorezki ditu hazi.
Kargu horretan bere laguntzen beharrik hor zen amatxi,
goresmen eta eskerrak bier: amatxiri ta Mañexi.

Philippe Cachenaute zu jaun esposa goxo eta maitagarri,
izar batekin parekaturik betikotzat zira jarri.
Bi familia hola elkartuz ez ahal da xoragarri?
Gerezieta ta Doneztiri lotu zaizkigu elgarri.

Espos maiteak, biak zirezte gazteak eta airosak,
eta guziek ongi dakigu zareztela baliosak.
Zuen bizian izan zaiztela zoriontsu ta urosak,
goresmen eta zorion zuer, gure egungo esposak.

Denise ta Philippe, lorios zaizte irri ezti bat begian,
ta bihotzaren berotasuna zuen ezpainen hegian.
Ta lore pollit batzu sortuko dira zuen mindegian,
eta urrezko ezteietarat helduko zaizte agian.

Denisek lana aspaldi huntan du Lafitte mindegietan,
eta Philippe aldiz ari da Sony deitzen den horretan,
Bestalde ere, ikusia dut, trebe da tindur lanetan,
eta kirola kondu ari da futboleant ta pilotan.

Uztaritzeko ikastolaren ondoan dira egoiten,
ta plazer nuke beren haurtxoak hor balituzte emaiten,
Pierren eta Elixabeten hizkuntza ikas dezaten,
eskuara orai ez baita geio gure etxetan ikasten.

Arginbordako Mañex ere da Heletakoa izanki,
nere auzoan sortua baita Karrikartekoa naski.
Philippen aita Mañexek beraz eskuara ongi badaki,
ene gisa du eskuara mintzo frantsesa baino hobeki.

Karrikartea aipatu baitut geldi gaiten leku hortan,
Karrikartek tu bertsuak maite ta bera dut orai bixtan.
Konkurrentzia animalia badugu orai Heletan.
Karrikart eta Agerre biak pasten dira telebixtan.

Telebixtatik ikusi dugu *Gazte zezen* famatua,
ta Karrikarten emankizuna ardier kontsekratua.
Nik ez dut entzun bainan frantsesa omen du masakratua,
hortik ezagun gure eskuara zonbat den gauz sakratua.

Eskual Herria deus ez litaik e galduta eskualdungoa,
espos maiteak, eskualdun atxik bihotza eta gogoa.
Eskual Herriak eta eskuarak haundi dute balioa,
zuen haurreri emakozute herriko amodioa.

Denise ta Philippe, hemen nauzue zuen oseba zintzoa,
bier dautzuet argi zabaldu ner'odolaren mintzoa.
Gaurko eztei hau izan ondoan ederra bezain goxoa,
airos ta uros pasa zazue zuen bizitza osoa.

1995.06.10

Denise eta Philippe dira lorietan,
amodio zintzoa dute bihotzetan.
Horientzat Jaunari gaude otoitzetan,
lagunt ditzan biziko urrats guzietan.

Amodioak ditu hunarat ekarri,
gure bixtan lotzeko bizi berriari.
Leialtasunez lotu baitira elgarri,
ukan bezate xantza eta osagarri.

Bizitzean badira argi ta itzalpe,
batzutan egun onak ta bertzetan dorpe.
Gertatzen bada zerbeit nahigabe kolpe,
begirazkitzu, Jauna, Denise ta Philippe.

Huna bi espos gazte aldarean irriz,
beren baitan badute esperantza ainitz.
Jaun Zeruko onari dugun galda berriz
uroski bizi diten Philippe eta Denise.

Denise andere espos, Philippe jaun esposa,
izan bedi bizian kuple bat urosa.
Entzun, Jaun Zerukoa, guk egin otoitza,
graziaz bete zazu egungo ezkontza.

*1995 ekainaren 10ean
Gerezietako elizan*

Otaba dugu gaurkoa,
besta pare gabekoa,
Jaun Zerukoa ohoratzeko baitezpadakoa.
Egungo besta goxoa,
denen bihotz betekoa,
guziek betan gorets dezagun zeru lurren Jaun Jainkoa.

Lurrean pena askitsu
badela, Jauna, dakizu;
dolumin eta eritasunak ikusten dituzu.
Jauna, baitzira amultsu,
gure deia hel bekizu:
gaurko mundua ederrago ta zuzenagoa egizu.

Urrunduz Gorputz Saindua
mundua da ilundua;
esperantzaren argia bera zauku urrundua.
Gur'esperantza bildua
eta trixtura kendua;
Jainko maitea, zure argiaz argi zaiguzu mundua.

Kristo Erregeren besta
egun ohoratzen baita,
dugun berari eskaini ospe, dantza eta kanta.
Berexgoak utzi eta
dugun elgar errespeta,
eta Jesusek erran bezala dezagula elgar maita.

Kristoren besta da egun,
eskerrak bihur ditzagun,
bera laudatuz bilduak ginen anai eta lagun.
Gerlak baztertu ditzagun,
zabal bake ta maitasun,
denen onetan mundu hobe bat oraindik molda dezagun.

1995

Jaun Zerukoa, huna herria zuri otoizka bildua,
eta dakigu haundia dela beraren behar ordua.
Zure eskasez izan ditaik trixte eta ilundua,
zu hor izanez zure argiaz argi zaiguzu mundua.

Ikusten duzu lurrean hainbat oinaze ta eritasun,
guzien nigar eta auhenak beti baitituzu entzun.
Jaun amultsua, beti bezala etor zaite gure lagun,
gure ondoan zabal dezagun zorion eta maitasun.

Neke alditan gu soleitzeko beti ona baitzira zu,
eri, xahar ta trixterik dauden guzieri beha zazu.
Guk hoi merezi ez izanik e izan zaitela amultsu,
gure mundu hau zuzenago ta goxoagoa egizu.

Ta gure baitan finka zaiguzu ongiratzeko xedea,
egizu beti errespetatu dezan jendeak jendea.
Zure graziaz bete gaitzazu, hori da gure galdea,
lur zabalean hedazkigutzu amodioa ta bakea.

Ongi etorria

Gure herriko eliza huntan guziera ongi etorri,
egun kermeza dugu Heletan gogo bihotz altxagarri.
Zeruko Aita baitugu beti gure urratsen gidari,
gure bihotzak bero ditzala ta gure gogoak argi.

Gomita

Arras untsa da hola biltzea meza nagusitik haste,
bainan ez pentsa eginbideak denak ditugula bete.
Parropiaren ona ez baita herriarendako kalte,
kermezan ere ahal duenak hartu behar luke parte,
gomita dener zabalik dago, nonbrean etor zaitezte.

Urtean behin dugu kermeza, hori ospatzen da egun;
elgarretarat bildu gaitzen adixkide eta lagun.
Herria maite dugula ere hortarik baita ezagun,
egun batentzat kezka ta lanak bazterrerat utz ditzagun,
elgarrekilan kermeza on bat goxoki pasa dezagun.

1995.07.09

Lagun nezak

Lagun nezak, batzu bizi tuk erdi amentsetan.
Lagun nezak, ene bihozmin oinaze minetan.
Lagun nezak, zeren jendeak gaur bazterretan
bizi dituk ezazolki ilusionetan.
Lagun nezak, hori ikusiz bainago penetan.

Lagun nezak, ez diat nahi bizi belauniko.
Lagun nezak, berreuskalduntzen denbora guziko.
Lagun nezak, etsaien kolper ihardokitzeko.
Bizi dituk gure gainean, bainan ez betiko.
Lagun nezak, kateak oro baitugu hautsiko.

Lagun nezak, zainetan diat euskaldun odola.
Lagun nezak, zaindu behar dik nork bere etxola.
Lagun nezak, salba dezagun arbason eskola.
Bizi dituk ahantzirikan Gernikan arbola.
Lagun nezak, nik ez baitiat ahanzten sekula.

Errepika

Zazpiak bat egin arte ez da bakerik.
Libro behar dugu, bakerako ez da beste biderik.
Bakea, bakea nahi bada,
Euskal Herria libro behar da.

Xan eta Mixel

Airea: Xarmegarria zira, eder eta gazte

Agur eta ohore! Zer erran besterik?
Zaizte milaka jenden sustenguz beterik!
Euskaldunetan ez da gaur enuxenterik,
har zazue kuraia, ez egon trixterik!

Zeruan mila izar distiretan daude,
Jainkoari otoizka askatasun galde.
Zeruan izar baino gehiago jende
bada Euskal Herrian denik zuen alde!

Etsaiek euskalduner ezpata zorrotza,
lur hau gurea da ta kanporat arrotza!
Xan eta Mixel, otoi ez zaiztela lotsa,
zuekilan ditugu gogo ta bihotza.

Bakea lortu nahi badute Euskadin,
negozio zuzen bat beharko da egin.
Anartean, anaiak, bada nahiko min,
bainan gogo-bihotzez bagaude zuekin.

Ama Euskal Herriak tu zazpi probintzi,
zaticatu ziguten bainan beti bizi.
Ama horren bi izar maiteak, ez etsi,
libratuko zaituzte bihar edo etzi.

Arbonan

Iri karkaila sanoko gizon ta apez xoragarria,
egun Arbonan egin dautzute ehorzte hunkigarria.
Egun zerua lorian dago, trixterik Euskal Herria,
ez dira nehoiz gutaik galduko zure hatsa ta irria.

Arbonako plazan

Euskal Herria repreziotik nai zinuen, Mattin, jali,
zure urratsak, apez ta gizon, izan dira arras bali.
Ta zure molde hortan joaiteak bihotzak dauzku uzkali,
ta Xalbadorren adin berean zu aurtan zira itzali,
erran goraintzi Xalbadorri ta Monzon eta Larzabali.

Arbonako elizan

1997.07.17

Lekuinen bildu gira herriko elizan,
egungo espos gaztek hartze duten gisan.
Jauna otoizten dugu beti lagun ditzan,
gaur bezain zoriontsu luzaz ditzen izan.

Amodio zintzoaz baitziren egarri,
leialtasuna dute hitzeman elgarri.
Dugun laguntza galda Zeruko Aitari,
lagun ditzan bizian Panpi t'Aña Mari.

Egun batzuk beroak, bertze batzu hotzak,
Jauna, zure gain dira egungo esposak.
Leialki atxizkitzu bi haien bihotzak,
bizian izan ditzen airos ta urosak.

Eskualdun kantuetan zira, Panpi, trebe,
gure nortasunaren haziaren jabe.
Haurreri dohain hori emaita hobe,
ez gaiten bihar geldi eskualdunik gabe.

Aña Mari ta Panpi bi gazte amultsu,
aldare aintzinean, Jauna, hor dituzu.
Bizi guzian, Jauna, otoi lagunzkitzu.
egizu izan ditzen beri zoriontsu.

1997.09.13

Ez huen xoilki izen ederra, izana ere berdina,
gure euskaldun baratze huntan hi baihintzen erle fina.
Seaska-n eta *Zabal*-en ere hainbat lan eder egina,
milesker hiri, Jean Luis, eta familiari dolumina,
eta hik eman etsenplu ona segi dezagun aintzina.

Berriro ere euskaldun izar batek egin digu alde,
zerua beti ilunik dago izarren galde ta galde.
Bainan, Jean Luis, hik egin lanak ez dituk segur debalde,
euskaltzale fin agertu baihaiz beti goiz ta arratsalde,
milesker, maite, eta guk jarraik beti euskararen alde.

Ez huen xoilki izen ederra, izana ere halaber,
heure fintasun hortarik diat eskaintzen batzu ta bester.
Euskaltzale fin izan haiz beti denetan eskuin ta ezker,
Seaska-n eta *Zabal*-en ere egin duk hainbat lan eder,
egin ditukan guziendako guzien partez milesker.

Amen pesta egun dugula nehork ezin du ahantzi,
beraz, ama guziek ohore ainitz hemen dituzue merezi.

Egun huntan bederen ahantz zuen nahigabe eta penak,
egun guzietako griñak eta lanak.

Beraz, ama guzier eskain ditzagun amodiozko eleak,
bai eta ere merexi tuzten musuak eta loreak.
Bihotz guziak baitira zuentzat maitasunez beteak,
pesta on eta eder bat, ama eta amatxi maiteak.

1998.06.07

Xaharretxeak hoita bost urte

Ixturitzeko Xaharretxea dugu egun ohoratzen,
hoita bost urte zilar pesta bat dela zauku iduritzen.
Xaharretxea hoita bost urte sortu zela Ixturitzen,
beste hoita bost iraun ditzala nork ez du gutiziatzen?

Xaharretxea sortu izan zen naski otsailaren bian,
hamar bat herrik parte harturik lanerat ziren abian.
Lehenbiziko zuzendaria Xalbat Xarriton ginian,
milesker eta goresmen zuri, lana sorturik herrian.

Ta orai ere Xaharretxean dira berrogoi langile,
hirutan hoita hamabost xahar sustenguen galdegile.
Lan eskasia den egun hautan nolaz ez geldi miresle,
etxe hau xutik laguntzen duten jende guzien goresle?

Bakartasuna ta ezindura latzak diren mende huntan,
Xaharretxeak beharrezkoak dira gaurko egunetan,
lehen bezala ez baita beti egoiten ahal etxetan,
hemen ez baita nehor gelditzen sokorri ta arta faltan.

Xalbat Xarriton, zuzendaritza izan da zure eskuko,
orai semea arduratzen da, ez dezola egin uko.
Xaharretxe hau egon dadila nornahiren zerbitzuko,
agian beste hoita bost urtez gaurretik da doblatuko.

Ixturitzen, 1998.07.05

Kuple berri bati

Bildurik Itsasun,
Zuk lagun ditzazun,
gure galde otoitzak, Jauna, otoi, entzun.
Egun hunek dio:
bada amodio.
Gaurko esposak, Jauna, zure gomendio.
Elgarrez egarri,
loturik elgarri,
bizitze guzikotzat dituzu ezarri.
Beren bizia
egin zazu argi,
eman bieri xantza eta osagarri.

Nikolen musika
da André Mugica,
egungo esposak Zuk, Jauna, benedika.
Egungo esposak,
gazte loriosak,
leialki atxizkitzu horien bihotzak.
Amodioz bezti,
goxo eta ezti,
bizitze guztian Zuk atxizkitzu beti.
Kuple berri bati
egizu iguzki,
André Mugicari ta Nikole Mutchicori.

Zer gauza pollita
eskualdun pilota;
bainan nausi zituen anaiak ta aita.
Joko hori maita,
eskualduna baita;
pilotari sortzaile da Gerezieta.
Gaurko esposeri,
hoien aitameri,
milaka goresmen ta zorion deneri.
Gerezieta, zu
ta berdin Itsasu,
Jauna, Zuk atxizkitzu beti zorionsu.

Uztailan hameka,
Jaunari galdezka
bere graziaz ditzan gazte hok gaindika.
Andre da xofurra,
Nikole da fakturra,
amodiozko letra izan da segurra.
Jarraiki aintzina
ta hartu aitzina;
haurridekin partika zuen atsegina.
Amatxik ziona
baita gauza ona:
etxeko bakea da denen zoriona.

Mixel eta Ivetten espos egun huntan,
San Antoni kaskoan gira lorietan.
Zuendako Jaunari gaude otoitzetan
lagunt zaitzaten beti urrats guzietan.

Beñat Dunat oseba harturik gidari,
egun lotzen zirezte bizi berriari.
Leialtasunez lotu baitzaizte elgarri,
ukan zazue xantza eta osagarri.

San Antoni, behazu Mixel ta Ivetti,
egun lotzen baitira bide berri bati.
Elgar errespetatuz goxo eta ezti,
gaurko amodioan atxizkitzu beti.

Munduan bada hainbat gertakari ergel,
esposen batasuna dirotanak goibel.
Gure otoitz kartsua bedi Jaunari hel,
lagunt ditzan bizian Ivette eta Mixel.

Ivette, andere espos, Mixel, jaun esposa,
izan bedi bizian kuple bat urosa.
Entzun, Jaun Zerukoa, guk egin otoitza,
graziaz bete zazu egungo ezkontza.

Perde, xuri ta gorri gure ikurrina.
zu zira, zu, gurea, oi zer atsegina!
Zure menperatzeak emaiten daut mina,
hargatik dut bihotza bi parte egina.

Euskaldun ikurrina xuri, gorri, perde,
frantses ta espaiñolak horri beha daude.
Trixtezi haundiena ez dezaket gorde:
euskaldunak oro ez dira horren alde.

Zu gure seinalea perde, gorri, xuri,
agur ta errespetu zor lukete zuri.
Zu gatik izaiten da nigar ta urhuri,
zonbatek zure maitez odola ixuri?

Xoratua so nago ikurrina horri,
pentzea bezain perde eta miresgarri;
elurra bezain garbi eta berdin xuri,
ta euskaldun odola den bezala gorri.

Frantzian iragan dut soldado denbora,
han xuri, gorria ta urdina zen gora.
Euskalduna nintzela jin zautan gogora,
ta bertzen ikurrinik ez dirot adora.

Orduan ohartu naiz lehen egunean
arrotz ikurrina bat nuela gainean.
Bandera behar badut hilen naizenean,
euskal ikurrina dut nahi aintzinean.

Errepika

Airea: *Ai zer plazerra*

Gudari batek zer nahi duen bere ehortz egunean:
lore xuri ta gorri perdeak bere kutxaren gainean.
Ez du nigarrik gutiziatzen hil harrira doanean,
bainan euskaldun ikurrina bat nahi luke aintzinean.

Marie Jeanne Martinez-entzat

1991 Martxoaren 5ean, Heletatik Aranbide jaunari

Txomin Aranbide adixkidea

Aro txarra dugu: hotza latza, dena euri eta elur. Beraz, parada hauta sukaldean, beroki egonez, adixkideri izkiriatzeko.

Zuk eman dautzatzun xehetasunek laguntza ederra ekarri dautate galduak zauzaten bertsuen egiteko. Eta eskertzeko igortzen dauzkitzut fotokopiak. Bertsuak Mixel Xalbadorren alabek kantatzen duten “Arro-sako zolan, kantu zirimolan” airean neurtuak dira. Eta erdarazko hitzaldia ez da baitezpada bertsu guzien itzulpena, baina xehetasun larrienak euskara ulertzen ez dutenen gatik irakurtuko dutena.

Pesta hori egin beharra omen diote Marie-Jeanni Bazko irian. Ez dut uste berak oraino deus badakiela.

Beraz, otoi, ez nehoi deusik sala (sorpresa izan dadin); nik ere ez dut salatu norenganik bildu dituztan xehetasunak; eta eskerren bihurtzeko igortzen dauzkitzut kopiak. Urepelen ere aro baditaike sukalde xokoan irakurtzen artzeko.

Besterik gabe, Txomin adixkidea, milesker, izan untsa eta ikus arte.

Jean-Pierre Mendiburu

Gazteko izenez
Mari Jeanne Martinez,
kantuz hasi behar dut zure zorionez.
Urepelen sortu,
behar da aitortu
Domingarreinean zinela haunditu.
Zerbitzari ona,
oi zer zoriona!
Kantatu behar dautzut nun ziren egona.

Aranbelen etxen,
ostatua baitzen,
lehenik han hasia zira zerbitzatzen.
Ta gero Baigorri
Joantorenarekin
zerbitzuan artzeaz zinuen atsegin.
Segitzeko lana
hautatuz Baiona,
Bar de la Nive joan zinen ahizparen gana.

Etzen leku txarra,
bai partikularra,
han ezagutu izan baituzu senarra:
Jeannot Arosteguy,
treinetan gidari,
harek sua eman du zure bihotzari.
Amodio kondu
zinezten ezkondu,
eta bi seme eder ere munduratu.

Utzirik Quai Chaho,
ez baita akabo,
gure Mari Jeanne joan da doi bat urrunago.
Baionan lan keta
da gauza laketa.
Casenaven etxean bazen xokoleta.
Beltz eta xuriak
ikusirik biak,
gero betikotz sartu zinen Chez Mauriac.

Gaur etzira trixte,
saila duzu bete,
Mauriac-en etxean hoitamasei urte.
Ogi ta pastiza
ta xokolet gaitza
bazen zer egin eta bazen nor zerbitza.
Langile umila,
goxo ta abila,
zure lagun guzien partez esker mila.

Denborak beteta
hartzen erretreta,
utziko duzun hutsaz gaude pentsaketa.
Emazte goxoa,
langile zintzoa,
zu gabe nolako da gazteen geroa?
Eskualdun leiala
ta bihotz zabala,
gaztek maite zintugun ama bat bezala.

Emazte goxoa,
langile zintzoa,
zu gabe nolako da gazteen geroa?
Eskualdun leiala
ta bihotz zabala,
gaztek maite zintugun ama bat bezala.
Denez maitatua
ta estimatua,
Errolako mendiko lore famatua.

Gure Mari Jeanni,
egun da komeni,
esker eta goresmen nahi dut eskaini.
Rue des Basques lehenik,
Tunneliers ondotik,
Hiriburun etxea egina geroztik.
Etxe eder hortan
zaudezte bakean,
nola onddo beltz batzu hor “Arbola pean”.

Ta zure amentsa
ez da aments hutsa,
ezin egina dela etzazula pentsa.
Harat joaitea
ta han egoitea
San Frantziskon maitea nun zen ikustea.
Goizik galdu aita,
ama bizi baita,
ama ta etxeari egizu bisita.

Omore onean
ta zorionean
bil zaizte familian Domingarreinean.
Urri ondarrean
atxiki gogoan
Meharozteiko lepoan zonbat urtxo doan.
Lehenengo segi,
bizi zaite ongi,
Urepeleko izar, Hiriburun argi.

Hairako oihana,
ongi dakizuna,
onddo harrapatzeko famatua dena.
Errolako mendi
Meharoztei gaindi,
gazteko sendimenak ditzazula sendi.
Jender eleketa
edo onddoketa,
goxoki pasa zazu zure erretreta.
Milesker batetik,
goresmen bestetik,
eta erretreta on bihotz bihotzetik.

Apostoluer Izpiritua suzko itxuran zen jautsi,
Mendekosteko mixterioa guk katiximan ikasi.
Argi saindua galdezka gaiten meza huntan ere hasi,
San Esteben ta Doneztebanak hori baitute merezi.

Meza hau ere manatu dugu gure hilen fagoretan,
ta San Esteben asko badira gure hil maite hoietan.
Ez ditugu, ez, gaur ahantziko gure otoitz kartsuetan,
heiek eginak, heiek erranak barna tugu bihotzetan.

Irratia pitz, telebixta pitz, mundua da ilundua,
dena ixtripu ta eritasun, ez da lur hau lagundua.
Jendetasuna, gizontasuna, gutartetik urrundua,
zuzenago ta goxoagoa egizu, Jauna, mundua.

San Estebendar denak biltzea hori zen gure xedea,
bihotzez elgar bero dezagun hola da euskal jendea.
Elgarrekilan egin dezagun mundu huntako bidea,
Eskual Herrian ez diten galdu eskuara eta fedea.

San Estebendar denak biltzea hori zen gure asmoa,
orroitzapen bat paregabea izan dadila gaurkoa.
Atxik dezagun elgarrendako estimu ta amodioa,
ta elgarrekin airoski pasa Mendekoste bat goxoa.

Gure mundua iduri luke alaitasunez betea,
alde bat dauka alaia eta oso iluna bestea.
Nun zira bada zero ta lurren jabe den Jainko maitea?
Lagun nezazu argitu nahiz bainaiz kasu bat trixtea.

Pentsa zazue gaurko munduan ez dela auzotasunik,
goxotasuna ere galdua, ez baita jendetasunik.
Holako gauzak nork ez ditu gaur erranik edo entzunik?
Bainan ez dela arras egia frogatu behar dautzut nik.

Asma zazue gogo bihotzen barnean dutan trixtura,
zueri kanta nahi ta ezin ene barneko min hura.
Alta neureaz kanpo bederen azkarra daukat itxura,
ez dira denak zorionaren gozatzeko jin mundura.

Azkenean dut nere gaiari orai zabaltzen atea,
ez baita aski axaletikan doi bat aipatzen hastera.
Orroitgarria dut betikotzat iragana den astea:
andrearekin bisitatu dut eri den auzo gaztea.

Bost haurren ama, bitan bixkiak, ez da geldirik egona,
nahiz laguntzen beti hor ziren senarra eta amona.
Bitan kantzerra ukan du eta gaurkoa ere ez ona,
ohean dago, ohatua da, du eritasun sakona.

Paralesia bortitzena du, gorputza ezin mugitu;
muskulo batek bere lagunak menperatzen omen ditu.
Guri xuxen ta goxo mintzo zen, eni etzaut iduritu,
ez dut xinisten bere ohetik berriz ezin den xutitu.

Luze joanen dela biziki hortan dudarik ez dago,
kortisona ta ximio asko, egin dute gauza frango.
Berrogoi eta hamar urterik ez dituela banago,
eta agian sendatuko da guk uste baino lenago.

Agorrilean hilabete bat Bordelen naski egon zen,
artatzaileek eritasuna dute xoilki ezagutzen.
Jendetasunik han ez dutela goraki zaukun salatzen,
han eriari ez omen dute hitz goxo bat ateratzen.

Guk ere solas guti ibili ginuen auzoarekin,
Beldurrez eta sobera akit, holakoetan ez jakin.
Gu ikusirik kontenxko zela, zuela ainitz atsegin,
«Ikusi arte» erran ondoan gure etxerat ginen jin.

Etxerakoan ez ginakien zer erran eta zer pentsa,
egia ote zenetz ginauden ala gaueko amentsa.
Auzotasuna hori xoilki da, asmatzen badugu untsa,
bihotz barnean jarri diogu sekulako esperantza.

Euskaldun baserrietan,
lehengo gure etxetan,
laborantzako lanetan,
lehenik ogi joitetan
ta gero arto biltzetan
ari ziren lorietan.

Lehenik arto biltzetan
hogoi bat jende landetan,
gero arto xuritzetan,
zer plazerra bihotzetan,
zahar eta gazte pestan
zauden alegrantzietan.

Orduko denbora onak
aldatu zaizkigu denak,
betikotz direa joanak;
baserriko esku lanak,
ohidura ederrenak,
egungo orroitzapenak.

Lehengo lur lan bizia
kanbiatu da guzia,
bainan ez dut ahantzia;
orduko lanen grazia
gogotik ezin utzia,
lehengo alegrantzia.
Lehengo bizi moldea

betikotz dea gordea,
kanbiatu da mendea;
ta hau da nere galdea:
gaur egunean jendea
hobekio bizi dea?

Tresna haundiak emanik
ez da geiago lagunik,
ez baitago esku lanik;
gaur ez da auzotasunik,
lehengo goxotasunik
nihun aurkitzen ez dut nik.

Atera zaite plazara,
gaurko dantzaldietara,
segidan ohartzen zara:
galdua dute euskara,
hain ederra den mintzaira,
herri arrotuan gera.

Lehengo kantu irriak
galdu ditu gazteriak,
nun dira gaur kantariak
ta lehengo dantzariak?
Manera nigargarriak
ditu gaur Euskal Herriak.

Zer ikusi dut, zer entzun?
Gazteak kopeta ilun,
omere onetik urrun.
Nor da horretaz hobendun?
Ez ote ditazke lagun?
Ber-euskaldundu ditzagun.
Nun dira lehengo gauzak,

kantu, irri eta dantzak?
Nun daude gazte airosak,
airos eta loriosak?
Ez utz kaskointzerat plazak,
gu ez baigire frantsesak.

Alaba bakarraren ezteietan: I

Guziek zinuten pentsu
entzutea zonbeit bertsu;
bertsuak zira esposendako urre ta intsentsu.
Aspaldi amodiotsu,
zazpi bat urte abantxu,
ta azkenean ezkondu zauzku Jean Mixel eta Mirentxu.
Egizu, Jauna, bizi guzian izan ditzen zoriontsu.

Zazpi edo zortzi urte
aurten baditu, nik uste,
gazte hauiek orduz geroztik dute elgar maite.
Amodioz dira bete,
zendako egon aparte?
Bizi guzikotz elkartu dira gaurko hitzaren bitarte,
egizu leial egon ditezen urrezko ezteiak arte.

Aspaldi leial elgarri,
amodioaz egarri;
erraztun bana dute erhian gaurkoan ezarri.
Jarraik gaurko bideari
ta egun eman hitzari.
Ukan zazue bizi guzian xantza eta osagarri,
Jaun Zerukoa izan dadila zuen urratsen gidari.

Egun ez dut kargu txarra:
zuer kantatu beharra,
hunaradino ekarri baitut alaba bakarra,
gure etxeko izarra.
Gizona ere zilarra;
orai artean gizongaia zen, oraitik goiti senarra:
egizu, Jauna, izan dadien eskualdun kuple suharra.

Atxik begian irria
ta beira bihotz garbia;
etxeko eta guziekilan ongirat lehia.
Alaiki pasa bizia,
zorionean guzia,
ta guk bezala maitazkitzue etxea eta herria;
gaurko esposer egizu, Jauna, bizi guzian argia.

Esposer beha nindagon,
nolaz ez lorian egon?
Horra hementxe kuple berri bat emazte ta gizon.
Nere bihotzak zer dion
bertsu guzietan nion:
elgarrekilan pasa bezate bizitze luze eta on.
Jaun Zerukoa, gaurko esposer emazu ainitz zorion.

Alaba bakarraren ezteietan: II

Airea: Iparragirre abilla dala

Enetzat kargu ohorezkoa zuer kantatu beharra,
zeren ta egun ezkondu baita gure alaba bakarra.
 Ukan bagintu zazpi
 pesta bat etzen aski,
 denak espos barra-barra.
Zazpi itsusi eiteko orde bat egin dugu izarra.

Gure Mirentxu sortu zaukula hoita bost urte baditu,
eta geroztik gure ondoan naski da doi bat haunditu.
 Ttipia da gelditu,
 etzaitela harritu,
 zangoak lurrean ditu,
gizon haundi ta euskaldun fina harrapatu izan baitu.

Haur bat pollita sortu ginuen eta gelditu fitexko,
haur egiteko gaztexko ginen ta orai aldiz zaharxko.
 Bat ginuen egina,
 lore baten berdina,
 ez naiz beldur aitortzeko
ez ginuela lan txarra egin tronpaturik egiteko.

Gure arraza konprenitzea ezta hain gauza erretxa;
Jacqueline dugu arras xuria ta Mirentxu arras beltza.
 Ni naiz pixka bat gorri,
 beha neska beltz horri,
 badu sor seinale tatxa;
nola nahita ez da egiten gisa hortako neskatxa.

Jean Mixel ere ez pentsa gero nola nahi den egina:
alde batetik gizon ederra, haundi ta begi urdina;
bestetik da airosa,
gainerat baliosa,
gaur badugu suhi fina;
seme bat bezain maite izanen dugu hemendik aintzina.

Jean Mixel, denek badakizue, lanean dabil *chez Laffitte*;
soldadogoan sardianta zen, bere lanean *chef d'équipe*.
Nahi badu kurritu
zangoak luze ditu,
ez daukat trufa izpirik;
gorapenean sortu bazen hau zer izanen zen ez dakit.

Lehen Jean Mixel ostatuetan zerbitzuan zen ibiltzen,
ta orai aldiz Mirentxu ganat goizago etxerat biltzen.
Jean Mixel ere naski,
adreta baita aski,
ibiltzen da xerri hiltzen;
bainan Mirentxuk ahal bezenbat etxean du atxikitzen.

Ikusi dugun kabalkada dut pixka bat behar aipatu,
ta Lekorneko herri guzia goretsi eta laudatu.
Ta gure Manexina,
antzerkilari fina,
ezta Garroan kokatu;
Alferzelaiko Koxerekilan Heletan zauku plantatu.

Bai, Lekorneko kabalkada zen egiaz xoragarria,
biba Lekorne ta Gerezita, gora horko gazteria!
Gazte eta zaharrak,
goresmen ta eskerrak,
eta *Garroko auzia*
Jean Mixel eta Mirentxuk zuten hain polliki idatzia.

Heletan ere irri ederrak ditugu egin beharrak,
Garroan bezain gora joaiten badira gure laparrak.
Anartean guzier,
adineko ta gazter,
bihotz erditik eskerrak.
Gora Basoiko, gora Lekorne eta gora Heletarrak!

Azken bertsuak Etxenikako aitamer ditzazket kanta,
beren etxean hazi baitute familia bat xarmanta.
Bi mutil, hiru neska,
soberakinik ezta,
gaztena ezkondu baita;
Mari Jeanne eta Arnaud'rendako egin zonbeit esku zarta.

Esker onezko bertsurik baizik ez du gaur nere bihotzak,
Heletak beti onartu ditu Lekornetik jin arrosak.
Aita nuen Lapurdin,
suhia ere berdin,
biak Lekondar airosak.
Goresmen bien familier ta biba egungo esposak!

Urte betetze on

Airea: Pilotarien biltzarra

Urte betetze on, Maite, gure zorionak!
Zuretzat dira gu denen musu goxoenak.
Atxik zure omore ta osagarri onak.
Duzun bizi bozkarioz bete gaitzazu denak.

Errepika

Egun hirutan hogoi urte
sortua zira, Maite!
Alegrantzian bizi zaite,
gogo bihotzez gazte.

Ama gazterik galdua haurra zinelarik,
lanean ikasi duzu aitak argiturik.
Zure aitak eta ttanttak biek lagundurik
etzinezaken hatxeman kontseilari hoberik.

Arrozpidia ostatuan larunbat goizetan,
makiñun ta laborari beren tratuetan,
zerbitzatzen zinituen denak lorietan,
xokoleta eta salda prestatuz igandetan.

Donapaleun eskolan zinen abiatu,
gero hortik Uztaritze herrirat airatu.
Beharrik ez zinen, Maite, komentuan sartu!
Peio, Alain ta Maialen dituzu munduratu.

Buruilaren hamalauan zinezten ezkondu,
hogoi eta hamazazpi urte aurtan badu.
Beti atxikiz omore, kurai ta talendu,
urrezko ezteietarat behar duzue heldu.

Erlea bezain langile xintxo ta umila,
beti Beñaten ondoan kartsuki zabila.
Jateko onen prestatzen, lagun onen bila,
laguntzen duzu senarra, beti ixil ixila.

Xinpleki ta diskretuki harekin zabilta,
biltzarra ta harat hunat bada nor zerbitza.
Baduzue zer egin ta norekilan mintza,
zuen eskutik ainitzek baitaukate bizitza.

Plazer eta penak oro behar dira jasan,
ta zuk ere bietarik duzu, Maite, izan.
Denbora jina da Maitek gogoan har dezan:
ez da gauaz berantegi lanian behar arizan!

Garbitze ta linjeria pixka bat baztertuz,
denbora iragan zazu zuhauri pentsatuz;
zure hurren haurrak ere geiago goxatuz,
eta gu beti bezala usu errezebituz.

Hemendik aintzina, Maite, goxo zaite bizi,
ta kozinatze on hori ez sekulan utzi,
zu ganat jinen baigira bihar edo etzi.
Lisatzen duzun mahaina ezin dugu ahantzi.

Azken errepika

Egun hirutan hogoi urte
bete dituzu, Maite!
Beti horrela egon zaite:
gogo bihotzez gazte!

2001.05.17

Etxekotuak ta maitatuak gintuen jaun andere Langlés,
aitamak ere loriatuak horrelako erakaslez.
Eta aitamen pare zinezten maitatuak gure hurrez,
zuen eskutik zonbeit zonbeit haur pasatu da hainbat urtez,
esker bero ta besarkada bat Heletar guzien partez,
Heletar guzien partez.

Maitagarriak izan zirezte eta erakasten trebe,
goxotasuna ta pazientzia xoragarrienen jabe.
Oraino ere zuer jarraikiz guretzat litaiké hobe,
zuen joaiteaz hola bet betan doi bat trixtaturik gaude,
zer izanen da gure herria Langlés-tar maiteak gabe,
Langlés-tar maiteak gabe?

Hoitahamabost urte Heletan arizan zaizte lanean,
xintxo ta umil kuple laketa, beti omore onean.
Zuen joaiteaz pena haundia dugu bihotzen barnean,
ez iduriak jada zirezte lan uzteko adinean,
milesker eta mila goresmen Heletarren izenean,
Heletarren izenean!

2001.07.22

Battitta Barbier

Airea: Uholde baten pare

Battitta Barbier, zinen errotik euskaldun,
egiazko gizona, kulturaz jakintsun.
Herria zerbitzatzen gaitzazula lagun,
zu bezala izaiten euskaldun fededun.

Battitta Barbier, zinen funtsezko gizona,
hainbeste elkarteren laguntzen egona;
senar paregabea eta aita ona,
ezin ahantzia da egin duzun lana.

Battitta Barbier, zinen denen zerbitzuko,
gazte ta adineko oro laguntzeko;
egiazko gizona ta bihotz haundiko,
sekulan ez zaitugu nehork ahantziko.

Heletan, 2001.08.29

Battitta Barbier 2001.05.05ean hil zen

Kantatzeko aldia

Kantatzeko aldia enetzat jina da,
eta nere moldean egina dut salda.
Aitaren ondotik ez izanik e fida,
bertsuak prestaturik hartzen dut segida.

Lagun geienak ditut beharko aipatu,
bainan bertsurik ezin dut dener kantatu.
Otoi nere erranak ez gaur gaizki hartu,
bertsulariak mitxa¹ beti behar baitu.

Daniel Philipe ta Jean Paul, Camile Eiheraxar,
hementxetan ditugu hiru mutil azkar.
Hauek badute zango, beso eta bizkar,
husten dituztelakotz ainitz botoil Ricard.

Deitura Eiheraxar, izena Frederik,
orai mutiko hau dut aipatu behar nik.
Hor ari baizauku gaur hurrup edan ta klik,
hola segurik ez du hatxemanen neskik.

Andi Dubois behien deizten da batzutan,
ta esnea merkatzen da memento huntan.
Emili baita ari kontserbu lanetan,
hobe luke esnea sartzia kontserbutan.

¹ Norbaitek “mitxa” baduela erraiten dugu, “biperra”, “gatza” edo “xixpa” erraiteko.

Ezin aipatu gabe utz Silvie Berria,
Mixel Urruty dauka bere gizongaia.
Biek ere ez dute sakelan mihia,
kuple hau segurki da arrunt asurtia¹.

Noblia ta Bellecave dira laborari,
Iturralde dantzari eta pilotari.
Philippe Hiriart aldiz zapetaintzan ari,
hok gustatuko dira edozoin neskari.

Lekondar eta beste ainitz mutiko fin,
neskarik gabe hunat egin direnak jin.
Beraz, Laurence, heldu naiz kontseilu batekin:
ez zaitela otoi gaur gelditu mutxurdin.

Cecil, Mirentxu, Laurence, Gisel ta Natalie,
Sylvie ta J. Claudekin pestan naiz ibili.
Orai ezkondu eta ezin bainaiz jali,
lehen zuekin egin pestak dira bali.

Hona Mendibil Gisel eta Oascon Silvie,
Bernadette Dunat eta Maite Hargindeguy.
M. Laure Candau ere hunat da etorri,
lagunak hor izaitia zaut atsegingarri.

Hementxe Mireille, Manu, Sandrine eta beste,
Laurence, Philippe ta Christophe, denak hor zirezte,
gure ezteietan gaur harturikan parte.
Milesker guzier ta untsa josta zaizte.

¹ Asurtia: *assorti* frantsesez, entzuten da berari johan edo egokia zaiona. (E. L.)

Autonomiari ez!

Autonomiaz nik zer diotan entzun, bainan ez har gaitzi,
zendako neure behiak behar lituzke auzoak deitzi?
Autonomia berdintsu dela behar dautzut ihardetsi,
gure gaintasun oso osoa nahi dugu ardietsi!

Autonomia hitz hori bera ere ez da euskalduna,
horri begira ez otoi lokar, neure anai ta laguna.
Bertzela deitzen baita zuk ta nik igurikatzen duguna,
gure hizkuntza maitagarrian hori da askatasuna.

Autonomia deusik ez dela berriz derautzut goraki,
nahiz batzuek aterabide haundizat daukaten naski.
Baina zazpiak bat egiteko hori ez litaik aski,
askatasuna oso osoki nahi dugu egiazki.

Zendako beraz bidean geldi erdi-bideri perein?
Ez ahal dugu edaten ahal guharena den errekan?
Auzoa etxen nagusi bada bake osoa da bekan,
askatasunik ez da neholaz egonez bertzen estekan.

Bertze batzuekin autonomia bagineza guk finkatu,
ezin hautsizko kateak berriz behar ginuzke tinkatu.
Tratu faltsuak bazter ditzagun oraindik firrindikatu,
bake oso bat bila dezagun aski da igurikatu.

Ez dakit nun zen, ez noiz eta nork hauxe zerautan atera;
“euskal poliza baginukela” mentura zen erraitera.
Nik erran nion: «Laugarren hori, bertze hiruen gainera,
gure aurka jar litaik laster bertze hoiekin batera».

Anai arrebak, ez otoi lokar eta egon beti lotan,
herria horrek galdu baitaiku gaur arte ere askotan.
Bake osoa badatorkigu Euskadi askatzekotan,
etxen nagusi izan gaitezen ez egon bertzen besotan!

Gure gaintasun oso osoa ez deraikuteno uzten,
ongi dakite beren gizonak nola galduko dituzten.
Autonomia deus guti dela garbiki dut nik ikusten,
lehenago're euskal gobernu faltsu bat egin zaukuten.

Hego-Iparrak bat egin arte ixuriko da odola,
zaticaturik gauden artean beti izanen da gerla!
Beraz euskaldun anaiak hartu Euskal Herriaz axola,
ni frantsesa ez naizen bezala hi ez baihaiz espaiñola!

Ala ez duk hik heure burua nik bezain euskaldun sendi?
Gure aitamek erdara nola mintzo zuten orroit hadi.
Ikurriña bat ere badiuk, folklore geldi ez bedi,
nahi badugu odol ixurtze guziak ditezen geldi.

Herri bat gira eta guk ere dugu gure nortasuna,
bertzek eskutik atxiki gabe bizi daike euskalduna.
Eskatzen dugun gauza bakarra: zinezko askatasuna;
bainan ez ahantz autonomia ez da gure gaintasuna!

Askatasuna behar dugula sar azu zure burura,
gure hizkuntza ta ikurriña jalgi ditela mundura.
Bertzen herriak utz bertzendako eta gureaz ardura,
bertzenaz nehoiz ezin ditaike gerla luze hau burura!

Bere burua erdaldun daukan euskalduna zoin abila!
Etsaier musu emaiten eta etxeoentzat makila.
Euskal Herria libratu arte bakea ihes dabila,
bake osoen gutizi ona denen baitan sor dadila.

Autonomiaz pentsu dutana, irakurlea, dakizu,
iduritzen zaut argi ta garbi erran dutala askitsu.
Naparroa bat baizik ez dela ikus ez bazira itsu,
ta lehen bezain bat izan dadin oraindik zerbeit egizu!

Apezak gutartetik ez ditzagun bazter,
argi egin dezaten zahar eta gazter;
fedea emendatuz arimeri laster,
etsimendu trixteak ez ditzaigun asper.

Alapide sanoak fede bazkarenak,
fedearen argiak argi azkarrenak.
Hil eta berriz piztu, Jesus berarenak,
dira gizonarentzat gauza beharrenak.

Aitamen ganik nuen fedea izan nik,
erakaspén zuhurrak baditut izanik.
Aski garbiki neri zautaten esanik:
«Bekatuan eror ta ez egon etzanik!».

Konprenitua baitut, jitean adina,
zer loria litaiken garbiak bagina.
Bekatuz kargaturik guhauren arima,
kurutze dorpe hori ez baita arina.

Bataiatua naute, bai, munduratzean,
zeruetara nahiz hau bururatzean.
Ezagutzaz gaindi naiz gaur eskuratzean
lorerik ederrena fede baratzean.

Zeruztaturik nago naizen mundutarra,
zeruko gutizia da nere sukarra.
Ezin itoa nitan fedezko su garra,
euskalduna naiz eta fededun suharra.

Fedeak argi bitza hego ta iparra,
berekilan baitauka Jainkozko indarra.
Bera baitugu gaurko izarren izarra,
distira dezan beti zerutar gisara.

Meza sainduan zuri otoitzez hemen gaude, Jainko Jauna,
gogo bihotzak argizkigutzu, mundu hau hain da iluna.
Ongiak bentzu dezan gaizkia, fedea iluntasuna,
mundu guzian hedazkigutzu bake ta zuzentasuna.

Beren karguan lagunzkigutzu gure hainbat aintzindari,
zuzentasunaz berenaz nehoiz ez baita zabaltzen ari.
Amodioa izan bezate gogo bihotzen gidari,
ogibide ta libertatea utz ditzaten gizonari.

Egia eta zuzena galdez munduan ainitz badago,
zuhaurek egin Euskal Herrian ere da holako frango,
gaizki ibiltzen deraizkutenak gero eta gaizkiago.
Behartsuari eman zaiozu gerizapen gehiago.

Zonbat pena ta nahigabe den lur hunetan badazkitzu,
herriak eta hizkuntzak, biek, badute ere askitsu.
Zure bihotza amultsua da, otoitz on hau hel bekizu,
amodioak batera gaitzan oraindik zerbeit egizu.

Beti galdezka artzeko ordea esker dezagula Jauna,
Heletari zuk apez euskaldun suhar bat duzu emana,
euskal idazle trebea eta erakasle jakintsuna;
guzien partez itzultzen diot zor diogun goresmena.

Jainko maitea, zabalzkigutzu gure fedezko dohainak,
jadanik husten hasiak dira elizen aldare gainak.
Lehen bai lehen emazkigutzu apez zenduen ordainak,
gure arimak arta ditzaten argitzaile ta artzainak.

Jaun kalonjea, mende erdi bat du apez zirela egin,
orduan eta gaur ere berdin bada Heletan atsegin.
Hortakotz dago mezatik haste jende guzia zurekin,
Jauna otoizten dugula luzaz egon zaitezten gurekin.

Ongi etorri

Eliza huntan bilduak gira xede on batzu buruan,
Jainkoak beti ongi etorri egiten daukun lekuan.
Meza hau denek kanta gogotik entzun gaitzaten zeruan,
zoin pozik gauden omentzen dugun apezaren inguruan.

Mezatik haste omenaldi hau Etienne Salaberry-ri,
Heleta Garrak eman deraukun euskaltzale suharrari,
jada berrogoi ta hamar urte apeztu izan denari,
ta meza orai huntan has bedi lot gaiten kantuz Jaunari.

Agurra

Meza huntako erakaspentak entzun, ama eta aita,
Jainkoak egin gauza guziak ditzagula errespeta.
Fedea eta euskal hizkuntza maita araz eta maita,
t'Euskal Herri hau ez arnegatu Jainkoak egina baita.

Meza hau orai bururatzen da, beti hemen ezin egon,
ta orai denak Gaztetxeraino joanen girela nindagon.
Jaun kalonjea, guzien partez goresmen eta zorion,
ta mezan parte hartu duzuen guzieren igande on.

Hainbat hitz eder entzun ondoren gure antzerki lekuan,
ongi etorri deneri baizik besterik ez dut buruan.
Zuen artean iduritzen zaut hemen nagola zeruan,
omentzen dugun euskaldun apez suharraren inguruan.

Ongi etorri neure herrian Euskaltzalen Biltzarrari,
eskerrak ere zor diozkagu egun Heleta Garrari,
apez euskaldun euskaltzale hau eman daukun etxeari,
eta guzien partez goresmen gure jaun kalonjeari.

Jaun kalonjea, etorri zautzu merezi duzun eguna,
plazerrekilan heletar eta bertzek ospatzen duguna.
Zuhurtziaren erakasle ta hainbat idatzi duzuna,
Heletak egun ohoratzen du bere seme jakintsuna.

Etien Sallaberry zurekin bozkariorekin gaude,
zuri zorretan gauden goresmen zintzoen entzuten zaude.
Ta liburu bat idatzi duzu, lan hori ez da debalde,
horrekin bildu dirua uzten baitu ikastolen alde.

Airea: *Oilanda gazte moko fier bat*

Zeru lurren Jaun boteretsua, hemen naiz zuri galdezka,
nere aurrean ikusten ditut ez dakit zonbat bidexka.
Badut beldurra hoberenari ibilki naizen iheska,
hoberenean banintz ez nuke gaur dutan bezenbat kezka.

Kezka haundi bat nere barnean ez baitut ahal mugatzen,
iduritzen zaut zure izanaz beraz naizela dudatzen.
Nere barneko min bizi hori ahal balitz bururatzen...
Zuhauri horren eskatzeraino nolaz naizu menturatzen?

Zu ganik urrun naizen guzietz trixte da nere zortea,
nago munduan ni bezain trixte bertze nihun nehor dea?
Bilatu nahi zinduzket eta zu irriz nunbeit gordea,
zure eskasak zauri bizia emaiten dauta ordea!

Zutarik urrun nintzan denboran, ez naiz ari gezurrean,
heriotzeaz besterik deusik ez nuen nere aurrean.
Heriotzea ikusten eta hor ni haren beldurrean,
fedea eskasa bezain trixterik deus ez ditake lurrean.

Milesker, Jauna, berriz jin zira neri indar emaitera.
Jainkotasuna ekarri duzu nere gizon izaitera.
Fedea nitan emenda zazu, utz nezazu erraitera
ilunpetatik nahi dutala behin betikotz atera.

Orai artean ez dakit xuxen zer neraukan bihotzean,
iduri zautan jada sartua nintzela heriotzean.
Nigarra bera etortzen zauta berriz zutaz orroitzean,
grazia eske xumeki zuri nagolarik otoitzean.

Nolaz ditake hoinbertzedino otoitza dutan maitatu?
Nahi daukitzut ene baitako ahuleziak aipatu:
sakramenduen oinetarik naiz ainixko aldiz airatu,
Jauna, ez dakit zuk ala nik nork duen gehienik pairatu.

Geroztik nabil ezagutzaz ta estimuz gaindi zuretzat,
sakramenduak eta otoitzak bertzerik dira neretzat;
ohartzen bainaiz gauza ederrak egin tuzula denentzat,
guk merezitu baino ainitzez hobea zira guretzat.

Ez dut galdatzen arantzik gabe izan ditezen loreak,
ez eta ere iragaitea gaur baino egun hobek.
Soleigarriak irabaztean girixtinoen zorteak,
merezimendu ta atseginak berekin dauzka gordeak.

Eguberriz da Jesus sortua, badauka bere loria!
Gizon guziak salbatu nahiz zen mundurat etorria.
Fede gabeak iduri luke lurreraino eroria:
bere hegalean indarrez aira ezin ditaken xoria.

Xori umea, ezin hegaldia, laguntza eskas duzia?
Girixtinoa berdin ahul da, hortan ditake guzia.
Gure baitarik kausi dezagun zeru lurren Nagusia,
Jaunaren bilatzea Jesusek gizonen gain du utzia.

Arima deitzen den izaitea, ta izpiritu hutsari,
izpiritua lantu behar da behatu gabe uztari;
kezkatu gabe neke ta dorpez ta zer eman gorputzari,
penitentzia izan behar da gogo bihotzen uztarri.

Gure bekataz kargaturik du karreatu kurutzeara,
ordu zen noizbeit ohartu eta guri ere damutzeara.
Ez baita aski egin hutsaren nola den ezagutzeara,
gero onartu nahi ez bada penitentzia luze.

Girixtinoen eginbideak leialki ditut beteko,
gorputz arimak ezartzen ditut, Jainkoa, zure meneko.
Aingeru baten amodioan Jaunak ahal nau erreko,
egon nadien Jesusekila goi erresuma bereko.

Amodioak hortaturik gazterik nintzan ezkondu.
bainan bizian baduzu ainitz gora behera ta kondu.
Elgarrekilan hasarre gira, nehola ezin konpondu;
egiak badu bere bidea, argitaratzea on du.

Etxean deusik ez ginuela deusik gure izenean.
«Zer balio du manera huntan ar gaiten hola lanean?».
Senarrak hori erran zerautan kolera haundienean,
ta nik galdatu: «Zuk zer zinuen esposatu aintzinean?».

Erran orduko dolutu bainan jadaneko zen errana,
lano goibel bat geroztik dago nere gainean etzana.
Ene senarra horra zergatik den etxetikan joana,
amodioa zen leku hartan orai herra da emana.

Arrazoina du, ez du balio segurtamenik gabean
bere gorputza, bere bizia, uztea bertzen menean.
Etxeko sua estal zitaken etxeko hautsen barnean,
salbamendua nehorendako ez da ihes egitean.

Zahar ta gazte etxe berean, eta ontasun berekin,
desberdin dira ahalez eta bereziki ideiekin;
eta halere etxe berean bizi behar elgarrekin,
arranjamendu zerbeit ez zena eginen denborarekin?

Ni ere parte hobenduna naiz gure samurgo horretan,
hortakotz ez naiz senarrarentzat sendimendu idorretan.
Ez diot erran gezurrik bainan ez mintzatu egietan,
ez diot erran gure etxea itoa zela zorretan.

Lagunek ere erran zioten: «Kuraiez betea zira,
hiria utzi eta ezkontzaz hola joateko mendira!».
Itsumenduka etorria zen baserri hunen erdira.
Etxeko berri guziak gero kanpotik jakiten dira.

Nihaurek ere ez bainakien zonbat zorren ginen jabe,
ikusi eta gure begiak zerratzea ez da hobe;
ezen orai gu, hura eta ni, bagira bi dohakabe,
ta gure haurra inozent hotza oraindik aitarik gabe.

Geroa ez da naski gurea, adizu, Jainko maitea,
zendako egin duzu guretzat gisa huntako zortea?
Elizan hartu ninduen lagun, badu jadanik urtea,
hartu ninduen toki berean aski ninduen uztea!

Samurgo hunen kiretsa, Jauna, nola bentzu, nola garrait?
Zuk badukezu eskubidea, nago zure indarren guait.
Gaurko ilunak argi zirrinta badu guretako noizbait,
haurraren gatik bederen berriz jinen dela iduri zait.

Espos gauean leialtasuna Jainkoak dauku agintzen,
gero etorri gorabeherak bihotza dute sumintzen.
Gure zerua goibelik dago, noiz hasiko da arintzen?
Lano ilunak urratu eta zeruko gaina urdintzen?

Ezkondu ginen eliz erdian, zure aldare oinetan,
amodioa bihotz barnean ta irria begietan.
Geroztik biek segur naiz nigar egin dugula bietan,
urrikia ez baita sekulan sartzen bihotz hetsietan!

Espos gauean hitzemaneri senarrak dezan obedi,
zoazi, otoi, Jaun amultsua, zure botza dio adi.
Erran iozu joanen naizela haren bila bide erdi,
zeruan eta lurrean ere zuk nahia egin bedi.

Ezkontzak gaitu batetataratu ta behexi hasarrean,
orai ohartu naiz, hemen nago, Jauna, zure beharrean.
Goiz edo berant denak orroitzen dira zutaz undarrean,
ez baita ainitz kondatzen ahal gizonaren indarrean.

Ortziak zoin bortizki mendietan ari!
Zimiztak nagusitzen zaizkio gauari.
Beldurra lotua da nere gorputzari;
begira gaitzan galda dezozun Jaunari,
zuri otoitzez nago Andre Dena Mari.

Ortziak garrasian, xaharrak zoin ixil,
gazteak ere dira holakotan umil.
Otoitz kartsuenetan fermuki bainabil,
ortziek ez dezaten nehor kolpa ta hil,
zeruari gogoia bekan dut hoin hurbil.

Gero ta gehiago ortzieren karraska,
entzun nezazu, Jauna, zuri naiz oihuka;
euria zurrupitan, harria uharka,
Jauna, zer egin dugu? Zaguzula barka!
Urrikal zaite gutaz eta benedika.

Nere sendimentuak ez baitira faltsu,
urrikal zaite otoi, baitzira amultsu;
zure laguntzak dauta eman zerbeit zentzu,
zimiztak direnean gauaren intzentsu,
apur batentzat banintz elkor eta itsu.

Merezi ez ditudan grazi eske zuri,
aro ona zelarik egin dut beltzuri.
Oharpen gisa jin zaut harri eta euri,
zakurrak ihausika eginez urhuri,
bertze mundu batean naizela iduri.

Harritua bainago beldur eta kolpa,
lotsamen ezin erran hori nola aipa?
Tormenta hau nehuri ez ditake opa,
ez zaitzala mendian ortziak harrapa,
haren altzotik ezin baitake eskapa.

Ortzia eror dadin gizona da beldur,
inarrosten baititu lano, itsas ta lur.
Den azkarrena ere ez ote da uzkur?
Ortziak egin dezan desmasi ta makur,
Jauna, zendako zira guretako samur?

Aurkibidea

Ernest Alkat bertsulariarekin elgarrizketa	
J. P. Mendiburu adiskideaz	7
Emil Larre euskaltzainak	
Jean Pierre Mendibururi gutuna	9
Salbatorez Eihalarren	13
Gazten oihartzunak bertsutan	15
Ikastolen eguna	17
Emaztegaiari	19
Ama Euskal Herria	21
Baserrian egon	22
Ohean etzana	24
Eskelaria	26
Zepai sarian	27
Auzoko Mixel zenari	29
Heriotzearen beldurrean sinesgabearen dolamena	31
Aintzildar sasoinlariari Heletatik	33
Etorkizuna	36
Arrosako zubian	37
Gabi eta Elix	39
Gure alaba	40
Alkat-i	43
Munduko gauza txarrenak	46
Munduko gauza ederrenak	48
Sendimendu batzu	50
Jainkoa juje	52
Ene andregai zena	54
Mendaro Txirristakari	56
Ene senarra	59
Nolaz hasi zinen bertsutan?	61
Gaixo ama semeak	62
Haur botatzeaz	64
Pilota	66
Pithiviers	69

Aiherrako jaun erretorari	76
Gure atean nigarrez	78
Pilota	80
Gure semea	82
Otoizka	84
Apez martirra	85
Gandhi	86
Euskal izenak	87
Otoizka	88
Lazkao-txiki	89
Urtxo baten piaia	91
Amodioa gauza ederra	93
<i>Odolaren mintzoa</i> irakurri eta	96
Agur, Xalbador maitea	98
Agur, Maite Diratxet maitea	100
Euskadi dut Ama	102
Nor zen Bordaxuri	104
Telesforo Monzonen omenaldia	106
Sortetxeari	110
Egia eta zuzentasuna	112
Pestaberriz	114
Frantziaren zerbitzuko	115
Zer sinesten duzu?	117
Zergatik nigar egin duzu?	118
Oraarreko elizan	119
Ortzaizeko kartzelako gaiaz	120
Zato, zato Heletara...	121
Astoa	122
Bazkari baten ondoan	123
Mugerreko Xilintxa-ri	127
Ez zaitut nehoiz utziko	129
Espos meza batean	131
Santa Katalina	133
Ameriketatik	135
Kanadatik	137
Turixtak	139

Kontzientziaren ikertzea	141
Bizi sakratua	143
Gizongaia gipuzkoarra dut	145
Kontrabandixta	147
Herritik doatzineri	149
Gezurra	151
Larrazkena	152
Gora Etxahun	153
Gora Etxahun	155
Etxahun Barkoxe ta Etxahun Iruri	156
Iruriko pestarako	157
Sort-herriari	160
Lesakan	162
Sunbillan	164
Nafarroari	166
Zer itzal handia	168
Biarritzeko hiri langileak	170
Ama Euskal Herria	172
Milesker denen partez	175
Xanti Lazkano zenari	177
Adixkide maiteak	179
Bertsularitza	180
Seme sortu berriari	182
Manuel Lasarte bertsulariari	183
Bi potreteri so	184
Gora Muskildi!	185
Agur, Muskildi	187
Ai iguzkia!	189
Eskola utzi nahi duen semeari	190
Terexa Bizkai zendu berriari	191
Bertsotako gostuak	192
Mirentxu	193
Kukua	194
Agur bat	195
Zortzi, zortzi...	196
Izar maite bati	197

Amen egunean	198
Eguberri! Eguberri!	199
Eguberriz	200
Ogien mirakulua	202
Ardiak eta otsoak nahas	203
Eskean	204
Aintzinarakoan	205
Agur, Maite Barnetxe	206
Jakelin	207
Sei urtetako maitagarria	208
Joanes Bideberri	211
Aita Piarres Larzabal-en omenez	213
Jainkoari otoitzez	214
Bi espos gazteri	216
Bazko bestan	217
Herriko bozak	218
Ez gira deus gabe!	220
Eguberriko gogoetak	222
Zaude nerekin	224
Gehien beldurtzen nauena	226
Soldado baten auhenak	227
Gorputz saindua	228
Gure Maddi Heguy-ri	229
Denak eskolara	230
Bietarik bat	233
Jainkoari otoitzez	233
Amodiotan	234
Esposeri elizan	235
Herriko gizon bat	236
Osebari	237
Irria	238
Herriko zerbitzari bat	239
Eskerrak	240
Lau oinekin bertsu	241
Heletan astorik ez dela	242
Kezkatuaren otoitzak	245

Otoitza	247
Mendia	249
Andreari	251
Biek egin behar dugu bat	253
Amodioa zer den	255
Euskara	257
Ameriketako Heletarrari	259
Pariseko Heletarra	260
Bikarioa ezkontzen	261
Ari-ari Europan sartzen	263
Kukua kantuz entzutean	265
Kukua	268
Apeztasuna	269
Xalbador	273
Gure errientari	274
Larrazkena	276
Haur bat bezala	277
Aita batek bere alabari	279
Parezkakoak	281
Gure Euskal Herria	282
Esposentzat Jaunari	284
Urruñako elizan	285
Zorion eskean	286
Euskaltzain adixkidea	287
Pellot kapitaina	288
Mundu hobego ta ederragoa	290
Galda dezagun	291
Bertsutan nola hasi?	293
Amen pesta	294
Jendetasun ta fedea	295
Andre eta Maite	296
Pilota	298
Otoitza	299
Amen besta	301
Heletako pestak	303
Gerezietako elizan	304

Gaude otoitzetan	306
Argi zaiguzu mundua	307
Fededunen otoitza	309
Gomita	310
Lagun nezak	311
Xan eta Mixel	312
Arbonan	313
Lekuineko elizan	314
Milesker	315
Eguerdi on deneri	316
Xaharretxeak hoita bost urte	317
Kuple berri bati	318
Mixel eta Ivette	320
Euskal ikurrina	321
Marie Jeanne Martinez-entzat	323
Auzoa eri	328
Lehen eta orai	331
Alaba bakarraren ezteietan - I	334
Alaba bakarraren ezteietan - II	336
Urte betetze on	339
Jaun andere Langlés-i	340
Battitta Barbier	342
Kantatzeko aldia	343
Autonomiari ez!	345
Euskaldun fededun	348
Populuaren otoitzak	350
Goresmen	352
Otoitzean	353
Andre baten otoitzak	356
Ortzi eta zimizten erdian otoitzean	359

